

# **Eibarko euskeraren esakera eta bestelako berezitasun batzuk**

Juan Andres Argoitia

Nerea Azkarate

Xabier Gezuraga

1995ko iraila

Eibarko Udala

## Hitzaurrea

Azken urteotan euskara arlo eta esparru berrietan darabilgu eta onuragarria dela ez dago ukatzerik. Baina zabaltze horrekin batera, beharbada ibilbide naturala izango da, bularreko euskara biberioa bihurtu zaigu. Izan ere, gerra aurreko zein, neurri txikiagoan, gerra osteko lehen urteetan, eibartarrak euskaraz pentsatzen zuen, euskara zen bere erreferente nagusia edo-eta bakarra, euskaraz sortzen zuen, euskaraz osatutako izaerak gatza eta piparra, dotorezia, hizkkuntza metaforikoa, ironia, grazia, haserre, maitasuna... Toribiok esango lukeen moduan, "bizi-moduko autu guztiak euskeraz erabiltzen ziren". Azken batean eibartarra euskara zela bide osatzen zen eta Eibarko euskara eibartarren bitartez; euskarak eta eibartarrak elkar osatzen zuten, beraz.

Gaur egun, oster, biberio euskarak, sarriegi zoritxarrez, erosotasuna dela eta, gure berba-jardunen, zeozeren premia dugunean, geuretik sortu beharrean, erdaratik edaten du. Joera horren ondorioz, oraindik ere gure aittitta-amamen ahotan dauden hainbat eta hainbat esamolde, esaera, berba berezi...eurendako oso jatorrak direnak eta, bistan dagoena, denon ahotan jartzea komeni direnak, erabilpen oso urria daukate edo bat ere ez.

Hain zuzen ere, arrazoi hori kontutan hartuta, Euskar Batzordeak bertoko euskararen berezitasun batzuk, euskara adierazkorra (lokuzioak, morfointaxiaren era jatorrak eta esanahi bereziko berbak jasotzeko deia egin zuen eta horri erantzunez Juan Andres Argoitia, Nerea Azkarate eta Xabier Gezuragak jardun dute jasoketa lanean Eibarko hainbat idazleren testuak jorratzen.

## Transmisioa helburu

Lan honen helburua eguneroko bizitzan bertoko hizkuntzak, eibarrerak, duen jatorrasun-ikurrik preziatuenetakoak batu et ezagutzera ematea izan da, ondoren jasotako altxor hori erabilia izan dadin, gure aurreko belaunaldiek egiten zuten moduan. Azken batean,

gure oraingo biberioiko euskarari falta zaion bular-osagarria erantsiz, euskara jatorragoa eta beroagoa eginez lortuko dugu eta katea ez etetea eta premiazkoa dugun hizkuntza biziari eustea.

Beraz, transmisioarena da liburu honen eginkizun nagusia. Horrek esan nahi du, bai ikastetxeetan bai euskaltegietan bere lekua eta zeregina izango duela. Alldi berean, gurasoendako tresna baliagarri bezain beharrezkoa delakoan nago; zer esanik ez euskaltzale eta erudituekiko. Esandako hori guzti hori esan eta gero, ez nuke amaitu nahi, transmisioa dela eta, zera esan barik: hain zuzen ere, demaseko balore eta balioa daukan Toribio Etxebarriaren "flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar" liburua izan dela lan guzti honen ardatz nagusia. Benetan ikaragarriko aberastasuna daukan hiztegia, eibarreraren erreferente nagusia, berreskuratu eta barneratu beharrezkoa dela iruditzen zait.

Nire esan beharrekoekin amaitzeko, esan dezadan liburu honek hiru atal nagusi dituela. Hasteko eibarreraren esakerak edo louzioak. Ondoren esaldiak antolatzeke eibarreraren zenbait era jator eta berezi , eta azken atalean esanahi berezia daukaten berbak.

Lana mamitsua izanik ere, ez da pentsatu behar eibarreraren adierazkortasunaren berezitasun guztiak jasota daudenik. Izan ere, bada oraindik lan honen osagarri izan litekeen zenbait arlo sakondu beharra. Nahi duena gonbidatuta dago.

Fernando Muniozguren

Euskara Zerbitzburua

## Egileen azalpena

Orain dela lau-bost urte, hainbat eibartar gure herriko hizkeraren berezitasunak aztertu eta biltzeko asmoarekin elkartu ginen. Denon gogoan zegoen euskerak azken urteotan bereziki izan duen etengabeko gainbehera, eta horrekin kezkatuta Eibarko euskera jaso beharraren premia ikusi genuen.

Bilera haietan hartutako erabakien arabera bost talde eratu genituen: Aditza, Morfosintaxia, Lexikoa, Fonetika eta Lokuzioak. Talde guzti hauen lanak batu ondoren, Eibarko euskeraren ezaugarrien berri eukitzea zen helburua, gure mintzairaren gaur eguneko argazki bat, ahal denik eta zehatzena.

**Lokuzioak** izeneko taldekook berehala konturatu ginen gure eginkizunak uste baino alor zabalagoa hartu behar zuela. Izan ere, **lokuzioa** hitzak definitzen duena bakarrik jaso ezker, hizkuntzaren hainbat eta hainbat baliapide kanpoan geratzeko arriskua zegoen.

Hori dela eta, esparrua zabaltzea erabaki genuen, besteak beste, errefrauek edo atsotitzak, esakune bereziak, hitzen esanahi eta erabilera bereziak edo bitxiak bildu ahal izateko. **Lokuzioa** berba, beraz, baztertzea erabaki genuen lan honi izenburua ipintzean.

Era honetako lanari ekiteko metodologia bat erabaki beharra zegoen, besterik ezean horren alor zabal eta korapilotsuan ez galtzeko. Hortaz, lehenengo eta behin, materiala hizkuntza idatzitik jasotzea erabaki genuen.

Eibarko euskeran idatzitako materiala batu genuenean, nabarmen geratu zen Toribio Etxebarriaren lana. Gizon honek Lexikoian eta beste hainbat liburutan jasotakoa benetako altxorra da ez bakarrik eibartarrontzat, baita gure herriko hizkeraren berezitasunen berri jakin nahi duenarentzat ere. Eibarko euskerak bizirik irauten badu,

Toribio Etxebarriari esker izango da neurri handi batean. Baina, zorionez, badira gure herrian bertoko hizkeran idatzi duten egile gehiago ere.

Idazle horien lanak batzeko laguntza paregabea aurkitu dugu Aita Mokoroak egindako liburu mardulean. Dena dela, hiztegi hori goitik behera eta zehatz-mehatz aztertzeko astirik ez genuenez, EJIE erakundeak guretzat hustuketa berezia egin zuen: Mokoroak Eibarren aurkitutako lekukoen izenak eta lanak. Guztira Eibarko idazle hauen lanak aztertu ditugu: Aixerixa, Garagoitxi, Izparkari, Juan Antonio Iturrioz, Juan San Martin eta Toribio Etxebarria.

Hauengandik jasotakoek lan honen zatirik handiena hartu dute, baina ahozko euskeraren lekukotasuna ere jaso nahi izan dugu. Edozein modutan ere, badakigu esparru honetan dagoen guztia batzea ezinezkoa dena; ziur gaude hainbat eibartarrek eguneroko berbetan erabiltzen dituzten esapide jator mordoaz jasotzeke dagoena, baina ez da gogo faltagatik izan, denengana ailegatu ezinagatik baino.

Alor horri dagokionez, eskerrak eman nahi dizkiegu Begoña Aizpiri, Jose Etxeberria "Querido", Jesus Mari Gisasola "Trunboi", Roberto Larreategi, Rosa Oñaederra, Orozko-Telleria familia eta Felix Arizaga (hauen berri Antxon Narbaizak eman digu) eta Fernando Muniozgureni, denek ere ahozko eibarreraren hainbat adibide eta aholku eman dizkigutelako.

Bestalde, Serafin Basaurik eta Antxon Narbaizak eman diguten laguntza bereziki eskertu nahi dugu. Lehenengoak, lana goitik behera aztertzeko pazientzia izateaz gainera, zalantza asko argitu eta makina bat oker zuzendu dizkigulako. Bigarrenak, berriz, adibide mordoaz hornitutako zerrenda luzea eman digulako.

Material guzti horretatik zein berba edo esaldi aukeratu eta zein ez erabakitzeko orduan erizpidea hauxe izan da: guretzat deigarriak, bitxiak edo dagoeneko erabiltzen ez direnak sartu ditugu. Ondoren, ahal izan dugun neurrian argitu eta definizio bidez azaldu ditugu, beti ere alboan adibidea idatziz.

Jakina, batzuei bitxia edo ezezaguna begitantzen zaiena beste batzuentzat erabat arrunta izango da; ziur gaude edadeko jendeak ia denak ezagutuko dituen, baina gazteagoentzat edo bere burua Eibarko euskeraz gehiago jantzi nahi duenarentzat lan hau baliogarria izan daitekeelakoan gaude.

Eibarko euskera idtziaren eta mintzatuaren hustuketa egin ondoren, bigarren pausua eman beharra zegoen, ordenatzea eta sailkatzea. Horretarako hiru atal nagusitan banatzea erabaki genuen:

1. Lokuzioak
2. Morfosintaxia
3. Lexikoa

Lehenengo atalari dagokionez, nahiz eta **lokuzioak** izenburua izan, lokuzioak ez diren hainbat gauza sartu ditugu, besteak beste, errefracioak edo atsotitzak, konparazioak, kunplimenduzko esakerak, jolasen eta jokoen inguruko esaldiak eta kantu eta bertso zaharrak.

**Morfosintaxia** izeneko atalean morfologia eta sintaxiaren ikuspuntutik begiratuta berreskuratzea merezi duten hainbat esaera batu ditugu. Gure ustez penagarria da eibartar peto-petoek edozein gauza edo kontzeptu adierazteko dituzten baliapideak, gaur eguneko euskera batua edo estandarra hobea delakoan, baztertzea edo albo batera lagatzea. Horiek jaso eta erabiliko bagenitu, makina bat gatzik gabeko adierazmolde bertan behera utziko genituzke eta gure euskera askoz ere aberatsagoa eta oparagoa izango litzateke.

**Lexikoa** izenburupean dakargun hirugarren atala funtsean hiztegia baino ez bada ere, ohizko hiztegieta ez daudenak ageri dira. Guk hitzen esnahi bereziak izan ditugu kontutan. Horrezaz gainera, metaforak, eufemismoak, ume-hizkerako hitzak eta hain zabala den interjekzioen eta exklamazioen munduko adibideak sartu ditugu. Baita, sasoi batean Eibarren hain hedatuta egon zen armagintzaren alorreko berba batzuk ere.

Gure azterketaren muina Eibarko hizkera izan arren, hizkuntza ez eze, lehengo eibartarren bizimoduaren berri ematen duten esaldiak ere tartekatu ditugu. Guk behintzat horien bitartez gure arbasoek mundua ulertzeko zuten filosofiaz eta umoreaz, ehizarako eta perretxikutarako zaletasunaz eta hainbat eta eta hainbat ohiturez asko ikasi dugu.

Modu honetako lanetan gertatu ohi denez, gurean ere okerrak eta akatsak bat baino gehiago izango dira noski. Guk, behinik behin, berba askotan zalantza ugari izan dugu definizioa ematerakoan. Hori dela eta, biziki eskertuko genituzke irakurleen zuzenketak eta iradokizunak.

Gure ustez, gainera, gaia ez dago agortuta, ez da hurrik eman ere. Horregatik interesgarria litzateke beste norbaitek lekukoa hartu eta ahozko azterketa sakonagoari ekingo balio.

Juan Andres Argoitia

Nerea Azkarate

Xabier Gezuraga

## Lokuzioak

Munduko edozein hizkuntza hitzek eta hitz horiek nola konbinatu edo nahastu agintzen duten arauak osatzen dute. Baina hitzekin eta gramatikarekin bakarrik ezin daiteke hitzunen barne-mundua ondo adierazi. Zerbait gehiago behar da. Gramatikaren lege estuak nolabait hautsi.

Horretarako hizkuntza guztiek dute gramatika gainditzen duen beste eremu bat, adierazkorra esan genezakeena. Gramatikak hizkuntzaren arauak baino ez ditu ematen. Alor adierazkorrak, berriz, batzutan arauak bortxatuz, bizitasuna, indarra, gatza eta kolorea ematen dio hizkuntzari.

Hau guztia hobeto ulertzeko ipini dezagun adibide bat. *Horrek oso buru haundia dauka* esaten badugu, gramatika eta arauen aldetik guztiz zuzena eta bidezko esaldia dugu, informazio zehatza ematen du, baina era berean oso hotza, aseptikoa da.

Jo dezagun orain *Horrek erregaldaria bezalako burua dauka* esaten dugula; sakonean aurreko esaldiak dioena esaten dugu. Formari begiratzen badiogu, ostera, aurrekoan ageri ez den informazio eta konnotazioak daude: entzuleak erregaldaria zer den dakienez (gaztainak erretzeko galdara handia), berehala jabetzen da burua handia dela. Horrezaz gainera, konparazio bitxi horrek barregurea sortzen dio.

Bigarren adibidean, beraz, informazioa emateaz gain, zerbait *denotatzeaz* gain, entzulearen irudimenera zerbait gehiago dakargu, zerbait *konnotatu* edo adierazi egiten dugu.

Liburu honen muina eta ardatza, hain zuzen, hizkuntza adierazkor horri dagokio. Alor horretako makina bat esaldi eta berba batu ditugu, beti ere Eibarko euskerarenak.

Hizkuntza adierazkorraren sail hori berbez eta esaldiez dago osatuta. Lehenengo atal honetan esaldiak ageriko zaizkigu. Esaldi bereziak, esakerak, lokuzioak, esamoldeak edo esakuneak. Era askotan izendatzen ditugu, beraz. Guk argitze alde, sail honi lokuzioak izenburua ipini diogu. Baina, nahiz eta gutxi gora behera denok jakin zer esan nahi duen, kontzeptu batzuk definitu egingo ditugu. Lokuzioa, berez, zera da:

Bi edo bi baino gehiago hitzen konbinaketa iraunkor bat, perpausaren osagai bezala erabil daitekeena eta zeinen esanahia (ezaguna, bestalde, hizkuntz komunitatean) ez baita argitzen osagaien esanahiak elkartzearekin soilki. (Casares).

Hona hemen beste definizio bat:

Perpausaren elementu bezala (lexia) jokatzeko duen bi termino edo gehiagoren (lexia konposatua) konbinaketa finkatua da, zeinaren esanahi unitarioa (hizkuntz-komunitateari ezaguna egiten zaiona) osagarrien esanahi normalen batuketaz, besterik gabe, argitzen ez baita.

Azaldu dezagun adibe baten bidez: **Adarra jo**, esaterako. **Adarra** hitzaren esanahi guztiak eta **jo** aditzarenak batuz zera ateratzen zaigu: abere batzuk eta zuhaitzek dituzten zati edo atal gogor eta zorrotzak ikutu edo kolpatu. Baita animalia adarrez eginiko musika tresna jo. Baina **adarra jo** lokuzioak, dakigunez, beste zerbait esan nahi du: norbait zirikatatu edo norbaiten lepotik barre egin.

Baina, esakeren alorra ez da lokuzioetara bakarrik mugatzen, izan ere hizkuntza guztiek dituzte beste baliabide batzuk.

Guk atal honetan beste hainbat esakera mota sartu ditugu. Hor daude, konparazio baterako, errefrauk edo atsotitzak. Errefrauk berez oso lotuta daude lokuzioekin, hala ere badute berezitasun bat, beti gordetzen dute sententzia bat edo moraleja bat. Esate baterako: **On hutsa, on hutsa, kakutsa**. Onegia izateak, askotan ezer gutxirako balio duela edo kalterako dela adierazteko erabiltzen da. Errefrauek esanahi aldetik kutsu morala izaten dute beraz. Forma aldetik, berriz, gehienetan laburrak izaten dira eta normalean aditza ezabatuta izaten dute.

Bestalde, edozein hizkuntzak bizitzaren arlo jakin batzuetarako berba eta esakune bereziak eta egokiak izaten ditu. Edozelan ere, ez dihardugu lanbide jakin batean edo gizarte multzo zehatz batean erabili ohi diren berbez, horiek **argotak** dira. Guk giza-harremanetan erabiltzen diren gizalegezko konbentzioez ari gara: norbait agurtzerakoan, eskerrak ematerakoan, jaten dagoenari esan ohi zaiona, norbaitek senideren bat galtzen duenean doluminak ematean esan ohi zaiona, eta abar. Guzti horiek kunplimenduzko esaldiak dira.

Adibidez, norbait ikustean **ze barri?** edo **zer modu?** galdetzen zaio. Edo norbaitek **egun on!** batekin agurtzen gaituenean, guk **hala ekarri** erantzuten diogu.

Lan honetan era horretako esaldiak larregi ez badira ere, ageri direnek sasoi bateko giza-harremanetan erabiltzen ziren kunplimenduen berri ematen digute behintzat.

Hiztun batek hizkuntza bat zenbateraino menderatzen duen atal honetan aztertzen dihardugunak ematen du neurri handi batean. Hiztegia goitik behera jakin edo gramatika zehatz-mehatz menderatu arren, herren samar ibiliko da esakunen mundu honetan murgiltzen ez bada. Horietako tresna esanguratsu bat konparazioena dugu.



Konparazioek hiztunaren gaitasunaz gain, gizarte eta sasoi baten ohituren berri ere ematen digute.

Esate baterako, **astoratutako astarra baino saskarragoa** norbait oso saskarra dela adierazteko, edo **galbahea baino alperragoa**, baten bat guztiz alperra dela esateko.

Lan honen lehengo atalean sasoi bateko kantuak eta bertsoak ere ageri dira. Berez lokuzioekin eta zerikusi zuzenik ez badute ere, aztertu ditugun idazle batek baino gehiagok horien berri ematen zuenez, jasotzea erabaki dugu. Horiek ere antzinako eibartarren ohiturak gogora dakarzkigutelako. Gabonetan kantatzen zituzten koplak hauek adibidez: **Gabon, gabonete, errez errezete, Jesus jaio da ta, jo deigun kiskete.** Edo beste hau: **Urte barri barri, txarri belarri, daukanak ez daukanari, zaria bete madari.**

Azkenik, idazleotan lehengo jolasen eta jokoen berri ematen zituzten esaldiak ikusi genuenez, horiek ere hemen sartzea ondo begitandu zaigu. Burroka egitean konparazio baterako, ondorengo hitzak erabiltzen ziren: **Txorro, morro, piko, taillo ke.** Edo, jolas batean hasi baino lehen nor geratzen zen gatibu erabakitzeko erabiltzen zen lelo hau: **Don don, kikilimon, sarrakuke, sarramon, pike pike, tortolike, ban bu, sirre keta ke, bu.**

ABERATSA, INFARNUKO LARATZA; POBRIA ZERUKO LORIA. - Erljio kutsuko erretra. Bizitza honetan pobrea dena ondorengoan zoriontsua izango dela eta aberatsak, berriz, zorigaitza jasango duela esan nahi du. Bibliako ganbeluaren eta orratzaren zuloaren pasarte ezaguna dakar gogora.

ABEZIAN EGON.- Gauza bat hasieran egon. "Abezian dagoz ondiokan orrek jakintsuok gei onetan."

ABITTUA JANTZI.- Abade edo fraile egin. "Seme zarrenak atzo jantzi eban abittua".

ADARKADIA JAURTI.- Adarka egin. "Zezenak adarkadia jaurti detsa atzetik erabixan txakurrari".

ADARRA JO.- Norbaiten kolkotik barre egin. Batzutan, txantxetan ere esan nahi du. "Adarra jotzen esandako ipoiñak dira orrek." Gaztelaraz, 'cuentos dichos en broma'.

ADURRA JAUSTEN EGON / ADURTI EGON / ADURRA DARIXOLA EGON.- Zeozergatik liluratuta dagoenari buruz esan ohi da. "Adurra jausten zeguan bere maittari begira."

AFANA EMON.- Zerbaiti larregizko onespena eman. "Kudru bati gizonak ainbeste afan zelan emon leikian be ez eban konprenditzen."

AFAN-USAIÑAK ERABILI.- Harropuzkerietan jardun. "Ez dakigu zer dan, baña afan-usaiñak badarabiz."

AFARI, BAZKARI LEGIA EIÑ.- Afaldu, bazkaldu. "Gaurkuagaittik, eiñ dogu afari legia, naiz da porruegaz."

AFARIKETAN EIÑ, IBILLI, JARDUN.- Umeek helduen eguneroko zereginak imitatuz egiten dituzten jolasak dira afariketak. "Eiño dogu afariketan, ni aitta ta zu ama?"

AGERTU BAT EIÑ.- Bisitatu. "Gaur agertu bat eiñ biarko detsagu ama zarrari."

AGILLANDO, AGILLANDO / BIZKAITARRAK DURANGO / ZAZPI KASTAÑA, ZORTZI INTXAUR / AINGERUAK GERA / ZERUTIK GATOZ / GAUZIA BADEGU BAÑA / ESKIAN GATOZ.- Gabon-sari batzean kantatzen zena.

AGIÑAK ERAKUTSI.- Mehatxu egin. Aurre egin. "Artzeko zetsan guztiari, agiñak erakusten zetsazen."

AGORRA EIÑ / AGORRUNA EIÑ.- Arrainak errazago harrapatzeko erreka uneren batean egiten zen hustuketari esaten zioten. "Presapian agorra eiñda erozenbat angira, loña eta barbu artu eben Santa Ana egun baten." "Agorruna eingo juagu amen!".

AIDA BATEN.- Berehala, oso azkar. "Bikotx onek aida baten irabazi detse joko erdixan itxirik bestia."

AIDA TA IXO.- Ahal den moduan. "Aida ta ixo, bagoiaz zartuaz." Gaztelaniazko 'A trancas y barrancas'.

AIDIAN EIÑ.- Gauza bat azkar egin. "Aidian eñ dittu etxeke zeregiñak, erromerixarako asmuan."

AIDIAN EGON.- Asmoren bat gauzatu gabe dagoenean esaten da. Zalantzan, erabaki gabe egon. "Zure asmuak aidian dagoz ondiokan". "Ori kontuori aidian dago ondiokan".

AINBESTIAN ERITXI.- Zerbait balekotzat hartu, zerbaiti nolabaiteko oneritzia eman. "Jan da edanian dirua emotiari tira, ainbestian zeritxon; baiña zeri ta medikutzari?"

AINGERUA IZAN.- Ume bat hil dela esateko. "Aingerua izan da gaur, Untzaga kaletik."

AINTZAKOTZAT ARTU.- Norbaiti edo zerbaiti merezi duen garrantzia eman. "Ik esandakua ez jok aintzakotzat artu".

AIXA EMON.- Norbaiti palagu egin, zozertarako animoak eman. "Or jiar duk egun guztian uezabari aixa emoten".

AIXIAK ERABILLI.- Zozertarako asmotan ibili. "Aixiak erebixazen ezkontzeko."

AKER USAIÑA IZAN.- Baserri giroko ohiturak ( zentzu peioratiboan) laga ez dituenari esaten zaio. " Aker usaiña ez jako joan ondiokan." Gaztelerazko 'pelo de la dehesa'.

AKULU BAT, AKULU BI.-Torlosetako jolasean erabiltzen diren berbak.

ALBO-KARGIA EUKI / ALBO-KARGIAKIN JUAN, EGON.- Mozkorrraren mozkorraz balantzaka, jausi beharrean, ibili. "Jaietan, gabea orduko sarri azaltzen zan albo-kargiak gorputzari eutsi ezinik."

ALDI ONEKO/TXARREKO EGON.- Umore oneko edo txarreko egon. "Gaur aldi oneko daukagu uezaba."

ALDIAN IZAN.- Gauza batek beste bat dakarrela esateko erabiltzen da. "Aspaldi dala biar barik ebillen; eta biarrik ezak aldian izaten dau dirurik eza be."

ALKARREGAZ BUSTARTZEKO MODUKUAK IZAN.- Pertsona bi izaera berekoak direla adierazteko. "Bixok dira buztartzeko modukuak." Gaztelerazko 'tal para cual'.

ALKONDARIA DARIO(LA) IZAN.- Alkondaria bistan izan. "Alkondaria dario dozu fraken apurtu batetik".

ALPERRIK MARIXAK MAKILLATU, BEREZ BIAR DAU.- Errefraua. Norbait jo arren, alperrik dela, ez dela aldatuko esan nahi du.

ALPERTSUAN EGON.- Ezer egin gabe, kolperik jo gabe egon. "Iñori eraiñ biharrak eta norbera alpertsuan egon".

ALTAN EGON.- Animaliak araldian egon. "Ataiko txakur emia altan dago, eta barruan lotu biarko dogu."

ALTAN JARRI.- Animaliak araldian jarri. Gizakiei buruz ere esan ohi da, norbaiten sexu-grina adierazteko. "Udabarrixakin batera altan jartzen da".

AMAIÑ EMON.- Norbere keriei men egiteari esaten zaio. Zentzu sikikoaz gain, zerbait askatzea ere esan nahi du. 'Gaztelera'zko 'dar rienda suelta' . "Amaiñ emon zetsan bere buruari, eta jausi zan azkenengo bizi-modura." "Kaixolan neukan txorixari amaiñ emon najetsan ez ebalako kantatzen".

AMAN GONAPETIK URTEN BAKO UMIA.- Esperiantzia gutxi eta biziaren berri gehiegirik ez daukanari buruz esaten da. "Aman gonapetik urten bako umia zan, soldautzara juañ biar izan ebanian."

AMEN-AMEN / BAI-BAI JENDIA.- Lausengutan dabilzanari esaten zaio. "Ez eban bere inguruan, amen-amen jendia baño."

AMERIKETAK EIÑ.- Aberastu. "Katxurriologiñan sakape baten, iñora juañ barik, Ameriketak eiñ zittuan."

AN AIXELAKUAN EMEN!.- Norbaiti agudo itzultzeko agintzeko erabiltzen da. "Juari azkar, an aixelakuan emen!"

ANDRAK TXARRAK ETA TXARRAGUAK / ANDRARIK ONENA ALDAMENEKUA.- Esaldiok asmatu zituena ez zen ez feminista amorratua.

ANKA BAT KANPOSANTUAN EUKI.- Hilzorian egon. "Estuasuntxo bat bakarrik? anka bat kanposantuan eukala ei juañ da."

AO BETE AGIÑEKIN LAGA.- Erantzun baten bidez norbait zer esan ez dakiela utzi. "Or konpon! eta ao bete agiñekin laga zittuan."

AOPIAN BERBA EIÑ.- Baju berba egiten duelako edo ondo ahoskatzen ez duelako, norbaiti ulertzen ez zaionean. "Aopian berba eiten dau eta ez jako ezer aittutzen."

AOZABALIK EGON.- Zerbaitek edo norbaitek liluratuta, zur eta lur geratu. Gauzaren batek, oinetakoak normalean, josia askatuta duenean. "Ao zabalik daroiaz oiñetakuak."

APOPILLUAK IBILLI.- Exteetan saguak-edo dabilzanean. "Or etxian aspaldixan apopillo ugari dabik".

APOTAN EGIN.- Dirua ordainduz larrutan egin. "Apotan izan da erbeste aldetik."

ARABAKIÑA BOTA.- Adabakia josi. "Soiñekua eukan arabakiña bota biarrian goi ta be."

ARATOSTE IBILI / KOKO JANTZI/ KOKO AGERTU.- Ihauterietan mozorrotu. "Aura, urte guztian dabill aratoste." "Bazoiaz aurten koko-janztera?"

ARDAU BOTIA GIZEN-GIZEN IPIÑI.- Zahatoa bete. "Goizeko maiko legiak bete ondoren, ardaubotia gizen-gizen ipiñitta, aldaz gora abixau zan."

ARDAU JANA EIÑ.- Zurrutean ibiltzeko atxakian egiten den janaldia. "Atzo erbixa ekarri dau Polak, eta gaur ardaubotia jana dabe Eperra'nian lagun guztiak."

ARDAUAK, ONAK ETA OBIAK DIRA BAKARRIK. - Eibartar ezezagun eta ardozale baten esaera.

ARDIXETARA EITTEN DABENA.- Ardiei eraso egiten dien txakurra. "Ardixetara eitten ebana aurkitu zan a txakurra eta ill eiñ biar izan eben."

AREN BATEN / ORREN BATEN.- Gauza bi antzera samarrekoak direla esateko. "Bata katu eta bestia txakur, bixak aren baten dabiz."

ARGITTAKUA BOTA/ARGITARAKO BOTA.- Mezatan eta elizkizunetan dirua eman. "Ez zan ermitarik nun argittakua botako ez ebanik".

ARIMIAK URTEN.- Umetan, zauriren bateko odolarekin batera arimak irteten zuela pentsatzen zuten. "Lotu deigun atzapar ori, arimiak ez deizun urten bertatik eiñ dozun zaurixakin."

ARITXAN IZAN / JOAN / EIÑ.- Gurasoen etxetik alde egin. "Ba al dakizu Patxiri semiak aritxan eiñ detsanik?"

ARNASA BATEN ERAN.- Trago batean edan. "Kasik pittarkada ardaua eran neban arnasa baten."

ARNASIA EMON.- Norbaiti animoak eman. "Makalduta zan jendiari, arnasia emon zetsan bere berba bizixegaz."

ARNASIA GASTAU.- Hil. "Goizeko amaiketean arnasia gastau jako."

ARPEGIRA BOTA.- Norbaiti bere hutsa edo gaizki egina aurpegiratu, aurpegira esan, gaitzetsi; baita jasotako mesedeak gogora araztea ere kontu-pasatze aldera. "Beiñ izan nitzan aren laguntasunan biarrian, eta milla bidar arpegira bota desta gero".

ARPEGIXA EMON.- Une latzen batean zerbaiten ardura izan eta, ezkutuan egon beharrean, bertan azaldu, aurre egin. Kontra egin. "Gazte gaztetatik arpegixa emon biar izan zetsan bizimodu gogor bati".

ARPEGIXA EUKI.- Lotsarik gabe eta ausarkeriaz agertu; ezergatik ardura ez eta isilik eta geldi egon beharrean, denean lehenen agertu eta isilik egon ez. "Arpegixa euki eban ondiok gure aurrera agertzeko".

ARPIA JO.- Adarra jo, norbaiti barre edo burla egin. "Arpia joten diardu eta ez zeixozu ezer sinistu."

ARRAITXIKO EKARRI/ ERUAN / ERABILLI.- Norbait lepoan ekarri, eroan, erabili. "Arraitxiko eruan dau aita zarra, botua botatzera."

ARRAK EIÑ.- Zerbait usteldu, alperrik galdu (haragiarekin erabiltzen da, normalean). "Utsa denboran, arrak eiñ jakoz erosi dozun txarrikixari."

ARRAMUZKA EIÑ.-Agiraka, errieta egin, haserre egin; norbaitek zerbait esan digunean, zentzuzko era jatorrean entzun edo erantzun ordez, hitz zatarrezko erantzuna eman. "Merezi barik arramuzka eiñ zetsan".

ARRANTZA EIÑ.- Negar egin, zarata haundia atereaz. "Ez jakuen geldittu beste arintasunik, arrantza eittia baño."

ARRAPATAKA IBILLI.- Prisarekin ibili. "Arrapataka eindako biarra, alperrikua".

ARRAUTZAK BOTA.- Oilalokari arrautzak ipini errun ditzan. "Ogei arrautza bota detsaguz olla lokiari."

ARRIABARRA / ARRIXA BATU.- Hondamendian jausi. "Arriabarra batu detsa bere buruari jokuakin."

ARRIO EIÑ.- Desafio batean atzera egin. "Ainbeste diru jokatu bere alde, eta arixak arrio eñ dau laugarren topia baño len."

ARTAKOTZAT EGON.- Nork bere burua zeozertzat izan. " Artakotzat nago neu beintzat, ondrauen artian."

ARTANTXE EGON.- Norbaitek esandakoarekin bat etorri, ados egon. " Neu be artantxe nago, egixa dala diñuana."

ARTERIK ARTU EZINDA / ARTIAK ARTU EZIÑIK IBILLI.- Zerbaiti neurri egokia hartu ezinik ibili. Pozarren egon. "Ez jakiñat zer dodan: aspaldian emen nabin nere buruoni arterik artu ezinda, purgok eta iñuñ direnok artzen." "Txerrikumok merke artziakin gangaren bat ei ebalakuan artiak artu ezinda ibili ei zan."

ARTIK BEDORI!- Gauza bat konpontzea berria erostea baino garestiagoa zenean, konpontzaileak (Argaratek) haserre esaten zuena. Harrezkero, gauza bat konpontzeak ez duela merezi esateko erabiltzen da " Argaraten pipiana: artik bedori!"

ARTOTARAKO LAIÑ BE EIÑ EZ.- Lanbideren batean diru gutxi irabazten denean esaten da. "Artotarako laiñ be ez da eitten ofizio onetan."

ARTZEKOZ JOSITTA / BETETA EGON.- Arrazoirik ez, dena berak esan eta oraindik haserretu egiten denari buruz esaten dena. "Autua berak ondatu eta ondiok artzekoz beteta".

ARTZEKUAK EIÑ.- Arrazoi haundirik gabe haserretzea. "Aurria artu bestieri eta artzekuak eñ berak."

ARUTZ DA ONUZKUA.- Joan-etorrikoa. "Arutz da onuzkuak, batera, kontu obia dau."

ASAJE BAT, ASAJE BI.- Tortolosean erabiltzen ziren berbak.

ASAJIETAN EIÑ.- Tortolosean ibili. "Eskola neskatzak, asajietan eitten eben, ordura arte, tortolosekin."

ASKIA GOIXAN EUKI / EGON.- Jaten gutxi ematen duten lekuei buruz esaten da. "Morroi egon zan etxian, askia goixan".

ASKIA NORBERAN KONTU EUKI.- Lodiei buruz esaten zutena, neurririk gabe jateko aukera zeukatela adierazteko. " Amen bertan Artola, askia bere kontu daben ezker!"

ASKO ARDURA DESTA BA! - Norbaitek egindako destaina gutxiesteko erabiltzen den esaldia. " Asko ardura desta ba neri zu asarratziak!"

ASKO IRABAZI.- Aurrerapen handia egin. "Euskeraz asko irabazi dau, abade gazte orrek."

ASKO IZAN.- Egoera bati apartekoa edo arraroa erizteko erabiltzen den esaldia. "Asko dok ba, au be neri gertatu biarra!"

ASKO TA LARREGI.- Ugaritasuna azpimarratu edo nabarmentzeko erabili ohi da. "Asko ta larregi eñ dozu oiñ artian."

ASTAPUTZA IZAN.- Gauza baten balio eskasa nabarmentzeko. "Astaputza al dok, orretara alperrik galtzeko gauzia?"

ASTARTUA EMON.- Astindua, sapuztua eman, zentzu fisikoan zein sikikoan. "Alanbriari ikutu eta emon zetsan astartua, iltzeko bestekua". "Aitak emon zetsan astartuakin, ez eban euki geixago guzurra esateko gogorik".

ASTE IZAN.- Laneguna denean esaten da. Jai izan-en kontrakoa. "Gaur aste dot; jai doran baten etorriko naiz."

ASTEKO BERBIA ZELAN EMON BE JAKIN EZ.- Egonezina edo urduritasuna dela eta, berbetan nondik hasi ere jakin ez. "Aspaldi ebillen Joxe neska baten atzetik; baiña ain zan lotsatia ez ekian asteko berbia zelan emon be."

ASTINDU BAT EMON.- Norbait jipoitu. Haserre egin ere esan nahi du. "Oinñguan astindu eder bat emoixozu, ez deiran berriz olakorik eñ."

ASTIRO IBILI.- Behar adina astia hartuz geldiro ibili. Astia, denbora izan. "Astiro nabil lanetatik."

ASTIXA ERABILLI.- Lan askorik gabe egoteagatik, astia sobera izan. "Ofiziu onetan astixa darabitt sarri".

ASTO BALTZANAK ETA BOST BOTA.- Norbaiti haserre egin, agiraka egin, egundokoak esan. "Legez erantzun ez ebalako asto-baltzanak eta bos bota ei etzezen".

ASTORAUTAKO ASTARRA BAÑO SASKARRAGUA IZAN.- Saskarra izan.

ASTOTIK JAUSI.- Bapatean, baina aurretik ondo kostata, zerbaitetaz konturatu. "Azkenian jausi zan astotik, Aralarko erretabloa zen, ez establoa".

ASTUA MAKILLARA LETXE EINDA EGON.- Zerbaitetara ohituta egon, konparazio bidez esanda. "Aren andria be astua makillara letxe einda euan."

ASTUAK PE GAZTETAN POLITAK IZATEN EI DIRA.- Norbait itsusia dela adierazteko konparazioa.

GEZURRA ASTUAK UZKARRA BAIÑO MERKIAGO IZAN.- Norbait gezurtero handia dela adierazteko konparazioa.

ATERIK AIÑA MARATILLA / ETA BAT SOBRA.- Edozertarako erantzuna duenari buruz esaten den errefracua. "Eziñ leike jardun zuregaz, aterik aña maratilla dittuzu ta". "Aterik aña maratilla eta bat sobra".

ATORU BAT, ATORU BI.- Torlosetan erabiltzen ziren berbak.

ATZA EMON ETA BESUA ARTU.- Agintzen zaiena baino gehiago hartzen dutenen aipamena egiteko erabiltzen den errefracua. "Aspertu zittuan baztar guztiak, atza emon eta besua artzeko klasia zalako."

ATZEKO OTSIK BARIK ERANTZUN.- Lasai asko, zaratarik gabe, norberari botatakoa baino erantzun zorrotzagoa eman, eta beste hori ahoa bete haginekin laga. "Plaentziatarren urteerak atzeko otsik bakoak izaten dira."

ATZIAN GELDITZEKUA EZ IZAN.- Edozertan beti aurrenengo ibiltzeko zaletasuna izan. "Galdo Txiki ez zan atzian gelditzekua, ziri-sartze kontuan."

ATZO GOIZEKUA EZ IZAN.- Gauza bat zaharra edo aspaldikoa dela adierazteko. "Aren artu emonak, ez dira atzo goizekuak."

ATZO, ATZO, ATZO/ ILL ZIRAN AMAR ATSO/ BALDIN PATXARRA MERKATZEN EZ BADA/ ILGO DIRA BESTE ASKO.- Kanta ezagunaren zatia.

AUA BETIAN.- Ozenki, goraki. Hala den ala ez ondo jabetu barik, ingurukoan aurrean maixukerietan jardun. "Aua betian guzurra darixola dago tabernan."

AUA NEURRI.- Nahi beste, aukeran. "Aua neurri gura daben gauza guztietarako."

AURRENENGO TANBOLIÑA IZAN.- Jai giroan puntakoa izan. "Erriko autuetan aurrenengua ei zan; berbetan zelebria, beti barria darixola; ta erriko jai ta jolas guztietan aurrenengo tanboliña."

AURRIAN ATARA /ERABILLI / ARTUTA EUKI .- Ihes eginarazi. "Makilla bategaz, aurrian atara zittuan lotsagabe arek." "Or doia gure semia karrerista guztiak aurrian dittuala".

AUTUAN IBILLI / IZAN.- Tartean izan, parteko izan. "Gaztia nintzan baiña autuan ibilli nintzan, erri guztia zalako parte."

AUZOKO EIÑ.- Nonbaitera bizitzera joan, eta bertakotu. "Eibarren auzoko eiñ zan, etorri eta beriala."

(N) AUZUAK KONTURATU.- Bolo-bolo zabaldu. "Auzuak konturatu dittuk ezkontzeko asmotan abillela".

AUZUEN BARREGARRI IZAN.- Ridikuloa egin. "I, urrenguan andriakin laztanka abillenan bentana ondolik erretirau eike, auzuen barregarri izaterik nai ezpok beintzat."

AXAIXA EMON.- Xaxatu, akuilatu, normalean animaliekin erabiltzen da.. "Axaixa emon zetsan txakurrari, eskekua urrintzeko."

AZITTARAKO GORDE.- Norbaiti edo zerbaiti estimazio handia izan. Normalean euren burua besteen gainetik daukatela uste dutenei esaten zaie, zentzu ironikoan. "Zu, zaran ederrakin, azittarako gordeko zaittue."



AZKAZALAK PE EZ JOKATU.- Posturetan eta, norbaiten alde konfiantza gutxi dagoela adierazteko konparazioa. "Izango da partidu orretan zorigaitzoko diru jokatzea... Neu beintzat ez noa azkazalik ere jokatzen!"

AZPILDURIA ARTU.- Joskura , dobladilloa josi. "Frakak aukeran luzetxo dakaz eta azpillduria artzia onena".

AZPIJANIAN IBILLI.- Isilean, besteak konturatzen ez direlakoan, aurrea hartu nahian ibili, konspiratu. Meriturik egin gabe besteei aurre hartu. "Munduan bakian aurka, azpijarian dabiz".

BABAK EDONON EGOSTEN DIRA.- Errefraua. Okerreko gauzak besteei ere gertatzen zaizkiela esan nahi du. Gaztelerazko 'en todos los sitios cuecen habas' horren kalkoa dirudi. "Babak edonon egosten dirala-ta nago".

BAI ZEURI BE, ALA JAINKUA!- Agur bati erantzuteko formula. "Arrasalde on danori! Bai zeuri be, ala jainkua!"

BAI-EDO-EZ / BAI-EZIAN EGON.- Zalantzan egon. "Bai-edo-ez nago, zer eñ ez dakirala."

BAITTA BAI BE.- Baiezkoari indarra emateko. "Baitta bai be, zeu zara guzurtixori!"

BALTZA BE BALTZA.- Oso beltza. "Baltza be baltza arek eñ dabena."

BALTZA IZAN.- Harridura edo haserrea adierazteko interjekzioetan asko erabiltzen da. "Baltza dok, ba! Olakua be neri pasau biar". "Au dok baltza! bosgarren pisutik jausi ta or dabik dantzan!"

BARAUA AUTSI.- Gosaldu, armozau. "Mañarixan eñ dogu baraua austia."

BARIAK ORATU.- Arineketan ibili ondoren batzutan gerrian izaten den mina. "Bide erdi eñ baño len, bariak oratu zestan eta jarri biarra izan neban."

BARRIEN BARRI.- Berriro, ostera ere. "Barrien barri ekin bear izan eban bizimodua."

BARRIKETA GITXI ETA EURAK ONAK.- Mehatxu moduan erantzuten dena. "Neu artzekoz beteta eta berak ondiok: barriketa gitxi eta eurak onak."

BASERRITARRA / TIRRI-TARRA / SAPUAN ZULUAN / BIZI TXARRA.- Bertso / kantua.

BAT ESANDA BERA BEZ.- Bat ere ez. "Jende asko izan da batzarrian? Bat esanda bera bez."

BAT, BAT, BAT / BI, BI, BI / SANCHEZ TOCA, SANCHEZ TOCA / SUR-AUNDI / IRU, IRU, IRU / LAU, LAU, LAU / DON ALTUBE, DON ALTUBE / DIPUTAU.- Sasoi bateko hauteskunde-propaganda.

BATA ZU TA BESTIA NI.- Biren arteko eztabaida batean oso eritzi kontrajarriak daudela adierazteko. "Kaxkurrio eta bere andria bata zu ta bestia ni, beti zebizen eztabaidan."

BATEK BADAHI!- Auskalo. " Batek badaki etorkizunak zer dakarkigun!"

BATEN BATEKIN ALPERRIK IZAN / JAI EGON.- Bere izaera berezia dela eta, norbaitekin jarduteak ez duela merezi adierazteko. Tira, tira! Juari azkar eure lekura, irekin alperrik dok eta!

BEGITTAKUA IZAN.- Norbait besteak baino estimatuago izan. "Rakelek euki eban bigarren umia, Benjamin, aittak eban seme begittakua."

BEGITTAN ARTU.- Norbaiti gogo txar izan. "Begittan artu nau, eta nere dana da asarre eñ biarrekua."

BEGITXUAN / BEGITXUKA EIÑ.- Itsu-itsuka (erderazko 'gallinita ciega') jolasean ibili. "Elizataixan begittuan eittia zan gure jolas bat eskolara aurretik."

BEGITXUAN IBILI.- Itsuka ibili. "Eskolarik eza, begitxuan ibltzia beste da."

BEGIXA BETE.- Zerbait edo norbait atsegin izan. "Gaur erromerixan ikusi doten neskaxa batek begixa bete desta."

BEGIXA JO.- Zenbaitzuren artean bat gogoko egin. " Begixa jota daukat neskaxa horri, auzoko polittena dalako."

BEGIXAK LURRARI JOSI.- Buru-makur egon, lotsariaren eraginez edo haserre egingo diguten beldur, behera begira egon. "Buru-makur, begixak lurrari jositxa esan neban ezetz".

BEGIXEN BISTAN EGON.- Argi egon. " Begixen bistan dago zeren ondoren dabilen."

BEGIXEN BISTATIK KENDU.- Norbaiti aldegitteko esan, mehatxu moduan. "Begixen bistatik kendu zaitez, gaiztuori!"

BEIÑ BERA ESANDA BEZ / BEIÑ ESANDA BERA BEZ.- Inoiz ere ez. " Beiñ bera esanda bez, ez eban arpegixa garbittu ogei urtian."

BELARRIAK APAL-APAL EGINDA .- Guztiz lotsatuta. "Belarriak apal-apal eginda alde eban andik."

BELIANA EIÑ.- Hanka egin, ospa egin. "Iñori ezer aitzen emon barik beliana eñ eban".

BERAKATZ ATALA BAIÑO ZINTZUAGUA.- Oso zintzoa. "Berakatz atala baiño zintzuagua urten detsa artu eban andriak."

BERATZERA BOTA.- Zerbait, normalean jatekoa, uretan sartu bigundu dadin. "Lenago, babak beratzera bota biar izaten ziran, balia lakuak gura ezik."

BERBA BATEN.- Hitz batez, laburbilduz. "Berba baten: esan dozun guztia, guzurra."

BERBAKIZUNA IPIÑI.- Hizpidea sortu. "Ondo edo txarto, berbakizuna ipiñi dau beintzat."

BERBATIK ORATU.- Norbaitek esandakoa, ondo datorkigulako-edo, gustora bete. "Berbatik oratu eta ez zetsan laga ezkondu arte."

BERBIA ARRU A ETA POLTSIKUA ZIMURRA.- Dirua urri izan arren, handikerietan ibiltzen denari buruz esan ohi da.

BERBIA JAN.- Agindutakoa bete ez. " Berbia jandako jendia jarri da aintzen leku askotan."

BERBIA KENDU.- Isildu eragin. "Joxek ez ekian gizonak andreri berbia zelan kendu asmau eziñik ebizena."

BERE / NERE... KAUTAKUETAN JARDUN / EGON.- Nor bere buruarekiko solasean egon, nor bere baitan bildurik egon. "Gure zan amak, berekautaketan jarduntzen eban zeregiñetan zan artian."

BERTAKO EIÑ.- Nonbaitera bizitzera joan eta bertakotu. "Aspaldixan bertako eiñda dago."

BERTAN BERA LAGA.- Zerbait egiteari utzi. Zerbait amaitu gabe, bere horretan utzi. "Alargundu zanian, bertan bera laga danari eta fraille sartu zan."

BERUANA KENDU.- Norbaitek esaten duena esajerazioa dela, ez zaiola dena sinestu behar adierazteko erabiltzen da. Beroarena kentzeak, berez, hiltegian animaliaaren bat hil ondoren pisatzerakoan erraiak-eta kentzea esan nahi du.

"Arek esaten dabenari, beruana kendu biar jako beti."

BERUANAK ARTU.- Sukarra, kalentura izan. "Beruanak artu dau eta ezarrixa dago gizajua."

BESTERIK EZIAN, ARTO SIKUA BE ONA.- Beharra edo premia dagoenean, dagoenarekin konformatu beharra adierazteko errefraua.

BESUETAN ARTU.- Aitabitxi, aitaponteko egin. " Auzoko andra-gizon gaztiak, ume bat besuetan artzera urten dabe dotore-dotore.

BETIKORIK EZ EGON.- Gauzak aldatu egiten direla, bizi gutzirakorik ez dagoela adierazteko. "Jai ori egundo baiño motelagua izan da aurten, betikorik ez dago ta."

BETOZKUAKIN IBILLI.- Haserre ibili. "Aspaldi onetan, betozko asarriakin darabigu uezaba."

BIARAMONIK EZ EGON.- Hil. " Kuletru faltsuagaz uts eiñ ezker, ez dago biaramonik."

BIDE BAT EIÑ.- Zeozertarako aukera eman. "Bide bat eirazu, ikusi deiran zuen aitta."

BIGUN ARTU.- Norbait ondo, gozo hartu. "Konturaturik eiñ zittuan ondamedixak, bigun artu eben."

BIK BIRI.- Pelota partiduetan, binaka jokatu. "Bik biri jokatu gentsen oneneri."

**BIRIBILL-BIRIBILLEAN GUZURTAU.-** Oso oker egon, erratu, tronpatu. Gazteleraz, 'equivocarse de pleno.' "Erraz irabazi uste eben baiña biribill-biribillean guzurtau dira; gure errikoak jan dautsie, askoren miñagaz."

**BIRLUA EIÑ.-** Bola-jokoan txirlo guztiak bota. "Orrekin alperrik dok, oiñ be birlua ein jok".

**BISTAKUA IZAN.-** Argi egon. "Bistakua zan, ze etorriko jakon, bide artatik ibiltzera ezkerro."

**BITTARTE BAT ARTU.-** Zeozertarako astia edo beta hartu. " Bittarte bat artu eta etorri zaitez zer darabigun ikustera."

**BIURRIXAN IBILLI.-** Norbait ohizko bidetik edo betiko martxatik kanpo ibili. "Jende ori biurrixan dabill aspaldi onetan."

**BIXARKO EGUNEN BATEN.-** Zehaztu gabeko etorkizuna adierazteko. "Bixarko egunen baten, biar baldin banozu, badakizu nun nagan."

**BIZI-NAI IZAN.-** Lan edo zeregin gogorretan jarduteagatik ordain urria daukanari esaten zaio. " Orixe bai dala bizi-nai!"

**BIZKARRA JASO.-** Kasurik egin ez, jaramonik egin ez, paso egin. " Bizkarra jaso eta juan zan betiko ez dakigu nora."Blastiu ederra emon detse taberna onduan".

**BLIST-BLAST JO.-** Belarrondoko batzuk eman. " Naitta aundixagua izan, blist-blast jo eta bota eban lurrera."

**BOLO-BOLO IBILLI.-** Gauza bat denen ahotan ibili. " Bolo-bolo dabill erri guztian, ezkondu eitten zarala aberats bategaz."

**BOST JAKIÑ.-** Pertsona argiari buruz esan ohi da. Norbait uste bezain motza ez dela adierazteko ere erabiltzen da. Gaztelerazko 'saber latín'. "Aspaldi badaki orrek bost, ume agertu arren.

**BOTA KONTRA!**- Apustuetan eta, desafio egiteko erabiltzen da." Bota kontra nai beste diru!"

**BOTIA ZIMURTU.-** Zahatoari trago ederrak eman, zahatoa hustu. "Egun sargoria izanik izardiz melatuta eldu zan Txakurzulora, baiña ez botia zimurtu barik."

**BURROKA.-**

**BURUA BAT EIÑ.-** Norbaitekin elkartu edo bat egin. Batzutan besteen mailara jaitsi ere esan nahi du. " Bazabiz zu burua bat eiñda kaskajo aundi orregaz". " Edadeko gizona izan arren, or dabill umiekin burua bat eiñda".

**BURUA BEROTU ETA ANKAK OZTU.-** Daukaten emaitza eskasa dela-eta, ahalegin handirik merezi ez duten zereginetan jardutea. " Arengandik ataratzen dozuna da, burua berotu eta ankak oztu."

**BURUA GALDU.-** Zoratu. " Diru apur bat eiñ ebanetik, burua galdu eban."

BURUA JASO.- Aurrera egin. Nork bere burua besteen gainetik ikusi. "Bere burua jasotzen erremia, naiz da ezer izan ez." "Estu agertu zan, baña burua jaso eban".

BURUA JOAN.- Zorabiatu. Konortea galdu. "Goi gañetan, burua joaten jata." "Ordu erdixan, burua joanda egon zan."

BURUAN ARTU.- Buruz ikasi. Gogoan hartu. "Justinianon lege guztiak buruan artuta zittuan."

BURUAN AZKA EITTEKO BAIÑO (BE) ALPERRAGUA IZAN.- Norbaiten alperkeria adierazteko konparazioa. "Buruan azka eitteko baño be alperragua zalako, zorrixak jaten ebela bizi zan."

BURUAN ULERIK AIÑA BIDAR DAMUTU.- Erabat damutu. "Buruan ulerik aña bidar damutu jatan etxia ez erosi biarra, euki neban aukeriakin."

BURUTIK BERA.- Goitik behera. Batzutan ekintza bati indarra emateko erabiltzen da. "Bete eban urez baldia eta jaurti zetsan burutik bera." "Jo ta burutik bera astindu eban".

BURUTIK EIÑ.- Zoratuta egon. "Andra koittaua, burutik eitten ebala ebilen."

BURUTIK ENDREDAUTA EGON.- Zoratuta egon. "Etxuat uste burutik ain endredauta ibilliko aizenik."

BUSKAN IBILLI.- Badaezpadako gauzen atzetik ibili. "Oñ be a buskan dabill zerbaiten ondorik."

DABILLEN LEKUAN.- Edonon dabilela ere. "Mutiko ori tripa zorririk barik ibilliko da dabillen lekuan."

DANARI EMONDA BIZI / IBILLI.- Ezeren ardura gabe, badaezpadako gauza guztietan larregi sartuta bizi. Gaztelerazko 'golfo, viva la virgen'. "Loterixan lenengo premixua atara ebanetik, danari emonda bizi da".

DANEN BARREGARRI.- Ridikulua egin. "Antxe jausi nintzan danen barregarri".

DEMANDAN EIÑ.- Gogor eztabaidatu. "Andra-gizonak demandan eiñ dabe, urtebete ez ondiok ezkondu zirala ta."

DENBORIA EMON.- Denborapasa egon. "Abontzako Pantaleonek, denboria emonaz malletan eitten eban suteixan."

DINGILI DANGUN ERAGIOZU / IÑURE GOLLIBARKUA / LOTXUA LO EGIZU ETA / BIOK JANGO DOGU OILLUA!.- Sehaska kanta.

DIRUA BOTA.- Dirua xahutu. Zerbaitetarako dirua eman, elizan, esate baterako. "Utsa denboran, gurasoengandiko diru guztia bota eban." "Neri tokatzen jatan dirua bota dot kerizpian (gartzelan) direnendako."

DIRUA EIÑ.- Aberastu. "Ona agertu dan jendia, ez bizi izatera, ez bada ze dirua eittera."

DIRUA ESKUAN.- Erosten den unean ordaindu. Gaztelerazko 'al contado'.

" Dirua eskuan dabillanak, gauza guztiak dittu merkiago."

DIRUA, DIABRUAN KOROTZA.- Diruaren alderdi txarra azpimarratzen duen definizioa. Gaztelerazko 'el vil metal'.

DON DON, KIKILIMON, SARRAKUKE, SARRAMON, PIKE PIKE, TORTOLIKE, BAN BU, SIREK ETA KE, BU.- Jolasetan gatibu nor geratuko den erabakitzeke erabiltzen den leloa.

DROGIA ATARA.- Istiluak sortu. " Jokuan, galdu biar ebala konturatzen zanian, drogia ataratzen eban."

DROGIA EIÑ.- Jokuan tranpak egin. " Drogia eiñ puruan irabazi zetsazen diru guztiak."

-(E)Z JOSITTA.- Zerbaitez beteta egon. " Oge guztia eukan imutxaz jositta".

EDERRA SAKATU.- Engainatu, ziria sartu. "Ederra sakatu detsa emaztiari, balio ez daben milla pezetakuakin."

EDERRAK ARTU / EMON.- Zerbaitetan galdu edo irabazi. Jipoia jaso edo eman. "Ederrak artuta dago, emontzallia izan arren."

EGA / EGAZTADA BATEN.- Berehala. "Ega baten juan zaittez Ermuarretaraiñok, ez daukagu ba ogirik eguardirako."

EGARRIAK ESTU ARTU.- Oso egarbera izan. Zentzu figuratuan ardozalea izan. "Pelotari ona zan; bakarrik egarriak artzen eban estu: ez emengo uran egarriak, Riojakuanak baiño..."

EGUNA ZABALDU.- Egun argitu. "Goizian laurak baño len eguna zabaldu dau."

EGUNAK DIRA.- Orain dela egun asko esateko. "Egunak dira amendik ezkutau zala."

EIBARKO KANPAIPIAN.- Eibarren. Herri baten eremua adierazteko modua. "Gaiztua, gero, Eibarko kanpaipian arek aiñako idi ondo azittako ta gizenagorik billatzia".

EIBARKO TXITXAK, OILLUAK.- Eibartarren esajeratu eta harroputz fama azpimarratzeko ingurukoek erabiltzen zuten esaldia. "Eibarko txitxak, oilluak; baña beste leku batzuetako olluak, arranuak."

EIÑ EITTE ALDERA.- Gauzak fede eta gogo handirik gabe egitea. "Eiñ eitte aldera jardun eban egun guztian, ezer zuzen atara barik."

EIÑ-ALAKO EURIA(K) EIÑ.- Euria bota ahala egin. "Eiñ-alako euriak artuta melamela jo eben ango etxe batera."

EIÑAK EIÑ.- Ahaleginak egin arren gauza bat lortzen ez denean. "Tallarretan ziar ibili naiz baiña, eiñak eiñ ezin izan dot billau."

ONIK EIÑ EZ .- Kalte egin. "Euzkixa larregi artziak ez detsa onik eiñ".

EITTEKOREN BAT EIÑ.- Neurritz kanpoko gauzaren bat egin. "Egunen batian eiñ biar dot eittekoren bat."

EITTEKUA EIN.- Zeozer apartekoa (txarra edo ona) egin dugula adierazteko."Ene! Nik eiñ juat eittekua; purua zalakuan giltza erre."

EJERA JO / JOIXOK EJERA!.- Aurkakoaren une ahulen bat aipatu. "Ejera joixok beiñ baten, semia aittatuta!"

EKIÑ DA EIÑ.- Gauza bat egiteko erabaki irmoa hartzen denean esaten da. "Ekiñ da ein, artu aizkoria ta bota eban paguori"

ELIXAN LELENGO FILAN EGOTEN DANETARIKUA EZ IZAN.- Baten bat eliztarra ez dela adierazteko konparazioa.

ELIZAKUAK ERAIÑ.- Elizak hilzorian dagoenari eman ohi dion laguntza espirituala, oleazioa eman. "Elizakuak eraiñ ondoren ill da."

ELIZIAK AZPIAN ARTUTA ILTZEKO ARRISKORIK BARIK BIZI.- Norbait oso eliztarra ez dela adierazteko konparazioa."Aretzek bai eliziak azpian artuta iltzeko arriskorik barik bizi zirana!"

ELORRIXOKO ITTURRIXAN URA ERANDAKUA.- Burutik sano ez dagoenari esan ohi zaio. "Ori be Elorrixoko itturrixan ura edandakua izango dok ba"

-EN BIDIETARA JO.- Norbaiten ereduari jarraitu. "Arraezkero amaika errik jo dabe eibartarren bidietara!"

ENORRA BAT, ENORRA BI / ENORRAK DAUKAZ AMABI.- Enorrak kentzeko asmotan erabiltzen zen leloaren zatia.

ENTZUTEKUAK ENTZUN.- Egundokoak entzun. "Ala ta guzti be, Gautxoriak entzun zittuan entzutekuak."

ENTZUTZE LABURREKOA .- Gutxitan entzundakoa, ezagunegia ez dena.

"Baso-Jauna, Goierrri aldietan izan bear eban; entzutze laburra dau ba Eibarren."

EPETAKUAK EIÑ.- Ordaindu gabe alde egitea. Eskuan ordaindu gabe erosi. "Epetakuak eitten zaliak, nik dakiran batzuk". "Autua epetakuak einda erosi eban".

EPETAN BIZI.- Inoren lepotik bizi. Zorretan edo kreditora bizi. "Lengo biargiñan burubidia, urte guztian epetan bizi."

EPETAN EIÑ.- Ordaindu gabe ihes egin. Eskuan ordaindu gabe erosi. "Plaentzian epetan eiñda datoz, amen beste bat eitteko asmuan."

EPETAN EROSI / SALDU.- Dirua eskuan barik, epe bat jarrita erosi edo saldu. "Epetan erosi eta epetan saldu, tratulari eskasan jiria".

ERAKO EGON.- Zeozer egiteko joera edo gogo berezia izan. "Erako dago gaur gure gizona soiño dantzarako."

ERAZTUNA GALDU EZ.- Norbaitek bere maila jasoari ez dagokion zereginen bat egokitu eta mesprezatzan duenean erabiltzen da. Baita norbait horri, zeregin hori egitea beste munduko gauza ez dela esateko ere. "Etxeko zeregiñak eittiakin ez jako galduko eraztuna doteduna izan arren." "Tira-tira, garbittixak platerok eraztuna etxak galduko ta!".

ERDERAK ARTU.- Gaztelera ikastera erdal herrietara joan. Lehen, sasoi batean Eibarko neska-mutikoak Arabara bidaltzen zituzten gaztelera ikastera, erderak hartzera. "Arabara eruandakua genduan, erderak artzera". Honen analogiaz EUSKERAK ARTU sortu da.

ERIoTZA EIÑ.- Hil. "Luzaruan gaixorik egon da eta azkenian eriotza eñ jako".

ERIoTZAK LOTU.- Heriotzak ezustean harrapatu, bapatean hil. "Arkolo-arkolo, baso bete edaten egoala jausi zan eriotzak lotuta."

ERITXIRA IBILLI.- Kontu handiz ibili. Gaztelera 'andar a tientas'. "Olako lekuetan eritxira ibilli biarra egoten da".

ERLAMIÑUAK LAKO GERRI ESTUA IZAN.- Norbaitek oso gerri estua duela adierazteko konparazioa. Gaztelera 'cintura de avispa'. "Neskatilla aurak, erlamiñuak lako gerri estua."

ERLIAK URTEN.- Erleek erlakumea egiten dutenean. Gaztelera 'enjambrar'. "Gaur eguardi aldera, erliak urten dau, eta or da galdara otsa auzo guztian."

ERREGALDARIA LEZKOTXE BURUA.- Norbait buruhandia dela adierazteko konparazioa. "Burua euki be, erregaldarian lazkotxia eukan".

ERREKAUA EIÑ.- Maitasuna adierazi, ezkontzeko eskatu. "Ba al dakizu Peruk Marixari errekaua eñ detsanik?"

ERRETOLIKA BATIAN JARDUN.- Gaizki esaka, protestaka jardun. Jardun eta jardun "Suak eta garrak artuta asi zan erretolika batian."

ERRIBATEKUAK IZAN.- Pertsona bi izaera berekoak direnean esaten da. "Bai, esaten dan bezela, bixak erribatekuak."

ERTZAK ILL.- Armaginen esaldia. Pieza baten ertzak zapaldu esan nahi du. Alakatu. Gaztelera 'chaflanar'. "Ertzak ill biarra dauka pieza onek".

ESKOLAKUA IZAN.- Eskola-sasoia adierazteko. "Eskolakuak giñanian, matxin-garratzak batzen genduzen, egarrixa kentzeko."

ESKUA / IKUBILLA JASO.- Mehatxu egin. " Bere gurasuari eskua jasotako seme gaiztua da ori."

ESKUA ARTU.- Zereginen batean erantzukizuna hartu. Batzutan, zentzu peioratiboa ere badu, hartutako erantzukizun hori beste norbaiti kentzetik datorkiolako. "Semiak eskua artu dau, ez deñ etxia oso ondatu". "Eskua artu detsa eta oiñ bera da uezaba".



ESKUA EMON.- Aginpidea, erantzukizuna eman. "Ikasliari eskua emon zetsan uezaba baño geixago izan zeñ."

ESNA IBILLI.- Erne, adi, argi, kontuz ibili. "Esna ibilli, mutillak, ezarri detsuen lagun orregaz, bedori argi ibilliko da ta."

ESTU ARTU.- Tratu txarra hartu edo pasatu eragin. "Estu artu niñuen uezabak berandu eldu nintzalako."

ETA BI.- Adjetiboei eransten zaion lokuzioa indarra emateko. "Zuk diñozun gizona da, ez gaiztua, gaiztua eta bi."

ETSI ETSIXAN.- Adore biziz. "Etsi etsixan banator, naiz da edurra eiñ."

ETSIPENA EMON.- Gaisoa sendaezintzat jo. "Gizajuari osagille onenak emon detse etsipena."

ETXEKO LARATZAK EZAGUTU.- Hobetoen ezagutzen gaituztenak etxeokoak edo ingurukuak direla adierazteko. "Etxeko laratzak onduen ezagutzen gaittu danok."

ETXI ETXIXAN.- Goitik behera, zehatz-mehatz, behingoz. "Obeko dozu aittari dana konfesatzia etxi etxixan parkatu deizun."

EUKIAREN JAIKIA EUKI.- Dirua dutelako-edo, euren burua besteen gainetik ikusten dutenengatik esaten da. "Ez gure gizonak asko ekialako; baiña eukiaren jaikia eban berakin."

EURIRA EGON.- Euria egiteko itxura duenean. "Aspaldi onetan eurira dago."

EUSKAL DANTZARIXAK EUSKERAZ EZ JAKITZIA OGI SIKUA MAUSTA-MAUSTA JATIA MODUKUA DOK.- Gauza edo ekintza baten kontradikzioa nabarmentzeko konparazioa.

EUZKI BIREN LEZKOTXE BEGI ALIAK EUKI.- Norbait begihandia dela adierazteko konparazioa. "Euzki biren lezkotxe begi aliak zittuan".

EUZKIXA TA EURIXA MARTIKO EGUALDIXA.- Eguraldiari buruzko errefraua.

EUZKIXAK NORA, ZAPIXAK ARA.- Errefrau ezaguna.

EUZKIXAK PASAU.- Eguzkitan erre. Insolazioa izan. "Hain luzero egon biarrakin euzki begittan, euzkixak pasau eban."

EZAU(G)ERIA EUKI.- Norbaitekin tratua izan, ezagutu. "Laguna ez da baiña aspalditik dakat arekin ezaueria".

EZ DA IZANGO!.- Zerbait ezustekoa erizten zaionean esan ohi dena. "Nai badok sinistu naikua negar erañ jestan kuadru orrek..! Ez dok izango!"

EZ DAKIK ASKO.- Ezustekoren bat iragartzeko erabili ohi den esaldia. "Ez dakik asko gaur ze pasau jatan!"

EZKERREKO BEGIKUA IZAN.- Norbait atsegin ez izan. "Uezabak beti izan eban zure semia ezkerreko begikua."

EZKONDU NINTZAN EZKONDU / BAI NERI ONDO DAMUTU / PRAKA BALTZETAN ARI ZURIA EZ JAT IÑOIZ FALTATU.- Kantua.

EZKUTUTIK EZKUTURA IBILLI.- Ezkutuan, isilpean ibili. "Ezkututik ezkutura dabill, iñok ikusi ez deixan."

EZPALA BAIÑO ARGALAGUA IZAN.- Norbait oso argala dela adierazteko konparazioa. "Bata zan ezpala baiño argalagua, bestiak, barriz, Gorbeian itxurako ipur-mamiñak eukazan".

EZTIBITSETAN BIZI.- Oso pozik, inongo ardura barik bizi. "Eztibitsetan dabill zuek amendik zaran artian."

FEDE EMON.- Gertaera bat egiaztatu, benetan gertatu dela ziurtatu, baietsi. Sinetsi. "Liburu orretan ilketia izan zala fede emoten jok". "Fede emoten jetsat aren esanari".

FIESTAN IBILLI.- Txantxetan ibili. "Erabixen asarre guztia, uste alkar jan biar ebela, eta fiestan ebizan".

FILA EIÑ.- Ixilean, ezkutuan ihes egin. "Inork kontuan jausi baño len fila eiñ eban."

FIRI(N)-FARAN IBILLI.- Zeregin ezean ibili. "Firi-faran dabill gauza onik eiñ barik."

FRAILLIEN DOZENIA, AMAIRU.- Neurria baino gehiago hartzeko (edo emateko) prest daudenei buruz esan ohi da. Fraileen dozena hamabikoa izan beharrean hamairukoa omen da. Fraile-katilua ere ohizkoa baino handiagoa izaten da. "Emoixozu apur bat geixago, badakizu, fraillien dozenia amairu".

GABERDI ZARRAK BAIÑO LEN.- Gauerdi inguruko orduak. "Bazan Plaentxian Gautxoria deitzen zetsen bat gaberdi zarrak baiño len etxera juaten ez zekiana."

GABERDIKO AUNTZAN EZTULA.- Hutsaren hurrengoa. Normalean ezezko eran erabiltzen da. "Gaberdiko auntzan eztula al da orretara lagatzeko gauzia, alegiña eiñ barik?"

GABON GABONETE / ERREZ ERREZETE / JESUS JAIO DA TA / JO DEIGUN KISKETE.- Gabon kanta.

GABONETAN KEIXAK.- Zeozer egiteagatik eskertzeko, umeei eskaintzen zitzaaien brometako ordaina. "Eldu aiz? Gabonetan keixak!"

GAIÑA ARTU.- Gailurrera igo. "Nekez baten, Elosu gaña hartu genduan."

GAIÑEKO IBILLI.- Besteen ginetik ibili. "Gañeko dabill or mundu guztia apurtu gurarik."

GAIÑEKORA JASO.- Suzko armetan tiro egiteko prestatu, gatusa ('gatilloa') jasoz. "Gañekora jaso eta jaurti zetsan burura."

GAIÑEKUAN EGON, ERABILLI, EUKI.- Arma tiro egiteko prest euki, gatusa jasota euki, alegia. "Gañekuan darabill beti eskopetia eta alakoren baten eñ biar dau okerra."

GAIÑETIK EIÑ.- Gogorrago erantzun. "Alperrik uezaba zan gogorra, gañetik eñ zetsen biargiñak, errezoiz beteta ziralako."

GAIÑ UTS EIÑ.- Bolari arteko esaera. Bola txirloak ikutu gabe gagnetik pasatzea esan nahi du. "Alakoren batian gaiñ utsa eñ biar".

GAIZKI ARTU.- Esan edo egiten digutenari txarto eritzi. "I, ez eidak gaizki artu, baiña or ez dok adore aundirik erakutsi".

GAIZKI AZI.- Gaizki erakutsi, gaizki edukatu. "Gaizki azitako umiak dittu, eta ez daki zer buru-bide atarako daben".

GAIZKI EIÑ.- Kalte egin. Zeozer modu txarrean egin. "Zori Diabruana, gaizki eñ gurarik, onerako jarduntzia". "Gaizki eñ gauzak, ondo eittia bardiñ kostatzen danian, zorakerixia".

GAIZKI ESAN.- Norbaiti buruz gauza txarrak esan. Biraoak esanez hitzegin. "Ori bizi guztian ibilliko dok gaizki esaka".

GAIZKIÑAK EUKI.- Haserre, umore txarreko egon. "Gaizkiñak jaukaz gaur gure mutill zarrak eta eziñ lajeikek urreratu beragana."

GALBAIA BAIÑO (BE) ALPERRAGUA IZAN.- Alperkeria adierazteko konparazioa. "Urlixa beti izan da galbaia baiño alperragua".

GALBAIAGAZ BE URA, BARRITTAN.- Gauzak edo tresnak, berriak direnean balio dutela adierazteko. "Barrittan, galbaiagaz be ura".

GALBAIAN PASATZEKO PREMIÑA IZAN.- Norbaitek joera txarrak edo okerrak kentzeko premia izan, ildoan sartzeko premia izan. "Orrek be bajakak ba galbaian pasatzeko premiña".

GALDUAZ IKASI.- Galtzeak ematen duen esperientzia jaso, erakutsia norberegianatu. "Galduaz ikasten da mundu onetan, askotan narrutik pagauta".

GANTZAK ALKAR JO.- Bapateko heriotza adierazteko. Loditasunarekin zerikusia ei du. "Gantzak alkar jota ill ei da bart bere oian."

GARAGARRAK IRABAZTEN.- Zamariak eta, lurrean zilipurdika ibiltzen direnean. "Plaza ostian astua garagarrak irabazten ikusi dogu".

GARRAGARRAK EIÑ.- Zamariak eta, lurrean zilipurdika ibiltzen direnean. "Astuari garragarrak eittia etorri jakon burura plaza erdi erdixan."

GASTAIÑA LAKATZA BAÑO LATZAGUA IZAN.- Gauza bat oso latza izan. Pertsonekin ere erabiltzen da, txarra, zitala esateko. "Gure uezaba gastaña lakatza baiño latzagaua zan".

GASTAIÑA LOKOTZA LEZKOTXE ZITTALA IZAN.- Oso zitala izan. "Gastaña-lokotza lezkotxe ikutu ezindako zittal bat eĩnda dago aspaldi onetan gure uezaba."

GAU ITXUA ELDU.- Gautu, ilundu. "Gau itxua eldu baiño len Mañari aurrekaldian agertu zan Peru."

GAUR ANIMEN, BIXAR KORPUTZEN.- Domusantu egunean egiten ziren larregizko jan-edanen biharamuneko ajea adierazteko esaera. "Gaur Animen dok, baiña bixar korputzen izango dozue".

GAUZA IZAN.- Zerbaitetarako gai izan, adorea euki. Normalean ezezka erabiltzen da. "Sekula ez naiz izan odola ikusteko gauza".

GAUZAK BERE SASOIAN.- Gaztelerazko 'cada cosa a su tiempo'. "Bai gazte, ezkondu! Gauzak bere sasoian!"

GAUZAK IXILLIK EUKI.- Gaztelerazko 'guardar un secreto.' "Errietan gaitza da, gauzak ixillik eukitzea."

GIBELA(K) EUKI.- Oso patxada handikoa izan. Normalean pluralean erabiltzen da. "Orrek daukan gibela! Andria urkatzen lanian eta bedori tabernan."

GIRO EZ IZAN.- Nonbaiten egoera txarra, deserosoa dagoela adierazteko erabiltzen da, ia beti ezezko forman esaten da. "Arrezkero ez zan giro izango arekingo artu-emonetan."

GLOK EIÑ.- Jaten betekada egin. "Ainbeste jateko aurrian ditturala, ekin baiño len glok eĩñ dot."

GOGOR / ESTU ARTU.- Norbaiti gogor egin, tratu txarra eman. "Gogor artu dabe gurasuak, eĩñ dittuan oker guztiak atara eraitzeko."

GOIZEKO MAIKO LEGIAK BETE.- Gosari legea egin, gosaldu.

"Urrengo goizian, goizeko maiko legiak bete ondoren, arda botia gizen-gizen ipinita aldaz gora abixau zan."

GOIZETIK GABERA.- Bapatean, azkar. "Goizetik gabera aberastu zan." Ordena gazteleraren kontrakoa da. 'De la noche a la mañana'.

GORANTZIAK ASKO, MERKIAK DIRA TA.- Eskuminak ematea askotan formulismo edo kunplimendu hutsa baino ez dela adierazten du esaldiak. "Eldu zaittianian errira, gorantziak asko deneri, merkiak dira ta."

GORBEIXAN ITXURAKO IPUR-MAMIÑAK.- Norbaitek ipurdi handia duela esateko konparazioa. "Bata zan ezpala baiño argalagua, bestiak, barriz, Gorbeian itxurako ipur-mamiñak eukazan".

GORRIXAK IKUSI.- Egoera larrian egon. " A zan asmu ederra gogortzen zan artian, gorrixak ikusi genduzen ango biargiñ guztiok."

GOSIAK EREGITA EGON.- Oso gose izan. " Gosiak eregita gelditu giñan, Munittibarrera eldu baño len."

GOSIAK ILL BIARRIAN EGON.- Oso gose izan. " Gosiak ill biarrian eldu giñan ostatura."

IBAIA BEIAN ETORRI.- Ibaiak ur gutxi duenean esaten da. "Ibaia beian etorrenian be, ixa beteko urak izaten ziran."

IBILLGONIA JANTZI / ATARA.- Ibilgona ateratzen duen emakumea kalean ibiltzeko ohitura edo joera duena izaten da. "Ibillgonia jantzi ezker, etxerako ordurik ez".

IDI-ANKA BAT PERRA TA GUZTI JAN.- Goseztoari buruz esateko.

"Orrek idi-anka bat perra ta guzti jango leuke".

IJI-AJA / IJI TA AJA IBILLI.- Parrandan, jai giroan ibili. "Goizabarra izan arren antxe ebizen itturri onduan iji ta aja".

IKARA EIÑ.- Mugitu, normalean ezezko forman erabili ohi da. Batzutan alpertsuan egon ere esan nahi du. "Bonben zaratiakin ormiak ikara eiñ dau". "Kerizpian ikararik eiñ barik egongo dok ori egun guztian".

IKARA ERAIÑ.- Mugarazi. "Lau lagunen artian sakatu arren, ez zetsen ikara eraiñ". "Kerizpian jarritta daganari ikara eraitterik ez dago".

IKUBILLA BAIÑO KIPULA BURU AUNDIXAGUA.- Handitasuna adierazteko konparazioa. "Plazan ikubilla baiño kipula buru aundixaguak ikusi jittunat".

IKUSIXAN BISTAN / BEIAN.- Dirudienez, antza denez. " Ikusixan bistan, arek esan ebana guzurra."

ILLETIA ERABILLI.- Norbait beti arrenkuratsu, hileta jotzen dabilela esateko. "Biar kontua aittatu ezker ik erabilliko dok illetia ".

ILLETIA JO.- Kexatu. "Iletia josten bizi zan zergaittik barik, esker txarrekoa zalako Jaungoikuan aurrian."

INFRAÑUKO PATXI BERA BAIÑO GORRIUA IZAN.- Norbait oso ezkertiarra (gorria) dela adierazteko konparazioa. "Onak eibartarrok infrañuko Patxi bera baiño gorriauak dirala pentsatzen juat."

INTXAUR MOTXAILLA KASTIA.- Oskol gogorreko intxaurrari esaten zaio. " Bota-kontrarako intxaur motxaila kastak izaten ziran, eta onenak , Txarako sakonekuak."

IÑOIZ IKUSI AL DOZU / DANTZETAN ARKAKOTZU,/ IMUTXA GITTARRA JOTEN,/ ZORRIXA BARREZ ITXOTZEN...- Kantu baten zatia.

IÑOIZKO DENBORAN.- Egunen batean, baldintza zentzuarekin. " Iñoizko denboran, ni biarrian baziñaz..."

IÑON BEGIXAN LASTUA IKUSI ETA ABIA EZ NORBERANIAN / IÑON BIZKARREKO LASTUA IKUSI ETA NORBERANIK EZ/ IÑONIAN LASTUA BAI IKUSI, BAIÑA EZ ABIA NORBERANIAN.- Errefrau ezagunaren hiru aldaera.

IÑON PEKORA IBILLI.- Besteen bizkarretik bizi. " Bere bizi guztian, iñon pekora ibilli zan, beste zintzo asko baiño obetuago."

IÑON PLANTAK EIÑ.- Norbaiten imitazioa egin. "Kaitano eta Boni Txanboliñ, iñon plantak eitten, gizon barregarriak."

IÑOR IZAN.- Zeozertarako nortasuna edo adorea izan. " Iñor balitz, ointxe dauka aukeria bere burua aurrera ateratzeko."

IÑUNDIK IÑORA.- Iñola ere ez. " Iñondik iñora izan ezin laikian gauzia ez batera ta ez bestera."

IÑUZENTE ERAIÑ.- Norbaiti ziria sartu Inuzente Egunean. " Iñuzente eraiñ eta bialdu dot duako ardaulara."

IPURDIKO EDERRA ARTU.- Galdu, kolpe haundia jaso. "Lege arekin, ipurdiko ederra artu eban armerixiak."

IRAKIÑ ERAIÑ.- Norbait haserrerazi, bere senetik atera. (gazteleraz, 'sacar de quicio'). "Irakiñ eraiñ zetsan ainbeste zorakerixagaz."

IRRINTZIXA JO.- Irrintzi egin. "Irrintzi luze bat joixozue an doiazan neska-mutilleri."

IRUTXUR JOKATU.- Iruzur egin, traizio egin. "Lenengo egunetik, irutxur jokatu eben urdiñak."

ITXOTZEKUAK ERABILLI.- Barrez lehertu. "Itxotzekuak darabixez alboko tabernan, iru edo lau erantzallek."

ITXURIA DAN LETZ.- Antza denez, itxura denez, dirudienez. "Itxuria dan letz, ez da ondiokan ill."

ITXURIA EMON.- Zerbait egiten jarri eta, nahiz behar den besteko ondo egin ez, borondate onez amaitu. Itxuratu, forma eman. "Ez dau guztiz ondo atara, baiña itxuria emon detsa". "Itxuria emon detsa etxiari, andra-geixa datorrenerako".

ITXURIARI BEGIRATZEKUA EZ IZAN / ITXURIAREN JABE EZ IZAN .- Norbaitek azaletik edo kanpotik ematen duena ez dela adierazteko. "Diru eske nigana? Gero, ni ez naiz itxuriari begiratzekua!"

IXILLEKUAK ERABILLI.- Isilmandatuetan jardun. "Bixen artian, ixillekuak darabixez."

IXILLEKUETAN ESAN.- Belarrira esan. "Alakoren batian, deitzen detsa kanpoko lagunari, ixillekuetan."

IZATEKUA IZAN.- Norbaitek egindakoa goraiatzeko edo gaitzesteko erabiltzen da. "Hi haiz hi, izatekua!"

IZTARRIXA ZERRAU.- Eztarria itxi, afonia izan. "Ainbeste orruagaz, istarrixaz zerrau jata."

IZURRA HARTU.- Izurra ( frunce, dobladillo) josi. Jostunen hizketan. "Izur bat artixozu barren guztian, apur bat laburtzeko luzeegi dozu ba gona ori."

JAI EGON.- Egoera bat irtenbiderik gabekoa dela, edo norbaitekin alperrik dela adierazteko. "Errazoa daukak: onekin bakarrik jai dagok."

JAI ERABILLI.- Lanik egiten ez den eguna aipatzeko erabili ohi da. "Aste guztian jai darabill."

JAI TA JORNALA.- Langileen burruken hastapenetan eibartar batek beharginen helburu nagusitzat jo zuena. Lanik egin gabe soldata jasotzea, alegia. "Aurrera, jai ta jorna izan deigun arte!"

JAIOTZATIK EKARRI.- Zerbait (gaisotasunen bat edo) jaiotzetik izan. "Jaiotzatik dakar errena."

JAKIÑIAN IPIÑI.- Abisatu, aditzen eman. "Partidua ordu erdi lenago asiko dala jakiñian ipintzia aztu eñ jata".

JAMONIK EIÑ EZ.- Kasurik ez egin. "Ikusi eta jamonik ez desta eñ."

JARRAIXAN ERABILLI.- Norbait atzetik segika izan. "Gaztedixa guztia bere jarraixan darabill."

JARRAIXAN IBILLI.- Norbaiten edo zerbaiten atzetik ibili. "Bere bizi guztian, aberastasunen jarraixan ibilli zan alperrik."

JITXIA ARTU.- Soinekuetan eta, alde bata luzeagoa denean esaten da. "Soñekuak jitxia artu detsu albo batera."

JO BATERA TA JO BESTERA / JO ONA TA JO ARA.- Alde batetik bestera ibili. "Gure gizon gizajua or ibilli don gau guztian, jo ona ta jo ara: medikuok, abadiok eta gaiñerakuok aztartzen."

JO TA JO JARDUN.- Zerbaitetan etengabe jardun. " Erlojuak ixildu barik, kanpaiak jo ta jo diardu."

JO TA KEIA.- Jo ta ke. "Jo ta keia diardue langilliak Sanjuanetarako etxia amaittu gurarik".

JO TA SU.- Jo ta ke. "Urte guztian jardun genduan jo ta su alper alperrik".

JOB BAIÑO ERUAN AUNDIXAGOKUA IZAN.- Pazientzia, egonarri handikoa izan. "Zuen aitta, Job baño eruan aundixagokua".

JOKUA EUKI.- Jokalarien arteko esaldia. Jokoan eta kirolean irabazteko baliabideak izan. Kirolean jokaldi onak egiteko gaitasuna; karta-jokoan karta onak euki. "Pelotari orrek joko ederra dauka". "-Euk urteik, ez juat ba nik jokorik".

JOKUAN EIÑ.- Kartetan egin, dirua jokatzuz. "Jokuan eitten eben Ondamendin goizaldera arte."

JOTEN DABENAK JOTEN DABELA.- Edozer gertatzen dela ere. "Joten dabena joten dabela, ni banoia amendik".

JUANA JUAN.- Joandakoa benetan joan dela adierazteko. "Juana jua, keia".

JUEZERA JOKATU.- Auzitara jo. "Eziñ alkar aittutako anaiak ziran eta juezera jokatu eben bixen zoritxarrerako."

KABIDU EZIÑIK IBILLI.- Oso harrotuta ibili. "Loterixan lenengo premixua atara dabenetik kabidu eziñik dabil".

KAKUAK ATARA.- Zerbaiti daukan baino problema edo eragozpen gehiago atara. "Orrek edozeiñ biarrari kakuak ataritzen baiño ez daki".

KALE EGIN.- Huts egin. "Dirutara joan da andria etxekuetara, baiña kale eiñ dau."

KALE-GORRIXAN LAGA.- Kalera bota. "Kale-gorrixan gañian laga eban lamai barik."

KALE-TXAKUR IBILLI.- Txorigalduaren moduan ibili. "Kale-txakur ebillen, iñun ostaturik emon gura ez zetsela."

KALERIK KALEKO ZEZENA.- Sokamuturretako zezena. "Gure denboran, San Blas jai erdixa izaten zan kalerik kaleko zezenakin."

KANDELIA JASO.- Baserritarren elkarteetako presidenteak kargua beste bati ematen zionean honek kandela jasotzen zuen. Hortik esanahia zabaldu egin da gaztelerazko 'darse por aludido' adierazteko. "Kofradixakua danak kandelía jasoko dau."

KARRASKADIA JO.- Atzera egin lehia batean. "Arek be, alperrik goittik ibilli, karraskadia jo dau azkena baiño len."

KASKET ALDIXA EMON.- Zoroaldia izan. "Kasket aldixa emon, eta lanerako tornua jaurti eban ibaira."

KATARROA SOLDU.- Katarroa bigundu, sendatzeko bidean egon. "Bero berotan egotia biar dozu, katarroa soldutzeko."

KATIGU GERATU / IZAN.- Ezkutuka edo begitxuka bezalako ume-jolasetan besteak harrapatu behar dituen katigu geratzen da. "Ikusi zaittut, oiñ zu katigu".

KATIGU LAGA.- Zigortu. "Bazkaittara barik, katigu laga dau maisuak eskolan zure semia."

KAUSIK PEZ.- Jaramonik ere ez. "Kausik pez zetsan eiñ."

KAUZIÑORIK EIÑ EZ.- Jaramonik ez egin. "Ez desta kauziñorik eiñ".

KEDARRIA BAIÑO BALTZAGUA.- Oso beltza, konparazio bidez esanda.



"Eta danen aurrian urten neban, begi bata kedarrria baiño baltzago ta arpegixan alde batetik besterañoko zanbruaz".

KEDARRIK PE EMON EZ.- Oso zuhurra edo zekena denari esaten zaio. Gaztelerazko no dar ni la hora, no dar ni los buenos días'. "Kedarrria be ez leuke emongo siku arek, interesik gabe."

KEIANA EIÑ.- Hanka egin, ospa egin. "Orrek be azkenian keiana ein jon".

KEIXARA/ KEIXAPERA JUAN.- Gerezi arbolapean jarri, txoriak gereziak jatera doazenean tiroz akabatzeko. "Gaur gabetik jua dira keixara, urtian beiñeko itzari amorratu batzuk."

KEIXIA LAKOTXE ESPANAK EUKI.- Ezpainen gorritasuna adierazteko konparazioa. "Keixia lakotxe espanak eukazen, ezertariko pintturarik biar gabe."

KERIZA EIÑ.- Besteei nor bereganako errespetua sortarazi. "Gazte agertu arren, kerizia eitten zetsan nausixari, ikusten ebalako zer izango zan denbora asko baiño len."

KINKIÑA JO.- Zerbaiti amaiera eman. Dirua xahutu. "Milla erriali kinkiña jo detsa, gaurko ferixara jua biarrakin."

KIÑU BATEN.- Berehala, bapatean. "Bere partia jaso ebanian, kiñu baten utseratu zittuan bere ondasunok."

KIRRIKARRA JAN.- Haginekin hotsa ateraz jan. "Kirrikarra ez dira jan biar karameluak; agiñak austen dira bestela."

KISKETE JO.- Kriskitin egin, hatzamar puntekin hotsa atera. "Jesusa jaio da ta jo deigun kiskete!"

KITTO EIÑ.- Kitatu. "Ill-kanpai orrekin ordaindu dittu zittuan zorrak, eta or, kitto eiñ dau danekin."

KONTU OBIA EUKI.- Gauza bat, nahiz eta beste bat baino garestiagoa izan, egiten duen zerbitzuagatik azkenean hobeto edo merkeagoa irteten denean. "Kontu obia dauka sarri, geixago pagatzen dan gauziak."

KONTUAK EIÑ.- Umeei eta, gozo hitzegin. Gazteleraz, 'hacer mimos.' "Etxera etortzen danian, lenengo zeregiña, umiari kontuak eiñ."

KOPLA BARIK IBILLI/ JARDUN.- Aitzakiatan, zeharka, edo bueltak emanez ibili gabe, gauza bat egin."Ainbeste koplak barik, nere denboran, amaika zaldi jaso izan jittuat."

KOPLETAN IBILLI.- Txantxetan ibili, benetan hartu gabe. "Benetan artizu esaten detsurana, ez nabill ba kopletan."

KOSKABILLUAK ZIMURTU.- Egundoko beldurra edo izua izan. "Koskara urten ebanian, kanpantorriari kanpokaldetik buelta bat emoteko, koskabilluak zimurto jazozen batera."

KOSKARA EROSI.- Erosten den unean barik, geroago ordaindu. Esaldi hau, sasoi batean saltzaileak, erosleak zerbait ordaindu gabe eraman zuela gogoratzeko, koska batean egiten zuen marratik dator. "Koskakua esaten jakon taberna ari, ardua eraten zalako an koskara."

KOSTIA KOSTA.- Kosta ahala kosta. "Kostia kosta Donostiako Andra-Marixetara juan gura eban."

KUKULUMIXO EGON.- Kukubilko, kokoriko, egon edo jarri. "Orduetan egon da kukulumixo."

KUKURRUKUA JO.- Desafio egin. "Batak kukurrukua jo dau; bestiak karraskadia."

KULAPE EMON.- Amodio kontuetan, ezezkoa eman. Dantzan ezetz esatea ere bada. Gazteleraz, 'dar calabazas.' "Alakoren baten ausartu zan errekaua eittera begixa jota eukan neskatillari, eta kulape emon zetsan."

KURUTZIAK EIÑ.- Aitaren egin. " Esan netsanian zelan ziren gauzak kurutzia eitten geldittu zan."

LAGIA LAGA.- Zerbait erabat utzi. " Lagia laga, geixago ez eban erre, naiz da takorrixa merkatu."

LAMAI BALIO EZ.- Gauza batek ezer gutxi balio duela adierazteko. " Lamai balio ez daben gauzian gora-bera, auzixetan bizi dira."

LAMAI EUKI EZ.- Dirurik ez izan. Gazteleraz, 'no tener un chavo'. " Ainbeste zaratakin, ez daka lamai indianu orrek."

LAMAIKUARI BOTA.- Ume jolas bat. "Lamaikuari bota bost intxaurrekin!"

LAMAIÑ PUPUA ETA LAUZIN TRAPUA.- Errefraua. Arrazoirik gabe hileta jotzen dabilenari esaten zaio.

LANIAN URKATU.- Lan asko egin. "Orrek daukan gibela! Andria urkatzen lanian eta bedori tabernan."

LAPIAK BAIÑO GOGORRAGO ORATU.- Oso gogor heldu. "Lapiak baño gogorrago oratuta dauka bere jarlekua."

LAPIKUAK SARTAIÑARI, IPURBALTZ.- Zozoak beleari, ipurbeltz errefrau ezagunaren aldaera.

LARRUTIK ATARA.- Ondo kostata atera. "Larrutik atara biarko detsazu zorra."

LASTO UTSA.- Funtsik gabekoa. "Fray Gerundion gaurko jarduna, lasto utsa."

LEGIA EIÑ.-Eguneroko edo ohizko betebeharrak (jatorduak egin, mezetara joan...) egin direla adierazteko. "Gaurkuagaittik, legia eiñ dogu beintzat."

LEGIA IZAN, EUKI.- Norbait edo zerbait begiko izan. "Maixuak legia zetsan ikaslari aritxi."

LELO USAIÑA ERABILLI.- Lelokerietan dabilenari esaten zaio. "Lelo usaiña badarabizu beintzat!"

LENGO SAMATIK BURUA.- Eritziari tinko eusten dionari, erraz aldatzen ez duenari buruz esaten da. "Alperrik ogei urte igaro, lengo samatik arek burua."

LENIAN EGON.- Lehengoari eutsi. "Alperrik esango dabe nai dana, ni beti lenian nago."

LEPUA BEROTU.- Norbait jipoitu, jo. "Bere biziko onduen lepua berotu zetsen."

LEPUA JASO.- Kasurik egin ez, jaramonik egin ez, paso egin. Zerbaitek ez digula ardura adierazteko. "Artzekoduneri, lepua jaso eta kitto."

LEPUAN ARTU.- Norbait edo zerbait bizkar gainean hartu. "Ume txikiña lepuan artuta eldu zan Arratera".

LO ERRIAK EGON.- Loguraren eraginez, umeek izaten duten egonezina edo nekea adierazteko. Lo gutxi edo txarto egin eta gero esnatzean izaten den egoera. "Ume ori, lo erriak dago eta eruaizu ogera." "Gau guztian agiñeko miñakin egon nok eta lo erriak esnatu nok".

LO-JARUA EIÑ.- Lo aldi laburra egin, baina ez ohean. "Bazkalostian lo-jaru txiki bat eiñ dot".

LORAN EGON.- Landareak loratzen direnean. Gizakiak, sasoi betean egon. "Sagarra loran; keixia loran". "Ointxe dago neskatilla aura loran".

LOTSIA, GITXIEN DEIXANAK, GEIXEN ETA ANDIÑAK EMOTEN DITTUANA BESTIERI.- Kaitano Kareagak lotsari buruz egin zuen definizioa.

LOTSARIXA ARTU.- Lotsaren lotsaz gorritu. "Arlote aren itxuriakin, lotsarixa artu neban."

LUAK EIÑ.- Lozorroan egon. "Luak eiñda gero esnatu nintzan zarata bategaz."

LURRA ARTU.- Landareak sustraitu. "Joan zan astian sartu genduzen landarak lurra artu dabe."

LURRA EMON.- Lurperatu. "Atzo emon detse lurra bere jaixo errrixan."

LURRA JO.- Jausi. Hondatu. "Gure Jaunak, kurutzia lepuan ebala iru bidar jo eban lurra." "Ainbeste urtian arro izandako etxia, gaur lurra jota."

MAIKO EIÑ.- Mahaian partaideetako izan. "Umiok eta maiko egiten ebenak otzez dardaraka pasau eben arratsalde guztia."

MAIÑAK EIÑ.- Negar egin. Normalean umei buruz esaten da. "Zergaittik barik mañak eitten dittuzu beti."

MAITTETSU IBILLI.- Maiteminduta egon. "A neskatilla ikusi neban ordutik maittetsu nenbillen."

MAIXAN JARRI BAIÑO EZ.- Eibartar haren bizitzeko filosofiaren bigarren artikulua. ( Lehenengoa, JAI TA JORNALA zen). "Jai ta jornala eta maixan jarri baño ez; or emanzipaziñua."

MAKILLARI AGERTU, IBILLI.- Harropuzkerietan jardun. Erromerietan musikoek indartsuenari makila bat ematen zioten ordena ipintzeko. "Erromerixetan makillari agertzen zan"

MAMIÑAK ERABILLI.- Oso lodia denari esaten zaio. "Orrek dira darabizuzen mamiñak!"

MARA MARA NEGAR EIÑ.- Malko ugari isuriz negar egin. "Gizato aundixa izan arren, mara mara negarrez egon zen."

MARTXANDO EIÑ.- Eskolan piper egin. "Gaur eguraldi ona dago eta martxando eingo dot kunbura juateko".

ME ARTU.- Gutxiagotzat hartu. Burruka giroko esaldia. "Me artu jestak". "Me artu najok" beharko luke, baina hala esaten da.

MERKEALDIXA ERABILLI.- Gairen bat merke dagoela esateko. "Merkealdixa darabill arraiñak, asko ataratzen dabelako aspaldi."

MESEDE EIÑEN PAGUA, ATE OSTIAN PALUA /ONDO EIÑAN PAGUA, ATE OSTIAN PALUA.- Hobe beharrean egiten diren gauzak ez direla aintzat hartzen esan nahi duen errefraua.

MEZATARAKO BOTA.- Hileta-elizkizunetan hildakoaren aldeko mezak ateratzeko dirua eman. "Mezatarako bota dot bestiak beste."

MIÑA GELDIRIK EUKITZEKO EZ IZAN.- Oso berritsuak direnei buruz esan ohi da. "Andria ez zan mutua; baiña gizonak pe mingaiña ez eban geldirik eukitzeko."

MIRA EIÑ.- Harritu. "Fray Gerundiok ordubeteko sermoia botatzia ez da mira eittekoa."

MIRA ERITXI.- Miretsi. Harritu. "Gure ama, bere begi argixegaz, danari mira eritxitta bizi zan." "Ez eixozu mira eritxi esaten detsuanari."

MOLDIA EKARRI.- Zeozertarako joera euki, gai izan. "Zure semiak badakar moldia artu daben ofiziorako."

MORROILLOPIAN SARTU.- Giltzapean sartu, preso sartu. "Ori gitxi balitz-edo, morrollopien sartu, gixajua".

MURGILLIAN EIÑ.- Igerian ur azpian egin. "Kunbuan murgillian eitten genduan".

MUSTUR-ALDIXA ERABILLI.- Bi lagunaren arteko haserrealdia. "Alperrik ezkonbarri, mustur-aldixa darabixe gaur."

MUSTURRA SARTU.- Inoren arazoetan sartu. "Batetik ez ba zan bestetik, musturra sartu gura eban."

MUSTURRAK EUKI/ MUSTURREKIN IBILLI.- Haserre egon. "Aitzen emon desta andriak musturrak daukazela kanpotik naizelako, eta piparrak daroiaraz, onekin obiak izaten dirala ta."

NAI, TABUYON TXAKURRA.- Norbaitek nahi duena ezinezkoa dela adierazteko. (Nai hori txakurraren izena ei zen). "-Parisera juan nai juat. -Nai bai, Tabuyon txakurra". "Zuk diñozuna, nai, Tabuyon txakurra."

NAGIXAK BOTA.- Nagiak atera. Lo asko egin ondoren, edo luzaroan jarrita geldi egon ondoren, guztiz esnatzeko gorputzari egiten zaizkion tirakadak besoak-eta luzatuz. Gaztelerazko 'estirarse'. "Danen aurrian nagixak botatzia ez ei da edukaziño onekua".

NAIGABIA EMON.- Doluminak eman. "Petrari naigabia emotera juan non eta an billau jonat Andre Madalen kantatzen."

NAIKUA TA LARREGI.- Asko. "Naikua ta larregi zuk eiñ dozuna."

NARRAZ IBILLI.- Makal, gogo gabe ibili. "Asmo aundixetan, baña narraz dabill zorreri erantzun ezinda."

NARRU TA AZURRETAN / AZAL(A) TA AZURRETAN GELDITU.- Hezur hutsetan, erabat argalduta geratu. "Narru ta azurretan geldittu da gizajua, iru illabeteko gaixuakin." "Itxura bako gizon argal bat sartu zan; azala ta azurra bakarrik agiri jakozan".

NARRUA JO.- Danborra jo. Larrutan egin. "Kalerik kale, narrua joten, Alkate jaunan pregoia irakorteko." "Erregiñari gaur narrua birritan jo jetsat, lenengo aurretik ta gero atzetik" ( erreginaren harrera ekitaldi batean parte hartu zuen atabalari batek esandakoa).

NEGAR ERREZA EUKI.- Edozergatik negar egin. "Negarra erreza dabenak dabe au, biotzan bittartez, Jaungoikuagandik."

NEKE TA ABAR.- Ahal den moduan, kostata. "Neke ta abar, umiak azi dittu beintzat.":

NERIAK / ZURIAK... EIÑ.- Hil. " Agur, neriak eiñ dau esanaz, gastau zan."

NIK IKUSTEN DORANAN LETRIA...- Ikusi-makusi jolasaren hasiera. "-Nik ikusten doranan letria, U!! -Zer dok? -Ze izango dok, ba! Uz elektrikia!!".

NOBEDADIA EIÑ.- Konortea galdu. Zorabiatu. "Nobedadia eiñ jako elixan."

NOR BERE ONIAN EZ EGON.- Lasai ez egon. "Ez nenguan nere onian, berriz osorik ikusi arte bialdu genduan gizona."

NORA EUZKIXA, ARA ZAPIXA.- Errefrau ezagunaren aldakia.

NORA-EZIAN GELDITU.- Zer egin ezean gelditu. "Aizkorriko basuetan otsuak eta basurdak urritu ziranian noraezian gelditu ziran gure eiztariak."

NORBERAN KONTURA JARRI.- Inoren menpeko lana utzi eta nagusia nor bera den lanean hasi. "Ofiziua ikasi ondo eta gero norberan kontura jarri."

NORBERE BATEN EGON.- Lasai egon. "Nere baten banenguan, eta batera batera jausi naiz."

NORBERE BURUA ERAKUTSI.- Nonbaiten azaldu, nor bere burua nabarmendu. "Eusko-langilleak!... Gaur da eguna zuen buruak erakusteko Eibarren!"

NORPERE BURUARI GUTXIETSIRIK.- Akonplejatuta egon, gaztelerazko 'complejo de inferioridad' euki. "Errenka eitten ebala-ta, bere buruari gutxietsirik bizi zan".

NUNDIK NORAKO.- Zer, adierazteko. "Nundik norako diruekin jarabik gure andriak ainbeste dotoretasun?"

OBE / OBETO / ON BIARRIAN / ON BIARREZ.- Inoren mesedetan egiten edo esaten dena. "Obeto biarrian esan netsan eta txarrera artu zestan."

ODOL-OTZIAN.- Inolako sentimendurik gabe norbait hil. "Buruan kabitzen ez dana, odol-otzian orrela eriotzia eittia."

ODOLAK BURUA ARTU.- Derramea eta antzerako buruko gaitz larriei buruz esaten da. "Odolak burua artuta ill da gaur goizian."

OGI GOGORRARI AGIÑ ZORROTZA.- Egoera zailei egokitzen jakin behar dela adierazten duen errefracua.

OIÑ ARTEKUAK APURTU / OIÑ ARTEKO GUZTIAK TAPAU.- Baten batek aparteko gauzaren bat edo disparateren bat esan edo egiten duenean esan ohi da. "Demontre! Euk apurtu dittuk oin artekuak, abendua ill?"

OIÑEZTEN ASI.- Umeak oinez ibiltzen hasten direnenan. "Gure txikiña be oiñezten asi jaku".

OJALIETAN EGON.- Gauza bat hastapenetan egon. "Gure asmuak ojaliaetan dagoz ondiokan."

OJIA JIRURIK.- Esan ohi da, gauza bat beste baten ordeaz erabiltzen denean, antzerakoak direla diruditelako. "Olabek esaten eban moduan, ojia jirurik".

OJO EUKI!.- Arreta eskatzeko esaldia. "Ojo eukixok orri, Anton". (Kontuz horrekin, Anton).

OLAKO SEMIAK MUNDURA EKARTZIA BAIÑO LAU LIBRAKO OGIK EITTIA BE OBE DOK.- Konparazioa, gauza bat aurrera ateratzea zaila edo astuna dela adierazteko.

OLIOA TA BIÑAGRIA EZ IBILLI ALPERRIK NASTATZEN.- Ezinezko gauzak egiten saiatzea alperrikoa dela adierazteko.

ON BILLA, ON BILLA, BONBILLA.- Oena hartu guran, askotan txarrarekin geratu beharra izaten dela adierazten du. "On billa, on billa, bonbilla, esaten dan moduan, eta or, mutill zar geldittu da."

ON EIÑ DEIZULA.- Jaten dagoenari kunplimenduz esaten zaiona. "On eiñ deizuela danori! Bai zeuri be!"

ONUTSA, ONUTSA, KAKUTSA.- Errefraua. Onegia izateak askotan ezer gutxirako balio duela adierazteko.

OIÑEZKORIK NAI EZ ETA ZALDUNIK AGIRI EZ.- Errefraua. Txarragoak baztertuz onena hartu guran jarduteak askotan ezer gabe geratzea dakarrela esan nahi du.

OR BA, OR BA.- Norbaitek pentsatutakoa edo esandakoa berresteko erabiltzen da. "Or ba, or ba! gero onek tabernariok arduari urik ez detsela eiten esango juek!"

ORDIAK EIÑ.- Norbaiten orde zerbait egin. "Juan jatzun mutillan ordiak eiño detsuraz, a kanpotik dan artian."

ORDIAZ EMON.- Zerbait trukean eman. "Ordiaz emongo deuat au ik emoten baestak ori".

ORATUA EGON.- Eguraldia lainotuta egon, hodeiturik egon. "Oriatua dagok eta ezingo gaittuk Kalamuara jua".

OR KONPON, MARI ANTON!.- Norbait guk nahi duguna egin nahi ez duelako etsita gaudenean, azkenean bakarrik laga eta botatzen zaion esaldia. "Or konpon, Mari Anton, nik neuria eiñ jonat eta!"

ORMIAK BESTE ENTZUN EZ.- Norbaitek gorraize handia duela adierazteko konparazioa. "Urkiko gorrak, ormiak beste ez zeban entzutzen".

OR NUNDIK NORA.- Hara non. "Or nundik nora eiñ zan, une baten baiño ezpada be, plaentxiatar bat zeruetako atezain!"

ORRAZTU BAT EMON.- Norbaiti gauzak argi eta garbi esanez ahoa bete haginekin laga. "Orraztu eder bat emon detsazu guzurti anpor orri."

OSKOLETIK URTEN BAIÑO LEN KUKURRUKU.- Oraindik koskortu gabe egon arren heldua izan nahi duenari esaten zaio. "Oskoletik urten baiño len kukurrukua, eta zapaldu eban kiñu baten."

OSPA EIÑ.- Inor konturatu gabe alde egin. "Iñor konturatu baiño len, ospa eiñ eban."

OTSUARI BE EZ OPA.- Gauza bat oso txarra edo beldurgarria dela adierazteko. "Otsuari be opa ez jakon gaua izan dot bart."

OTXIÑAK EIÑ.- Aberastu. "Zure ama, bere denda zoztorrakin, otxiñak eitten dago."

OTZAK BALTZITUTA EGON.- Erabat hoztuta egon. Hotzaren hotzez belztuta egon. "Egun guztian mangutsik ibillitta, otzak baltzittuta eldu zan etxera".

PANPANA JOTEN IBILLI.- Harropuzkerietan ibili. "Beiñ alemaniarra ba ei ebillen panpana joten Plaentzian ez eguala bera lango murgilaririk esanaz."

PARABOLETAN IBILLI, JARDUN.- Eztabaidan, barriketan, ipuinetan jardun, ateraldika, zein baino zein zirtolariago. "Orrek bixok, paraboletan emoten dabe denboria."

PARTIAN IZAN.- Zereginen batean parte hartu, esku hartu, tarteko izan. "Droga zatar artan, partian zan".

PASARIA EMON, ARTU.- Jipoitu. Batzutan lehiaren batean edo, erraz irabazi ere esan nahi du. "Gaur Azkoitiarreri pasara gogorra emon detse Elgoibarko pelotalekuan."

PEKIÑERA BIALDU.- Pikutara bidali. "Ixilduari eta juari Pekiñera!!".

PEKIÑERA JUAN.- Gauza bat denboraren edo erabileraren poderioz, edo istripuz, alperrik galtzen denean esaten da. "Pekiñera juan jataz oiñetako onek."

PERRA-OTSA IZAN.- Arineketan irten, ospa egin. "Mutillak! Emen dittuk Guardia zibillak! A izan zan perra-otsa, al ebanak al eban lekutik."

PIJO JARDUN.- Zeozertan buru belarri jardun. "Pijo diarduzu lanian, alperrik euzki galdia."

PILLO, PILLO, SANGARRA PILLO.- Mendian edo, norbaitek zeozer aparteko aurkitzean esaten zituen berbak. Umeek erabiltzen zituzten. "Pillo, pilloa, sangarra pillo, masusta onek!"

PIPARRA BAIÑO ZITTALAUUA IZAN.- Konparazioa. Oso zitala, txarra izan. "Piparra baiño zittalauua zan maixua egun artan."

PIPARRA EGON.- Norbait haserre egon. Erderazko 'displicente'. "Piparra dago gaur gure uezaba."

PIPIA JOTEN BIZI.- Kolpe handirik jo gabe, lasai bizi. "Gu pipia joten bizi gaittuk. Uezabak guri berak nai daben beste pagatzen jeskuk, ta, gero guk pe, geuk nai dogun beste biar eiñ."

PLANTAK EIÑ.- Norbaiten imitazioa egin. Zerbaitena egin. "Zoro plantak eitten diardu, soldautzara ez juateko."

PLE-PLE EIÑ.- Parrandan, zurrutean, ibili. "Ple-ple eiñ Katillunian, eta badoiaz etxerutz kantu soiñuan."

POSTURIA EIÑ.- Apustua egin. "Posturia eingo deuat kaja bat galleta ezetz jan".

POT EIÑ.- Hil, zendu. Ukat egin, gaztelerazko 'sucumbir'. "Munduan jabe zalakuan, eta or, pot eiñ dau." "Pot einda, baiña azkenian eldu giñan Karakatera".

POTIA POTE, NAIZ PIPAR DA NAIZ TOMATE.- Oparitutakoari ez zaiola muzin egin behar esan nahi duen errefraua. Gaztelerazko kidea 'a caballo regalado no le mires el diente' izan daiteke. "Potia pote, naiz pipar da naiz tomate, eta laga nai ez badozu."

PRAKETAN LARRI IBILLI.- Helburu bat lortzeko ahalegin handia egin edo espabilatu egin behar dela esan nahi du. "Bikotx aunetxi irabazteko praketan larri ibilli bear da."



PREGOIA JO.- Isilik gorde beharrekoak mundu guztiari esan. "Egixa izanda be, ez daukazu pregoia jo beharrik."

SAGAR ERRIA BAIÑO ZIMURRAGUA.- Oso zimurra konparazio bidez esanda. "Sagar erria baño zimurrago arpegixa..."

SAGURIK PE EZ GERATU.- Nonbaiten inortxo ere geratzen ez dela adierazteko. "Eguraldia lagun badogu sagurik pe ez da geratuko egun orretan, emen beko zokoan."

SALAMANKA TRANKA / ATZO ERREJIDORE / ETA GAUR KAKA.- Bere kargua zela eta, harrosko samar zebilen bati kantatzen zioten bertsoa.

SAMIA POSTURIA EIÑ.- Norbait zerbaiti buruz oso seguru dagoenean esaten da. "Samia posturia eingo deuat Urko Kalamua baño aundixagua dala".

SAN IÑAZIOKO OBRIA BAIÑO LUZIAGUA.- Gauzaren batek uste baino gehiago irauten duela adierazteko konparazioa. "San Iñazioko obria baño luziagua izan da zure arriua prestatzia."

SAN JOSEK ZEPILLAUTAKO BULARRAK EUKI.- Norbait tititsua ez dela adierazteko konparazioa. "Bata zan tititsua; bestia san Josek zepillautako bularrakin".

SAN JUAN, SAN JUAN! NEKEZ ETORRI TA BIZKOR JUAN.- Gauza onak (kasu honetan herriko jaiak) gutxitan gertatzen direla eta gutxi irauten dutela adierazten duen errefraua.

SAPUA IZAN.- Norbaiti gorroto izan. "Ondo gordeta, baiña sapua detsa bere bizi guztian".

SAPUAN BIZKAR GAIÑEKO LIKIÑA BAIÑO IGOIÑGARRIXAGUA.- Norbait edo zerbait oso iguingarria dela adierazteko konparazioa.

SAPUZTU BAT EMON.- Zapuztu, jipoitu, astinaldi bat eman. Jo zapuztetik helduta. "Sapuztu on bat emoixozu drogoso orri, geixago ez deixan eiñ tranparik".

SASIAN ZARRAPARRIA DANIAN ZERBAIT IZATEN DA.- Ehiztari-giroko errefraua. Gaztelerazko 'cuando el río suena, agua lleva'.

SATSA BAIÑO (BE) ALPERRAGUA.- Norbait oso alperra dela adierazteko konparazioa. "Nik ezagutu doran alperrena, satsa baño alperragua".

SERRIA ERABILLI.- Gogo biziz jan. Norbaiti buruz txarto esaka jardun. "Arek erabilli eben serria ondra-janian!" "Jakiñian nago zelako serria erabilli daben nere kontra".

SIKU IBILLI.- Dirurik gabe ibili. "Aspaldi siku nabill, bolatokira agertu eziñik".

SIKU, SIKU, SIKU...- Gabon esketan ezer ematen ez zuten etxeetakoei botatzen zizkieten hitzak.

SINISTIA BE.- Gauza bat sinesten gaitza dela adierazteko erabiltzen den esaldia. "Txanbolin arrittuta geldittu zan, Kaporalak ura dranga-dranga nola eraten eban begira...Sinistia be!"

SINISTIAK PE KONTUAK EUKI.- Gauza bat sinisten zaila dela adierazteko esaldia. "Sinistiak pe kontuak jaukaz, olako partidirik ez dok eñ eure bizi guztian be."

SOMANTIA EMON / HARTU.- Jipoa eman hartu. Zigor fisikoa ez ezik, lehiaketetan eta irabazi edo galdu ere esan nahi du. "Astelenan orrek artu eban somantia ez zan badaezpadakua izan".

SOPAK EIÑ.- Harri lau bat uretara bota eta jauziak eragiteari esaten zaio. "Presagaiñan, sopak eitten jarduntzen genduan eskolako mutillak."

SORGIN-ORRATZIXA BAIÑO LATZAGUA IZAN.- Oso latza, takarra, izan konparazio bidez esanda. "Sorgin-orratzixa baiño latzagua zan a andrakumia".

SORRA?. OLIXUA EIXOK!.- Norbaitek zorrak dituela adierazten duenean, Sorra/Zorra hitz jokua eginez erantzuten zaiona. Gauza bat sorra dagoenean, gurpil bat esaterako, olio egiten zaio.

SUBERATUA ARTU.- Lotsaren eraginez, gorri-gorri jarri. "Guzurra atara detsanian, suberatu ederra artu dau".

SUTONDOAN DOGU / TIRRI ETA TARRA / PUZKARRA DARIOLA / GURE MUTILL ZARRA.-Bertsoa / kantua.

SUAK ARTU.- Norbait oso haserre jarri. "Ori entzutiaz bat, suak artuta ekin zetsan makillaka."

SUAK ETA GARRAK ARTUTA EGON.- Oso haserre egon. "Tabernariak lapurretan eittea nai zetsana konturatzean suak eta garrak artuta asi zan erretolika batian."

SUR MOTZ ORREK AINTZEN DEUK IRI!.- Txato guztiek lotsabako fama omen dutelako lotsagabeei esaten zaiona. "Sur motz orrek aintzen deuk iri, lotsagabiorri, ik darabixan zaratia!"

SUSIA LEZKOTXE FIÑA.- Norbait oso fina dela adierazteko konparazioa.

"Susia lezkotxe fiña dozu a gizona."

TAJUTAN EGON.- Zerbait lortzeko egoera txarrean egon, zentzu ironikoan erabiltzen da. "Tajutan gauaz Euskalerrria salbatzeko" (egoera honekin nekez salbatuko dugula Euskalerrria, alegia).

TAKIAN (DA) POTIAN.- Sarri, hitzetik hortzera. "Takian da potian dauka zegozer makiña orrek."

TALAIXAN IBILLI.- Zelatan ibili. "Gure katua, egun guztian sagu zuluatan talaixan dago."

TARRUA(K) JOTEN.- Fooballaren antzeko jolasa. Baloiaren ordean, txapela erabiltzen zen. "Eskolatik urten da gero tarrua jotzen eitten genduan kalerik kale".

TEILLATUA EMON.- Etxea eraikitzen amaitu. "Iru illabetian, teillatua emon detse etxe barrixari".

TIRO BATEKUA / TIRO BIKUA URTEN.- Erditzean ume bakarra edo bikiak izan. "- Da? - Tiro bikua urten jok".

TIRRIXIA ERABILLI.- Zeozer egiteko asmoa, tentazioa izan. "Iges eitteko tirrixia darabill."

TIRRIXIAKIN EGON.- Zerbait egiteko gogoia izan. "Zortzirak ezkerro etxerako tirrixiakin dago".

TONK EIÑ.- Jaten bete-bete egin. "Bazkari erdixa baiño len, tonk eiñ genduan gosezto aundixak izan arren."

TRAK EIÑ.- Gauzaren bat hautsi. "Eskuturrak trak eiñ desta, eta Arnobatekuagana jua biarra dot."

TRIPA ZORRIXA EIÑ.- Gosetu. "Tripa zorrixa eiñ jata eiñ dogun ibilixagaz."

TRIPAK JATEN EGON.- Haserrea edo kezka bat dela eta, sortzen den egonezinari esaten zaio. "Autu onekin tripak jaten bizi da."

TRONPIA LO LAGA.- Ziba-jokoan trebea denak ziba bueltaka baina leku berean uzten duenean. "Eskolako umiak giñanian tronpiakin ibiltzen giñan ta baita makiñatxo bat bidar lo laga be".

TRUXALAK EIÑ.- Euria bota ahala egin. "Truxalak eiñ dittu eguardirutz, eta danak gaiñian artu dittugu."

TXAKILLETAN EIÑ.- Larrutan egin, larrua jo. "Eskola ostian txakilletan arrapau zittuezan".

TXAKUR ZAUNKARIXA, EZ AGINKALARIXA.- Errefrau ezaguna.

TXAKURRAN SALARA PASIATZERA BIALDU.- Pikutara bidali. "Somau eban zirikatzaile aren autua batu biarra ta bialdu eban txakurran salara pasiatzera."

TXALO GOGORRAK JO.- Norbaiti txalo handiak eskaini, jo. "Bertsolarixei txalo gogorak jo detsez".

TXAMARRA ZARRA NUELA / I PANADERON ALABA / OGI BERO JANGO EUKE / ARDAU ZURI ERANGO ZEUKA / ONDARRUAKO KANALA / EBRUAN BE EZIÑ GARBITTU / ZURE ATORRA MAGALA.- Bertso edo kantu baten zatia.

TXARRIXA ILDAKO ASTIA ETA EZKONDUTAKO URTIA.- Bizitzaren sasoirik onenak adierazten dituen errefrau.

TXIMAK BATU.- Orraztu. " Tximak batu ezik, itxuratik urtenda agertzen da emakumia."

TXIMIÑIXAKO KEDARRIA BE EMON/OPA EZ.- Besteenganako estimazio gutxi daukanak, oso zekena denak egiten duela esaten da. "Orrek tximiñixako kedarrria be ez leuke emongo".

TXINDURRIXAK ARTU.- Gorputz atalen bat inurritu. "Txindurrixak artu desta iztarra eta pausorik eñ ezinda geldittu naiz."

TXINGOR-GAIÑIAN IBILLI.- Osasunez makal samar ibili. Hanka bataren gainean ibili. Jolas baten izena ere bada. "Txingor-gaiñian dabil aspaldi onetan, jateko gogo barik." "Untzagako plaziari buelta osua emon detsa txingor gaiñian".

TXINPARTAK DARIO(LA) IZAN.- Oso haserre jarri. "Ori entzunaz jarri zan txinpartak dario(la) zittuala."

TXIRRIST EIÑ.- Poliki-poliki zurrupatu. Laban egin, irrist egin. "Txokolatia zurrut eitten da; ardañ fiña, txirrist." "Lurra izoztuta euan da txirrist eñ dau".

TXIST BAT BEZ / TXISTIK PEZ.- Ezertxo ere ez esan. Gaztelerazko 'ni pío'. "Esan zittuanian esan biarrekuak, txistik pez bestiak."

TXISTUETAN EIÑ.- Txistuka jardun, txistua jo.. "Lana eñaz, txistutan eitten eban zoragarri."

TXITXIAK BESTE JAN EZ.- Oso gutxi jaten duenari, jangartsuari esaten zaio. "Txitxiak beste jaten ez daben amar arruako gizona."

TXITXI-POTXUETAN / TXUTXU-PUTXUETAN JARDUN.- Txutxu-mutxuka, marmarka jardun. "Ixilleko txitxi-potxuetan dira bixak gaur egun guztian."

TXOLAN EIÑ.- Larrua jo, larrutan egin. "Aren txolan eñ biarrak ez eukan akaburik".

TXORRO, MORRO, PIKO, TAILLO, KE.- Txorro-morro izeneko jolasean bost hatzamarrak izendatzeko erabiltzen diren berbak.

TXOST EIÑ.- Jolasetan eta, pilota edo kanika, zuloan sartu. "Irugarrenian, txost eñ eban."

TXOTXOLO ALDIXA ERABILI.- Betiko ohituretatik kanpoko zeozer egiteko gogo dagoenean. "Txotxolo aldixa darabill, eta bertsuak eittiari emon detsa."

TXURRUTARI EMON / ZURRUTIAN IBILLI.- Edan. "Domekan egun guztian zurrutian dabiz." "Erriko musikalaria tartietan zaliak dira txurrutari emoten; ta iñoiz azken ordurako atal makalak arrapatzen dittuez."

UGALAK UR TEN.- Uhala ateratzerakoan makina gelditu. Zentzu figuratuan, edozein ekintzari ekiterakoan, bapatean ez atzera ez aurrera gelditu. "Sermoia ekin, eta beriala ugalak urten zetsan."

UKALONDOARI MUN EIÑ GURARIK BIZI.- Lortu ezineko helburuak amets dituela bizi denari esan ohi zaio. "Ezkonduezker, ukalondoari mun eñ gurarik bizi da."

UKAT EIÑ.- Ahalegin fisiko gogor baten ondoren etsi. Gaztelerazko 'sucumbir'. "Kurutzastunaz aspizan, iru bidar ukat eñ ei eban gure Jaunak, urkamendiko tokira eldu aurretik."

UMIAK EIÑ.- Gauza bat apurtu eta zati-zati egin. "Iturrira bidian, pitxarrak umiak eiñ dittu."

UR AUNDIKO ARRAIÑA IZAN.- Bere burua besteen gainetik dagoela uste duenari buruz esaten da. "Ur aundiko arraiña zanetik, ez zan aurkitzen bere onian guregaz."

UR AZALA BAIÑO LOKIAGUA IZAN.- Aldakorra, konparazio bidez esanda.

UR BITSETAN BIZI.- Oso pozik, inongo ardura barik bizi. "Eztibitsetan dabill zuek amendik zaran artian."

UR EMON.- Zerbaitetan, norgehiagoetan esaterako, besteengana hurbildu edo bestek baino gehiago izan. "Jaten gutxi emongo zetsen ur Patxiko Garratzari."

URA JUANDA GERO, PRESIA EIÑ.- Aukera izandakoan zerbait egin gabe laga eta gero damutzen denean esaten da.

URAK EUKI.- Norbaiten traza edo antzeko nortasuna izan. "Badittu bai arek bere aittan urak, eta ez gitxi."

URRIK EMON BEZ.- Bai zera, ezta gutxiago ere, adierazteko. Gazteleraz antzina ez dela 'ni urrik emon' erabili izan da Eibarren, 'ni por asomo, ni por el forro' esateko

URRIK PEZ.- Bai zera, ezta gutxiago ere, adierazteko. "Ondu dau goizekuan markia? Urrik pez."

URTE BARRI BARRI/ TXARRI BELARRI / DAUKANAK EZ DAUKANARI / ZARIA BETE MADARI.- Kantu baten zatia.

USAIÑA EIÑ.- Kolonia edo perfumeren bat egin. "Egunero, usaiña eitten dau buruan, kalera aurretik"

USARIXUA EUKI.- Zerbaitetan ohitura izan, ohizkoa izan. "Biarrian asi baiño len pitxarkada ura erateko usarixua euki dau beti".

USTIA EUKI, ERABILLI / USTIAN EGON.- Zerbaitetarako asmoa izan. "Ustia daukat, sosiguz, aldi baten, itxas onduan egotia."

UTS EIÑ BARIK.- Gaztelerazko 'sin falta'. "Domeka guztietan, uts eiñ barik, etortzen zan bazkaittara".

UTSAK BILDURTU.- Edozergatik beldurtu. "Dan gizatuakin utsak bildurtzen daben makala dozu."

UTSAN / EZEBEZAN URRENGUA.- Baliarik ez duena. "Barrena Txikiko azeliña, utsan urrengua."

UTSIAN EMON.- Ia doan eman edo saldu. "Erromerixan ardaua utsian emoten asi ziran".

XEMEIKO BARIK GELDITU.- Dirurik gabe, sosik gabe geratu. "Beti juergia an da juergia emen, xemeiko barik gelditu zan."

ZABAL BIZI.-Lasai, ardura handirik gabe bizi. "Gu estututa ibilli arren, zabal bizi zan."

ZAIXA EMON.- Animaliak xaxatu, akuilatu. "Eskatu txakurra eta zaixa emon zetsan sagar lapurretan zebizen mutikuen aurka."

ZAPIXAK JO.- Lixiba egin ondoren, erropa uretan eragin (jabonadura egin eta gero, aklaratu). "Erreka baztarrian, arri bat lagun zala, joten ziran zapixak."

ZE ARDURA DESTA BA NERI.- Norbaitek egindako destaina gutxiesteko erabiltzen den esaldia. "Ze ardura desta ba neri zure ezetzak!"

ZE BARRI?.- Norbait agurtzeko era. "Ze barri Goimendixan?"

ZELA EDO ALA.- Nola edo hala. "Zela edo ala, amaittu dogu biarra."

ZELAKO LAPIKO ALAKO TAPA.- Errefraua, egoera berezi edo desberdinei egokitu beharra adierazten du. "Baekian abadeak nola berba eñ bere erriari: zelako lapiko alako tapa."

ZENBATEN EROSI.- Gauza batek zenbat balio duen galdetzeko beste esaldi bat. "Zenbaten erosi dozu soñeku ori?"

ZER DALA BARIK.- Motiborik gabe, arrazoirik gabe. "Zer dala barik, bota ninduen kalera."

ZER EDO ALA.- Nola edo hala. "Zer edo ala, amaittu genduan a auzixa."

ZER ERAIN, AXE BATU.- Gaizki egiteak ondorio txarrak ekar ditzakeela adierazten duen errefraua.

ZER ESAN BIARRA EUKI / EMON.- Hizpidea sortu. "Emon dau beintzat, zer esan biarra."

ZER ESANAK EUKI.- Kexatzeko arrazoiak izan. "Zer esan aundixak daukaz aspaldi onetan Peruk zugaittik."

ZER GAUZA BIGAZ KONPONTZEN DA GIZONA? JOSTORRATZA ETA ARIXAKIN!.- Dotrina irakasten zuen abade ilustraturen bati ikasle azkar eta arpa jotzaile euskaldun peto-petoak bota zion erantzuna.

ZER MODU(Z)?.- Norbait agurtzeko erabiltzen den formulismoa. Zer barri? erabiltzen den bezala. "Zer modu, aspaldiko Patxi?"

ZEZENAK IZAN.- Zezen-korrida egon. "Azpeitin, zezenak dira datorren domekan".

ZIARRO PURU KALIKAÑUA BAIÑO BALTZAGUA.- Oso beltza, konparazio bidez esanda. "Zazpi xentimoko ziarro puru kalikañua bera baño baltzagua kolorez".

ZILLETIK EIÑ.- Haurgintzan amari zesarea egiten zaionean esaten da. "Bigarrena zilletik eñ eban".

ZIRIXA SARTU.- Gezurren bidez norbait engainatu. "Ziri galanta sartu zetsan arek baseritar gizajuari."

ZIRRI EIÑ.- Inoren ezkutuko gorputz atalen bat ferekatu, normalean jabearen baimenaz. " Zirri eittia pekatu bada, makinatxo bat pekatu eiñdako bagara or ziar!"

ZIRT EDO ZART / ZIRTI ZARTA.- Nola edo hala, ahal den moduan. "Zirt edo zart amaittu dau bere taria iñok baiño len."

ZITZ TA BITZ / ZIZ DA BIZ EIÑ.- Zerbait zehatz-mehatz, goitik behera, ipi apa egin. "Zer gertau zan jakin nai badozu, noian kontatzera zitz ta bitz." "Ziz da biz, kiñu baten, ziero ustu eban askia."

ZORO AIZIAK EMON / ZOROALDIXAK ARTU.- Zeozer dela eta, norbait bere senetik atera. "Zoroaiziak emon detsa, eta ez dago sosegauko dabenik". "Zoro aldixak artu dau eta naikua biar ez danen bat eitteko".

ZORRAK BARDINDU.- Zor direnak kitatu, ordaindu. "Agoniakuakin zor guztiak bardintzen dira."

ZURRUT EIÑ .- Edan. Gauza bat goitik behera jausi. "Zurrut eizu maittiorrek, esnia, apapara juateko". "Sapaixak zurrut eiñ dau, astun larregi jarri detselako gaiñian."

## Morfosintaxia

Atal honetan hizkuntza adierazkorra, guztiz ez bada ere, albo batera lagako dugu. Hemen aztertuko duguna hizkuntzaren baliabide morfologikoak eta sintaktikoak dira, gramatikaren ikuspuntua, hizkuntzaren arauena, izango da nagusi.

Atal honetan formari erreparatu diogu batipat, eta sintaxiari dagokionez gauza bat adierazteko aldaera guztiak kontutan hartzea nahi izan dugu.

Gure aurreko euskaldunek hizkuntza gaur eguneko euskera estandarra edo batuaren aldean askoz ere aberatsagoa eta joriagoa zuten. Euskera batua hotza da, aseptikoegia. Ideia edo kontzeptu bat adierazteko baliapide gutxi dauzkagu, eta dauden apurretatik bat aukeratu eta etengabe errepikatu baino ez dugu egiten. Zer dela eta beti **duela hiru urte** erabili, **orain dela hiru urte** edo **gaur dira hiru urte** hor dauzkagunean? Ez ote da aberatsagoa **astero** beti esan beharrean lantzean behin **astean astean** esatea? **Adibidez** esateko badugu **konparazio baterako**. Takian potian erabiltzen dugun zorioneko **noski** horren orde z noizean behin **erregular** ere esan beharko dugu ba. Mina edo ondoeza adierazteko ere gero eta baliapide gutxiago dugu: **ze hagineko mina daukadan!** esango dugu **daukat hagineko min bat!** esaten ez badugu, zaharrek **hau hagineko mina (daukadana)!** esango luketena ahaztuta nonbait.

Morfosintaxia atal honen bitartez, azken finean, gauzak adierazteko ahal denik eta aukera gehien sartu nahi izan dugu. Gero hitzun bakoitzak erabakiko du aukera horietatik zein erabili. Badira, bestalde, sasoi batean erabiltzen ziren esaldiak gaur egun ia entzun ere egiten ez direnak. Gure ustez lehengoak berreskuratzea beti izango da mesedegarria hizkuntzarentzat.

Esaldiak ipintzean jaso ditugun bezala idaztea erabaki dugu, ahal izan dugun neurrian, - (A)GAZ eta antzekoak idazteak gure ustez irakurlearentzat nahasgarria izan daitezkeelako. Beraz, AGINKADIAGAZ, agertuko zaigu. Ulerterrazgo egiteko, alboan



gaur egun erabiltzen den erara egokitutako adibideak jarri ditugu. Esaterako, "Len zan garbixakin, bastotu eĩn jaku txakurra". ***Len oso garbixa izan arren, oiñ bastotu eĩn da txakurra!***

A ZAN TONTOR ZORROTZA.- Kontzesibo zentzua. Nahiz eta oso tontor zorrotza izan. "A zan tontor zorrotza, apaldu dabe eta lau-una politta gelditu da". "Arrezkero oso jatxixa dabill a zan arrua". Len oso arrua izan arren, arrezkero oso jatxixa dabill.

ADAR JOTE ALDE / ALDERA.- Adarra jotzeko, jotzera. Finala. -TEKO, -TERA. "Kalerako jazten dan goniari adar jote alde ibil-gonia deitzen jako Eibarren".

Kalerako jazten dan goniari adarra jotzeko ibil-gonia deitzen jako Eibarren. "Larregi gizentzen nagok, eta tripiu bajatze aldera lantzian bein mendi ibilli bat eitten asi nok". Larregi gizentzen nagok, eta tripiu bajatzeko lantzian bein mendi ibilli bat eitten asi nok. "Astero jatxitzen gara kalera, mezia entzutze alde". Astero jatxitzen gara kalera, mezia entzutze alde.

AGINKADIAGAZ.- Aginkadiarekin. "Eiñ zestan aginkadiagaz, orbana laga zestan betiko". Zaharrek oraindik ere -(A)GAZ erabiltzen dute -(A)REKINen ordez.

AGIRI.- Bistan izan. "Agiri dot ule zuririk?" Alegia, ikusten zait ulerik? AGERTUren parekoa da, baina honek maiztasun zentzua ematen dio, AGIRIk, ostera, "puntualtasun" esanahia du. Esate baterako: Aldizkari honetan hire artikulua agertzen dok. ( Egunero edo astero). Aldizkari honetan hire artikulua agiri dok ( artikulua bat, ale honetan).

AINBAT / ALBAIT LASTERREN / GEIXEN.- Ahal den lasterren, ahalik eta lasterren. "Ainbat / al bait lasterren etorri zaittezt".

AINGERU GUARDAKUA/ AITTA GURIA.- Gaur egun, guardako aingerua, gure aita esango genukeena.

AIÑ EZE.- Kontsekitiboa. Gaur egun, gehiago erabiltzen da hain eze..-en. "Aiñ benetakua izan zan Saulo kristau biurtzia eze, apostoluen artian izendatzen da Paulo izenagaz".

AIÑ... EZE -EN.- Kontsekitiboa. "Aiñ da adurtsua eze, Pepitxuak aterpia jartzen daben ari aitzeko, txipristiñen bildurrez".

AIÑ.... -.- Beste kontsekitibo bat. "Aiñ saskarrak aren lauskittuak, umiak bildur zetsan".

AKORDU AUNDIXA DETSAT ARI.- Oso gogoan dut hura.

AL DANIK.- Ahalik eta, ahal den. "Gerrikuan barren guenian sakela, al danik nekezen atartzeko dirua".

AL EZ.- Ezin. "Al ez zalako oneratutzia, zerutiko suak ondatu zittuan". Ezin zalako oneratutzia, zerutiko suak ondatu zittuan.

ALA BE.- Ez da hala ere adbersatiboa, Batez ere baizik. "Etxian gauza guztiak ditturaz maitte, baiña ala be liburuak". Etxian gauza guztiak ditturaz maitte, batez be liburuak.

ALBORA.- Alboan. "Albora zeroian semia ortozik". Albuan zeroian semia ortozik.

ALDIAN IZAN.- Soinean eraman esan nahi du berez, baina euki, izan, esateko ere balio du. "Guk añako eskolia aldian dau". Guk añako eskolia dau.

ALDIAN.- Konparazioetarako. "Nere aldian gaztia zara zu, ederrori". Zu ni baino gazteagoa zara, ederrori beste modu batean esanda.

ALKAR LAGUN EIÑ.- Erderazko 'aparejarse'. "Uda-barrixan, txorixak, arra eta emia alkar lagun eitten diranian, asten dabe bixen artian abixa-gintzia".

ALPERRIK.- Kontzesiboa. Nahiz eta. "Alperrik milla bider esan, beria eiñ biarrekua, temoso zar a". Mila bider esan arren, beria egin biarrekua, temoso zar a'.

ANARKISTETARA BIURTU.- Anarkista bihurtu, anarkista egin. "Aundikixa izan arren, biurtu zan anarkistetara".

ANDITXIK / ORTITXIK.- Handixek, hortixek. Erakusleen intentsiboak. Eibarren gehien erabiltzen direnak. "Anditxik etortzen da egunero".

ANKIA AUSI DU.- Hanka hautsi zaio. "Keixa arbolatik bera jausitta, ankia ausi dau".

AIÑAN.- Konparazioetarako, beste. "Arek añan eiñ dogu geure zeregiña". Arek beste eiñ dogu geure zeregiña.

APARTE.- Izan ezik. "Bizixa aparte, dana galdu eben".

ARAÑOK.- Haraino. "Amendik arañok da gure saila".

ARDIZAIÑ EIÑ.- Ardiak zaintzen jardun. "Iñoiz neuk be eiñ dot ardizaiñ". Iñoiz neu be ibilli naiz ardixak zaintzen. "Gaur aittak eiñ biar izan dau umezaiñ". Gaur aittak jardun biar izan dau umiak zaintzen.

AREK BESTIAN.- Arek bezain ondo' "Arek bestian joten eban soñua gure lagunak". "Lelon kantua ez da pentsatzen zan besteko zarra". Lelon kantua ez da pentsatzen zan beziñ zarra".

ARETXEK BAI ..... ZIRANA.- Gaur egun gehiago zirELA esaten dena "Aretxek bai eliziak azpian artuta iltzeko arriskorik barik bizi zirana!"

ARIK ETA.- Denborazko esaldietan indarra emateko. Arte. "Arik eta ill arte, eran deigun ardura barik".

ARRATETIKUAK.- Arratetik datozenak. "Eibartarrak, Arratetikuak, Arratetik jatxitzen dittuelako ume txikixak Eibarko ameri". "Bilbotiko tren", Bilbotik datorren tren.

ARRI-JAURTZEN.- Arriak jaurtzen. "Abillagaz arri-jaurtzen, ez zan beste bat a lakua". "Gaztiok erpill joten eiñ dogu egun guztian".

ARTANTXE NAGO.- Hori iruditzen zait. Eritzi horretakoa naiz. "Neu be artantxe nago, egixa dala diñuana".

ARTARA.- Horrela. Beraz. "Artara, ni ez naiz iñor".

ARTARIKO LETZ.- Aparte, bereizirik. "Bakillauan arbixa, artariko letz saltzen da", alegia bakailotik aparte saltzen direla. Gaztelera 'como tal' esaten dena.

ASKOKIN OBIA.- Askoz ere hobea. "Amoko legatza, askokin obia ostiangua baiño".

ASMAMEN AUNDIKO UMIA JATZU.- Umea da, duzu. "Asmamen aundiko umia jatzu, bai egixak eta bai guzurak apain ederrez janzteko". Asmamen aundiko umia dozu, bai egixak eta bai guzurak apain ederrez janzteko".

ASTIAN ASTIAN.- Astero. Hitza errepikatuz maiztasun zentzua ematen zaio. "Astian astian eitten dau agertu bat gurasoetara". "Domekan domekan igotzen dogu Salbadorera baketako egun eder bat pasatzera".

ASTIROTU NEIÑIAN.- Astirotzen naizenean. "Astirotu neiñian, eiñgo detsut karta luzia".

ATAN-ORRETAN.- Gaur egun asko erabiltzen dugun gauzak horrela horren esanahia du. Gaztelera 'y en esas'. "Hatan-orretan eiñ eben "kalamatxinuak" arrapatzeko plana."

ATZIZKIAK.- Hitz eratorriak sortzeko atzizki ugari erabiltzen dira, batzuk gainera, bitxi samarrak edo beste lekuetan nekez erabiltzen direnak: -KI: Izukixa, ausarkixa, arrokixa. -KIZUN: Osakizuna (Erremedixua), aurrerakizuna, zaunkakizunak. -KUNE: Begirakunia. -GIN: Asarregiña (gaztelera 'gruñón').

-ANTE: Txakillantia.

AU ALBOKO MIÑA DAUKATENA!.- Gaur egun, ze alboko miña daukadan!

esango genukeena.

AUKERAN AUNDITXUA.- Beharbada haundia. Normalean ondoko adjetiboa diminitubioan joaten da. "Aukeran aunditxua daukagun etxia". "Lapikuari gatza, aukeran geitxo eiñ detsazu".

BA.- -(e)lako, edo zeren eta, -eta kausalen ordezkia. "Adarreko bat patxar Erremona Martantzat, ondoezik dogu ba oian". Adarreko bat patxar Erremona Martantzat, ondoezik dogu ta.

BADA BE.- -tekotan. "Zuk, bada be, estuasun aundiren baten bakarrik lagunduko detsazu". Zuk laguntzekotan estuasun aundiren baten bakarrik lagunduko detsazu, beste modu batean esanda.

BAIEZKO ESALDIAK EZEZKO ESANAHIAREKIN.- Askotan, Toribio Etxebarriak batez ere, esaldiak baiezko eran erabiltzen ditu, nahiz eta esanahia guztiz ezezkoa izan. "Orraitiokan ori eitten badestazu, geixao arpegira begiratuko nik zuri". Orraitiokan ori eitten badestazu, ez detsut geixago arpegira begiratuko. "Oiñdiokuan beiñ be galdu arek iri-probarik". Oiñdiokuan beiñ be ez dau galdu arek iri-probarik. "Urte askuan izan zan baraterua eta iñori parkatzen arek baratua". Urte askuan izan zan baraterua eta ez zetsan iñori parkatzen arek baratua. "Ataiko atian, auzoko guztiegaz arek darabixan errepikia geldittuko dabenik". Ataiko atian, auzoko guztiegaz arek darabixan errepikia geldittuko dabenik ez dago, edo ez du iñork geldittuko.

BALEITXEKE.- Beharbada. "Baleitxeke ni etortzia okerrik ez badot".

BALIXAU.- Aprobetxatu. "Zaintzallien loaldi txiki baten balixau nintzan iges eitteko".

BARDIÑ DESTA.- Berdin zait, esango genukeena. "Neri bardiñ desta gorrixak izan edo berdiak izan, nik prakak nai dittut".

BARREN.- Esaldi batean baiezten denari indarra emateko erabiltzen da Eibarren eta inguruetan. "Egixa da barren lausik bage etorri dana". "I, eibartarrak dittuk barren".

BATA BAIÑO BESTIA.- Nor baino nor. "Iru anai ziran, bata baño bestia okerragua". Iru anai ziran, zeñ baiño zeñ okerragua.

BATA T'EZ BESTIA.- Ez bata eta ez bestea. "Gosia eta egurra, bata t'ez bestia onerakuak".

BATEKIN GANAKO.- Deklinabide kasu bat. 'Batenganako' "Ze berbaera dok ori nausixago batekin ganako?"

BAZKAITAN.- Bazkaltzeko. "Zer dogu bazkaitan?". "Afaritan nenguan aguazilla etorri zanian".

BEIÑ BERA ESANDA B'EZ.- Inoiz ere ez. "Beiñ bera esanda b'ez, ez eban arpegixa garbittu ogei urtian".

BEIÑ EDO BEIÑ.- Noizik behin, noizean behin. "Beiñ edo beiñ moskortzen zan, gizon ona izan arren".

BEIÑ MARTIXA EZKERO.- Martitik aurrera, Martia heltzean. "Beiñ Martixa ezkeru, udalorak agertzen dira".

BERE BIZIKO ONDUEN.- Inoiz baino hobeto, zeharo, guztiz... "Arrua zan, baiña bere biziko onduen apaldu eben".

BESTE.- Bezain. "Ataiko atia zan, zaldi gañian barrura sartzeko beste aundixa".

BESTERIK ZEU BAÑO EZ.- Zeu besterik ez, zeu baino ez. "Besterik zeu baño, ez deilla alperrik etorri".

BIDIA BIURRI ERUAN.- Zuzen ez joan. "Bidia daroie biurri, zuzen jua leikian lekuan".

BILBORA OSTERA DABILL EGUNERO.- Bilbora egunero joan eta etorri dabil.

BILDUR EBAN AGURATZIA.-Aguratzearen beldur zan edo zahartzeak beldurtzen zuela esateko. Beldur izan edo zerbaiti beldurra izan esan orde, beldur ukan erabiltzen du, baina ez -teko beldur ukan, -tea beldur ukan baino.

BUSTIÑAKINGUAK.- Buztinarekin egindakoak, dena kasu batean emanda."Basatzia eta lokatzia dira lur edo bustiñakinguak: kakatzia usteltzerako gauzenkingua". "Emoixozu bizixo-bedarrekingo ura".

DAMUTUKO JATZU.- Aditz batzuk, nahiz eta normalean NOR eran erabili, NORI eran ere erabiltzen dira. "Ondo damutu jako loterixia ez erostia". "Etortzeko esan detsat eta zer dala barik asarretu eñ jako"

DARIO IZAN.- Jario izan. Gaur egunean normalean dariola izan forma lexikalizatua erabiltzen da. "Alkondaria dario dozu fraken apurtu batetik".

DEILLA EDONORA IGESIK.- Edonora ihesi doala ere. "Deilla edonora igesik, galdua da".

DENBORIA LUZE JUAN.- Luze egin, luzetsi. "Zaiñ-egoniam, denboria luze juaten da".

DIRUDI EBELA. - Ziruditela. " ...izugarritzko friztizak dirudi ebela lurrian ezkutau gurarik".

DIRUDIXAN LETZ.- Dirudienez, itxura denez. "Dirudixan letz, aurtengo gari uzta ez da izango ugarixa".

EIÑ / EIÑAN PURUAN.- Eginaren eginaz. "Drogia eiñ puruan irabazi zetsazen diru guztiak".

ELIXIA(RI) JOTEN.- Zerbaiten ondoan dagoela adierazteko. Guk gaur egun,-a(ren) ondoan, alboan esango genuke. "Elixia(ri) joten zan abadetxia".

-(E)NETIK.- Kausala. -(e)nez gero. "Afaldu daigun, danok batu garanetik". Afaldu daigun, ixak eta danok batu garan. "Ez dot erretzen takorrik kalte eitten destanetik". Ez dot erretzen takorrik kalte eitten destanez.

-(R)EN / (E)KO BARRI JAKIN.- Zerbaiten berri izan. "Bajakik arek Eibarko barri". "Ezer jakin al dozu aren barri?"

ENTZUN GURA EZDAKO BERBAK.- Entzun gura ez dituen berbak.

ESAN ESATE ALDERA.- Zeozer esateagatik, final kutsua du. Gaztelera 'decir por decir'. "Esan esate aldera eiñ eban ori beste lagunak".

ESKERRAK... -(E)NARI.- Gaur egungo eskerrak -en(a), -ela. "Eskerrak lur apur bat daukanari, berduriakin bakarrik biziko litzateke ba".

ESTUAN IZAN / EGON.- Estututa, larri egon. ""Zergaitik naiz ni onen estuan?"

EZ DETSA GOGUAK EMON.- Ez du nahi izan. "Bata eta bestia esan dau, baña egixa ez da besterik auxe baño:ez detsala goguak emon".

EZ EZE...BE.- Ezezik...ere. Ez...baita...ere. Ez...bakarrik...baita..ere. "Ez dirua, ez eze bizixa be an laga biar izen neban". Ez dirua bakarrik, baita bizixa be an laga biar izen neban.

EZ GENDUAN BIAR OIÑ ORIXE BAÑO.- Gaur egun, horixe falta zitzaigun esaten duguna.

(E)ZE KONPLETIBOA.- Esaldi konpletiboetan, menpeko esaldiaren atzizkia oso urruti geratzen denean, aurretik (E)ZE ipintzeko joera handia dago. "Esan zestan eze, ixak eta berandu etorren eta autua konpondu barik eukanez, bixamonian emango estala aindutako liburua".

EZERTARA BE EZ.- Inola ere ez. "Ezertara be ez dot gura aregaz asarratzia".

EZERTARIKO ZAPIRIK GABE.- Inolako zapirik gabe. "Eskola mutikuak, billutsittu eta ezertariko zapirik gabe igari eitten genduan Indianokuan".

EZPADA...(ZE)... BE.- Baizik, baino. "Orrek ez dittuk eibartarrak ez pada (ze) be elgoibrarrak".

GAITX EGIN.- Kalte egin. "Zapu-perretxikuak berenua dauke eta gaitx eitten dabe".

GAIZKI BE GAIZKI.- Oso gaizki esateko beste modu bat. Adjetiboa edo adberbioa ERE tartean duela errepikatzean indartu egiten da. "Baltza be baltza". Oso baltza ziero baltza."Gaizki be gaizki eritxi detsat eñ dozun gauziari".

GARAN ARTIAN.- Garen bitartean. "Ao geldirik maixan garan artian beintzat".

GAUR DA EUN URTE.- Orain dela ehun urte, duela ehun urte, badira ehun urte.

GAUZA UKAN.- Gauza izan, baina transitibo moduan. Gauza da esan beharrean, gauza dau. "Apuak ez dau gauza okelatarako".

GERRIAN BILDURRETAN.- Gerraren beldur. "Berriz be, gerrian bildurretan bizi gara".

GORDE BIARRAN GORDEZ.- Gordearen gordez. "Ataraizu dirua, bestela gorde biarran gordez, galduko duzu".

GURE ZAN AMAK.- Gure ama zanak. "Gure zan amak berekautaketan jarduntzen eban zereginetan zan artian".

IBAIA BEIAN ETORRI.- Ur gutxirekin etorri. "Ibaia beian etorrenian be ixa beteko urak izaten ziran".

IBILTZERA EZKERO.- Baldintzazko esaldia. Ibili ezker. "Bistakua zan, ze etorriko jakon, bide artatik ibiltzera ezker".

IKARIA AREN AURIAN AGERTZEKO, ALAKOTXE SASKARRA ZAN BERA.- Esaldi kontsekutiboa. Hain zen saskarra (ezen) ikaratu egiten baikin/ ginEN haren aurrean agertzeko.

IÑORI EMON DAU.- Nahiz eta NORI agertu, aditza NOR eran erabiliz besteentzako ematea edo lagatzea esan nahi du. "Ez dau gura izan soñekua konpontzia eta ñori emon dau".

IXAK ETA.- Esaldi kausala. Gaztelerazko 'ya que'. "Ixak eta eldu garan, asi gaittezan jaten".

IZATERA.- Baldintzazko esaldia. Izan ezker. "Juliandiak, ona izatera diru asko balixo izaten dau". Juliandiak ona izan ezker / izatera ezker, diru asko balixo izaten dau.

JAIOTZATIK EKARRI.- Jaiotzez izan. Berez izan. "Jaiotzatik dakar errena".  
Gaztelerazko 'de nacimiento'.

JAKITZEN BADESTA.- Nik egindako zerbaitetaz enteratzen bada. Jakin aditzak normalean ez du NORI hartzen. "Zer gertau jatan jakitzen baldin badesta aittak, agirika eiño desta."

JATERA EZKERIK.- Baldintzazkoa, jan ezker. "Ez da jaso biar kuletru faltsua zintzuan orde, iltzekua da ba a jatera ezkerik".

JOAN DANEKO IRU URTIAN.- Duela hiru urtetik hona. Azken hiru urteotan. "Joan daneko iru urtian arriua gertatzen diardu". "Eibarko alde onetan bizi naiz jua daneko urte askuan".

KAFIANDAKO.- Kafearentzat. Deklinabidean normalagoa da Eibarren

-(e)ndako -(e)ntzat baino."Iru azukre tontor naikua dira kafiandako".

KANTULARI EIÑ.- Kantatu. "Kantulari eitten eban erromerixetan, dantzalekuetan".

KARTETAN EIÑ.- Kartetan jokatu. "Auzoko etxeko-andrak, kartetan eitteko jartzen ziran ataiko atian, beiñ arrasa ezker".

KARTIA EIÑ.- Karta idatzi. "Alabiak kartia eiñ detsa amari".

LANTZIAN BEIÑ.- Noizean behin, noizik behin. "Lantzian beiñ, dantzara juaten gara".

LAPURRETAN EIÑ.- Ohostu, lapurtu. "Lapurretan eittiak ez dau balio; ondo lapurretan eitten jakitziak baiño".

LEN ZAN GARBIXAKIN.- Honek ere kontzesibo zentzua dauka. "Len zan garbixakin, bastotu eiñ jaku txakurra". Len oso garbixa izan arren, oiñ bastotu eiñ da txakurra'.

LIBRE DA.- Daiteke. "Itturri onetatik libre da nai beste ur artzia".

LOTSARIXA ERUAN.- Lotsa pasa. "Petrari naigabia emotera jua non eta an billau jonat 'Andre Madalen' kantatzen... Lotsari makala eruan jonat!"

MAKIÑATXO BAT EGON EIÑ.- Luzaroan zain egon. "Makiñatxo bat egon eiñdakua aren zaiñ".

MANDO-EULIXA DAN GAUZA ZITTALA.- Zein zitala den mandaeulia.

MARKIÑARA BIDIAN.- Markiñarako bidean.

MIRA EIÑ.- Harritu. "Ez jata mira eitten zuk orretara iriztia".

NAI ALA.- Nahi beste, nahikoa eta sobra. "Nai ala euki genduan jan da erana egun artan".

NAI-EZDA / NAI-EZDALA.- Nahi gabe. "Eiñ eban okerra nai-ezda izan zan eta parkatu zetsen". "Nai-ezdala jausi zan etxeruzkuan".

NAIDALA.- Nahita. "Naidala eiñdako gauzia dirudi".

NAIKUA LAN.- Nahiko lan, lan nahikoa. "Naikua lan eiñ dot 67 urtian".



NAITA NAIDANA / NAIZ DANA.- Edozer gertatuta ere, erderazko 'sea lo que sea'. "Naitta naidana, banoia ni emendik". "Naiz dana: guazen gu beintzat".

NASTE ETORRI.- Nahastatuta etorri. "Gari eta loi, naste dator".

NOIZTIK NORA?.- Noiztik? "Noiztik nora ni zure laguna?"

NORA EZ DA.- Noraezean. "Itxuan dabill nora ez da, txingor eta inbrizka artian".

NUNDIK NORA?.- Nondik? "Nundik nora abill i egun guztian?"

OGETA URTIAK.- Hogei urte eta piku esateko. "Igaro ziran ogeta urtiak, ni Eibartik aldenduta".

OIÑDIOKUAN.- Orain arte. "Oiñdiokuan beñ be galdu arek iri-probarik".

OIÑDITTIK.- Hemendik aurrera. "Oiñdittik esaten detsut, ez naizela juango a badoia".

OIÑTSUAN.- Orain dela gutxi. "Oiñtsuan artu dot bere kartia, etxeko barri askokin".

OIÑTSUENGO, OIÑ URRENGO.- Azkenengoz. "Oiñtsuengo euri aundixak kaltia izan dira eraiñentzat". "Oiñ urrengo Donostian izan nintzarian zezen-plazia baeuan".

OITTU DA.- Betiko ohitura da. "Betiro oittu da amen, auzuak alkar laguntzia".

ONDARRETARAIÑOK ERAN.- Hustu arte edan. "Pitxarkadia, ondarretaraiñok eran eban".

ONDOREN/ ONDORIK IBILLI.- Norbaiten atzetik ibili, norbaiti segika ibili. "Ondoren ebillen, baiña alperrik". "Ondorik zer dakarren baneki...".

ONEN.- Hain. "Zergaitik naiz ni onen estuan?"

OPARO .- Eskuzabal. "Oparo eskiñi zeskun etxian eban guztia".

ORATU-LEKU BAKUA.- Zintzoa, zuzena, jasekoa. "Iñori asarre eitteko, lelengo norbera biar da izan oratu leku bakua".

ORRAITTIOK/ ORRAITTIOKAN / ORRAITTIOK-ARREN.- Adbersatiboa izan arren, baieztapen bati indarra emateko erabiltzen da. "Orraittiok, etorri zara alakoren baten". "Orraittiokan ori eitten badestazu, geixao arpegira begiratuko nik zuri".

ORRETARA IRIZTIA.- Horrela pentsatzea. "Ez jata mira eitten orretara iriztia".

OSABETARA.- Bizidunak izan arren, bizigabeak moduan deklinatzen dira hainbat hitz: medikura, osabetara, gurasuetara... "Astixa daukat, nai badozu osabetara agertu bat eiñ".

OSO.- Asko, zeharo, erabat, guztiz. "Aurten Matxari errekoa oso agortu da".

OTZ IKARIAK ARTU.- Hotzikara izan. Erderazko 'dar un escalofrío'. "Bazkaittan nenguala, otz ikariak artu nau eta ogeratu biarra euki dot".

PAGATZIAK EZ ESTUTU.- Ordaintzeko orduan aitzakiatan ez ibili. "A beintzat pagatziak ez dau estutuko".

PERRETXIKO ASKO EITTEN ZAN.- Perretxiko asko egoten zan. "Ubitxako txabola inguruan, perretxiko asko eitten zan gure eskolako denboran".

POZAK EGON.- Pozik egon. "Pozak nago etorri deiñerako".

POZAN POZAK.- Oso pozik. "Pozan pozak zoratu biarran zan, libre ikusirik bere burua".

POZARREN.- Oso pozik, poz-pozik. "Pozarren dator neregana".

PREMIÑATU.- Premia izan. "Jokuan galdu illekua, eta diru premiñatu zan etxera agertzeko eta lapurretan eiñ eban".

PREMIXUA ATARA DAU.- Tokatu zaio. "Lenengo premixua atara dau, gabonetako loterixan".

PURUAN.- Ekinaren ekinez. Ekiñan puruan. "Biarran eta lanan puruan zerbait aurreratu eban".

-(A)RI NOLA ESAN.- Guk -a nola esan esango genuke. "Ez dakit txirriskilliari nola esaten jakon erderaz."

SIÑISPERIA IZAN.- Norbaitengan edo zerbaitetan sinestu. "Siñisperia zetsen Ama Illargiari".

SIÑISTUTA EUKI.- Sinestarazi. "Txikixak ziranian, kerizaz betetako zugazti eder bat, neria zala siñistuta euki nittuan umiak".

SOIÑIAN ARTU.- Besoetan hartu. "Soñian artizu umiori nekatuta dator da".

SUAK DAU BEROTZIA.- Suak berezkoa du berotzea. "Suak dau gauzak berotzia".

TABERNA ZULUAN.-Zurrutean egitea gustokoa dutenak, ez dira tabernan egoten, taberna zuloan baino. "Taberna zuluhan biziko ziñateke zu".

TXISTUETAN EIÑ.- Txistua jo. "Lana eiñaz, txistueta eitten eban zoragarri".

URTIK-ARREN.- Kontzesiboa, baina ez aditzari lotuta, izenari baino. Gora behera. Gaaztelarazko 'a pesar de los años'. "Pozik juango nintzake, dittudan urtik-arren, euskerak artzera".

USTE (ZE)... -ELA.- Konparazioetarako. Ba... bezala, -elakoan. "Orrualari aintzaile bat da, uste (ze) bere bendian garala ostianguok". Orrualari aintzaille bat da, ostianguok bere bendian bagengoz bezala.

USTERIK GITXIENIAN.- Ustekabean. "Parabolako lapurra bezela, usterik gitxienian agertu da".

ZARATA ERABILLI.- Zarata egin. Egin aditzaren orde askotan erabiltzen da erabilli aditza. "Zarata geixen erebixana aurretik, gero irutxurlari agertu zan".

ZARTZARA.- Zahartzaroan. "Zartzara be gizon azkarra dogu".

ZE ASKO.- Zeresan asko. "Alperrik kontuz ibilli, aregaittik be, ze asko badiñue".

ZEDOALAN.- Nolabait. "Toriadore gizajuak, zedoalan ill eban zezenori".

ZEIÑ.- Esaldi konparatiboetarako. "Mendixa ederra, zeñ itsasondua". Mendixa itsasondua beñ ederra da. "Basuan, zeñ ederra kerizia, kartzelan euzkixa". Basuan kerizia ederra dan moduan, kartzelan euzkixa da.

ZEIN DA ... BALITZ MODUAN.- Konparazioetarako. Bailitzan, balitz bezala. "Pizarra onduan ipiñi zan zein da maixua balitz moduan" Maixua bailitzan, balitz bezala. "Traje dotoria jantzitta agertu zan, zein da aberats bat balitz moduan".Aberatsa bailitzan, balitz bezala.

ZER EDO ALA.- Nola edo hala. "Zer edo ala, amaittu genduan a auzixa".

ZERGAITTIK EZE.- Esaldi kausala. "Guardasola atara biarko dot, zergaittik eze egurdixa eurira dago". Guardasola atara biarko dot, egurdixa eurira dagoelako.

ZERGAITTIK EZE... (E)LAKO.- Kausala. -(E)LAKO. Normalean menpeko esaldiko atzizkia urruti dagoenean erabili ohi da, "Ez dot zinera jua nai, zegaittik eze, alde batetik dirurik ez daukatelako, eta bestetik naixago dotelako mendira juatia".

ZER PIEZATZUEK.- Zer duten galderetan sustantiboari ipintzen zaion pluralgile antzekoa. "I, esaidak aurtengo jaietan zer piezatzuek jotia nai dozuezen". Guk esango genuke 'zer pieza' soilik.

ZILDUTZIA UKAN.- Zildu. "Udabarrixakin zildutzia dauka kipuliak", alegia zildu egiten dela.

ZIZKI-NASTIA UR TEN.- Zizki-naska sortu. "Urten eban zizkinaskia iñok erabagi eziñdakua".

ZU ZARAN IZATEKUA!.- Zu zara izatekoa!. "Zu zaran izatekoa! ezin dozu apur bat itxoïn?".

ZUZEN BE.- Hain zuzen ere. "Zuzen be, zeuk diñozun bezela pentsatzen dot neuk pe."

## Lexikoa

Hirugarren eta azken atal honetan berbak edo hitzak ageri dira batipat, horregatik ipini diogu lexiko izenburua. Hala ere, esaldiak ere badaude; esaldiok, dena dela, ez dira lokuzioak edo hizkuntza adierazkorrari dagozkionak, edozein berbak bezala kontzeptuen berri ematen dutenak baino. Hitzei dagokienez, lehenengo eta behin zera esan behar dugu: ez ditugula hitzon esanahi arrunta ekarri, ezohizkoa baizik. Esate baterako, **artopila** berbaren esanahia *arto irinez egindako opila* da, beraz guk ez dugu hori jaso. Bigarren zentzuan, ostera, *inozoa edo patxadatsua* esan nahi du. Guk bigarren hori idatzi dugu.

Edozein modutan ere, batzutan, hitza ezezaguna delako edo bertokoa delako, esanahi normala eta bakarra jarri dugu, **pegora** (ataria), edo **anporra** (gezur handia) esaterako. Batzutan, baina, berbak esanahi normala eta ez ohizkoa ditu, orduan biak ipini izan ditugu. **Arriabarra** hitzak, adibidez, *harria*, *txingorra*, *euri izoztua* esan nahi du. Beste zentzu batean *hondamena edo zorigaitza* ere adierazten du.

Hitzen munduan gaudela ezin ditugu ahaztu errealitatea deskribatzeko errealitatearen beraren hotsak imitatuz eratzen diren berbak edo onomatopeiak. Hizkuntzek errealitatea isladatzeko ez dituzte hots berberak erabiltzen, hori argi ikusten da onomatopeietan: oilarraren kantua adierazteko euskaldunok **kukurruku** esaten dugu, gaztelaniaz **kikiriki**, eta frantsesez **kokoriko**. Txakurraren zaunka adierazteko ere, badago aldea: gazteleraz **guau!** esaten duten bitartean, euskeraz, orain dela gutxi arte behintzat, **au!**. Dena dela, alor honetan ere, hizkuntzen arteko berdintsuna gero eta handiagoa da, normalean esparru txikiko hizkuntzek handien aurrean amore ematen dute, gaur egun ingelesarekin gertatzen den bezala. Onomatopeiak era askotakoak eta mordoa dira:

**Tirri-tarra** (uzkerraren hotsa imitatzeko) **plisti-plasta** (uretan zipriztinga ibiltzean sortzen den hotsa), **txiri-txiri** (apurka-apurka, geldiro, adierazteko).

Hizkuntzaren beste alor bat hiztun talde jakin batek erabil ohi duen hizkerarena dugu. Talde horietan garrantzi handikoa haurrena da, batez ere hitzegiten ikasten ari diren unekoa, guk ume-hizkera deitu duguna. Eibarko euskeran adibide mordoa aurkitu dugu. Hala ere, badira berba batzuk euskalki guztietan ageri direnak, **apapa**, **bekeke**, **pa eman**, eta hainbat. Guk, nahiz eta oso ezagunak izan, horiek ere sartu egin ditugu. Eibarko euskalkiari dagozkionak ere, jakina, sartu ditugu. **Kokole** (txokolata esateko), **mamelo** (karameloa adierazteko) edo **bili-bili** (ahatea adierazteko).

Hitzen barruan badira hainbat hiztunaren barne-egoera adierazteko erabiltzen direnak, exklamazioak edo interjekzioak. Gaur egunean horrelakoak gero eta gutxiago erabiltzen ditugu, erabiltzen ditugun apurrak hainbat egoera adierazteko komodin bihurtu zaizkigu. Oraingo sasoiari, egonezina, haserrea edo poza adierazteko, **jo!** baino ez dugu esaten. Gazteagoentzat dena da **guai!**, zerbaitekin konforme gaudela adierazteko **bale!** baino ez daukagu. Badirudi, beraz, hizkuntzak, ez euskera bakarrik, pobretzeko bidean daudela; hala ere, prozesu hori hizkuntzen bilakaera normala izan daiteke. Gure ustez interesgarria izan liteke orain dela urte batzuk euskerak esparru askoz ere zabalagoa hartzen zuen garaiko adibideak berreskuratzea: **ori dok ori!** (norbaiti animoak emateko), **arraixuak ez ba dittuk!** (baieztapen bati indarra emateko) edo **kaka zarra!** (haserrea adierazteko).

Berbekin jolastu ere egin daiteke. Hitzunek, batzutan irudimenaz baliatuz, konparazioak eta hitz-jokak asmatzen dituzte. Hor dugu metafora esate baterako. Figura honen bitartez hitz baten berezko adiera irudizko adiera batekin ordezkatzeko da analogian oinarrituta. Metaforetan beti dago konparazioa bat, baina ezkutatuta egon ohi da. **Neguko madariak**, adibidez. Metafora honekin guardia zibilak adierazi nahi da; neguko madariak heldu gabe egon ohi direnez, oso berdeak izaten dira guardia zibilen uniforme bezala. **Ardi errena**, beti azkenengo ibiltzen dena adierazteko. **Kardantxillua**, hitzontzia edo berritsua esateko.

Hitzei gagozkielarik badago beste figura bat eufemismoa izenekoa. Hizkuntza guztietan egoten dira hitz tabu, edo esaten ez direnak. Normalean bere gordintasunagatik min eman dezaketen ekintzak edo ideiak izaten dira. Guzti horiek adierazteko era leunduari eufemismoa deritzo. Jarri ditzagun adibide batzuk. *Kaka egin* esateko, **librau**. *Put* edo *emagaldua* esateko, **emoten dabena**. *Ipurdia* adierazteko, **zati biko arpegixa**. *Ipurdia* berba, edozelan ere, euskeraz ez da tabu. Gaur egunean gaztelaniaren eraginez kategoria hori hartzen ari bada ere, ipurdia edozein testuingurutan erabiltzen da: botilla ipurdia, ipurdiko galanta hartu, arbola-ipurdia, eta hainbat adibide.

Lexiko atal honetan berbak alfabetoaren arabera sailkatu ditugu, beti alboan azalpena eta adibide bat jarritz. Hitza ipintzerakoan zalantza izan dugu, ohizko hiztegietan bezala mugagabe ipini, ala mugatuan, artikularekin? Azkenean artikulua eta guzti jarri ditugu, batez ere aztertu ditugun idazleek horrela jarri dutelako. Hortaz **abarkadun** barik **abarkaduna** ageriko da. Norbaitek esan dezake horrela nahasmena sor daitekeela kasu batean baino gehiagotan, **abeletxe** berbarekin, esate baterako. Guz ez dugu hori uste, izan ere Eibarko euskeran **e+a=ia** gertatzen da. Beraz **abeletxia** ikusten badugu, badakigu *abeletxe bat*, *hainbat abeletxe* edo *etxaburuko abeletxia* esan behar dela. Berdin gertatzen da **ua** amaiera duten berbeekin: **o+a=ua**. *Abospolua* eta *abospolo ori*.

Bestalde, berba batzuei azentua ipini diegu, hots bereko hitzak desberdintzeko: **áutua** (ibilgailua) eta **autúa** (kontua, gertakizuna); **égixa** (gezurra ez dena) eta **egíxa** (mendilepoa); **txítxaka** (jolas bat).

ABABA.- Leloa, tentela. Exklamazio moduan erabiltzen da normalean: "Ababa nok ni ala, ori siñistu deiran!"

ABARRA.- Egoera batzutan, berba bat indartzeko eta ugaritasun zentzua emateko. "Bazan negarra ta abarra egun aretan."

ABADEKUME / ABADESEME.- Elizgizona, apaiza. XVIII mendeko Eibarko Ordenantzetan ageri da. "Egon della Conttuban Justticia Errejimenthu gustticha esteilla nombrau escribuzatt, habaderen semeric".

ABADETARRA.- Gaztelerazko 'clerical' adierazteko. "Abadetar amorratua izan zen beti."

ABARKADUNA.- Baserritarra esateko beste hitz bat. "Abarkaduna izan arren, guk aiñako eskolia aldian dau".

ABAUUA.- Abaraska. "Aiñ loratsua zan ingurua eze, erletxian abauak eztixa gaiñezka".

ABELETXIA.- Korta, saroi. Abereak, normalean ardiak, gauez gordetzeko lekua. "Iragorriko abeletxian izan giñan egun artan".

ABENDUA.- Mirua. Txitxalapurra. Gaztelerazko 'milano'. "Abenduak eruan deskuz txitxarik geixenak".

ABERA.- Aberea, etxe inguruko animalia. GANAUA ere esaten da. "Aberats bat zan, bere aberastasun guztia eukana abeletxian".

ABIJOIA.- Hegazti bat. Gaztelerazko 'vencejo'. "Abijoia, ernadian antzerako txorixa...".

ABIXADIA.- Abiada. "Zeroian abixadiak galdu eban, eziñ izan zan ba geldittu biar zan denboran"

ABIXARIA.-Oiloari arrautzak jarri ditzan ipintzen zaion buztinezko arrautza. "Abixaria ipiñi daben lekuan arrautza mordua batu dau gaur goizian baserrittarrak".

ABOSPOLUA.- Inozo samarra, patxadatsua denari esaten zaio. Erderazko 'pánfilo'. "Ikusi al dozu abospolo ori?"

ABOZIÑAUA.- Berezia. Hitz hau, antzinako armen kainoi berezi batzuen izenetik dator. "Aboziñaua eta besterik ez lakua aiz beintzat eu!"

ADARDUN KAKALARDUA.- Koleoptero mota bat. 'Lucanus cervus'. "Udako illunabarrian, adardun kakalarduak egan agertzen ziran".

ADARMIA.- Balio gutxi duena (antzinako monedaren bat?). "Zure asarriak, adarme bat ez detse ardura".

ADARREKUA.- Kapazitate/edukin-neurria. "Adarreko bat pattar Erremona Martantzat, ondoezik dogu ba oian."

AFANA.- Harrokeria. "Afana badarabill bedorrek beintzat".

AFARIKETAKUA / AFARIKETARAKUA.- Jostailua. "Jatxiozuz umiari bere afariketakuak".

AGARRATZA.-Arakatz. Erderazko 'grosella'. "Gure txiki denporan, agarratzak ugari agertzen ziran plazara".

AGILLANDUA.- Gabon-sarixa. Gabonetako kanta batean agertzen da: "Agillando, agillando,/ bizkaitarrak Durangon;/ aingeruak gera, zerutik gatoz,/ poltsia ba'dogu baña / eskian gatoz."

AGIÑETAKUA.- Haginetan emandako zartakoa. "Agiñetako batekin lurrera bota eban".

AGONIXAKUA.- Norbait hilzorian zegoenean jotzen zuten kanpaikada mota bat. "Agonixakua izan da eta ez dakit zein ill ete dan".

AGURA-MASPASIA.- Zaharraren zaharraz zimeldutako agurea. "Zigarro-mutxikiña aguan ebala atariko atian jarritta egoten zan agure-maspasa bat".

AI AMATXO!.-Larritasuna adierazteko interjekzioa. "Ai, amatxo, au da ondamedixa etorri dana gure gaiñ!"

AI ENNE / AI ENNE BA / AI ENNE BARATATXO BA.- Oinazea, estuasuna adierazteko interjekzioak. "Ai enne baratatxo ba, amen nere azkena!"

AIDA AIDA .- Ume hizkeran ganadua. "Guazen amendik, aida aida dator gureganarutz da".

AIDA!.- Ganaduari aurrera egin dezan agintzeko. "Aida morrosko! aida nafarra! ixoo!"

AIDEKUA.- Pertsona aldabera, aldakorra. "Berbetan zailla, baiña ostian aideko gizona".

AIDEZKO BUELTIA.- Txilinbuelta. Erderazko 'vuelta campana'. "Eskillaran bera, aidezko bueltia eiñ neban".

AIENKA EGON.- Kexuka aritu. "Gizon eiña izan arren, aieneka egon da gau guztian".

AIENKIA.- Kexua. "Benetan miñ dabenak, eziñ aienekia gorde".

AINDU.- Bidali. Askatu. "Noek usu bat aindu eban kanpora".

AINGERUA.- Ume-umetan hiltzen denari buruz esaten da. "Aingerua izan da gaur, Untzaga kaletik."

AINGERU KANPAIA.- Haur bat hiltzen zenean jotzen zen kanpaikada mota. "Aingeru kanpaiak diardu, zeñen umia ete da?".

AITTA BESUETAKUA.- Aita bitxi, aita ponteko. "Aitta besuetakua neban eibartarra".

AITTA-JAUNA.- Aitona. "Batzutan esaten dugu aittaitta orde, aitta-jauna".



AITTA-ORDIAZKUA.- Aitordea. "Umezurtz gelditu zanian, aita-ordiazkuagaz jarri eben".

AITTIAREN!.- Harridura interjekzioa. "Aittiaren! Beittu zer dirudixan gizajo orrek".

AITTIAREN BATIAN.- Bapatean, agudo, berehala. "Aittiaren batian eñ zittuan ein biarrekuak lagunartera azaltzeko".

AIXELKO.- Ipuinetan, azeriari ematen zaion izena. "Aixelko ipoiñ guztietan, motxalle argi bat letz agertzen da".

AIZEGORRIA.- Haize hotza. Gaztelerazko 'cierzo'. "Arpegia ebateko moduko aizegorria ebillen orduan sasoian".

AIZKOLKETAN.- Aizkorarekin jardun. "Erremiak aizkolketan ango errikuak".

AIZTATZAKUA / ALABATZAKUA.- Ahizpordea. Alabordea. "Ezkundu dan ori, aizatatzakua dau Maritxuk".

AJAJA.- Barrearen onomatopeia. "Sumendixa txokiatzalliak zittuan nik entzun ditturan ajaja bizixenak".

AJE EGUNA.- Astelehena. "Jai egunan biaramona, aje eguna".

AJETSUA.- Ajea sarri izaten duena. "Astelen guztietan ajia eban, ajetsua zanetik".

AJIA.- Larregi jan eta edan ondoren, geratzen den gorputzaldi txarra. Normalean jaiegunen biharamonetan". "Ajia osatzeko berriz eran ezkeru, ajian ajia, esaten daben letz, ajerik txarrena".

AJURIA.- Umeen gaisotasunak sendatzeko metodo bat. "Ipinixozu ajuria perrejil kertentxo batekin".

AKABATZAILLIA.- Armaren metalezko atalak leuntzen dituen. "Melitton Sosua, akabatzaillerik onena".

AKABUA.- Heriotza. "Ainbeste atsekaben ondoren negua, eta axe izan zan bere akabua".

AKASO.- Beharbada. " Bixar akaso etorriko naiz".

AKATSA.- Koska. Gutxitzea. Hutsa. "Labaiña orrek akats aundi bat dauka". "Akats aundi bat eñ zetsan kinzeniari, Katilluneko tabernan". "Galdu daben pelotarixak akats mordua euki dau"

AKETUA.- Gizonkote, gizon galanta. "Arrate baillian baziran aketuak bildurra sartzeko bestekuak".

(IT) AKO.- Harridura adierazteko interjekzioa. A zelako. "Ako agurian xaxaria, alako epelkerixak aomiñian dittuala".

AKOLITXUA.- Elizmutila. "Gaztetan akolitxo eitten eban elizan".

ALA, ALA!.- Agintzeko hitzak. "Ala, ala! goazen emendik betiko".

ALABATZAKUA / ALABA ORDIAZKUA.- Alaborde, senar-emazteetariko baten alaba dena bestearekiko. Baita senar-emazteok euren ez dena alabatzat hartzen dutena. "Alabatzakua izan arren, maittiena eben". "Ama ordazkuak azi eban nere andria, umezurtz gelditu zanetik lauoiñian ibiltzen zala".

ALA BIARRIAN.- Kasualidadez. "Urkusura noiala, ala biarrian topau neban nere emaztia izango zana".

ALBAKUA.- Egunsentia. "Albakuakin jaikitzen da egunero".

ALBATIA.- Urtegietako atea. Erderazko 'compuerta'. "Guenengotik Isasira etortzen zan albatia jasotzera".

ALBORA EIÑ.- Alde batera egin. Okertu. "Albora eizu, mesedez, burdixa igaro arte". "Ezkerrreko ormiak, albora eiñ dau eta laster da lurrera".

ALDAPADIA.- Aldapa, aldatsa. "Laupagotik bertantxe zan diñoten aldapadia".

ALDEZ SEGURU.- Lehendik, aurretiaz, erabakita. "Txofer-karneta ataratzeko alde z segurua jua biar da esamiña eittera".

ALDIAK.- Okerruneak, desberdintasunak. "Gona barren orrek aldiak daukaz ondo emoten ez dabenak".

(L) ALDRADIA.- Hegazti multzoa. "Leentxuago pasau dok aldrada galanta".

(IT) ALDRIA.- Lagun edo animalia talde handia, saldoa. "Lagun aldria urritxuaz zoian igeslarixeri esker".

ALETAKUA.- Bakana, urria. "Gizon aundixak, aletakuak izaten dira".

ALGARA EIÑ.- Barre egin. "Maitte nebala esan netsanian, algara batekin erantzun zetan".

(IT) ALKARREKINGO.- Elkarrekin, batera. "Gerra denporan, amaika gora-bera ta alkarrekingo ibillaldixak erabilli genduzen Joxe lagun eibartar ondo ezagunak eta bixok".

ALKOTZA / AOTZA.- Garia eta zekale garauak batzen dituen azala. Gaztelerazko 'cascabillo'. " Garixa batu ondoren, alkotza eta lastua ugari".

ALPERRA.- Mahaiko daratulua. Lurra zapaltzeko harrizko zilindroa. "Izan leike alperra, gure aittaitten makiñak aittatzeko modua". "Alperragaz sokil guztiak txiki-txiki eiñ zittuan".

ALPERRONTZIXA.- Alper handia. "Gizonak, alperrontzi, etxekalte negargarri batek urte detsa koittauari".

ALPERTSUAN.- Ezer egin gabe egon. "Alpertsuan bizi da, ezer eiñ barik, ez beretako ez bestientzat".

ALTZAGARRIXA.- Zerbait kili-kolo dagoenean, alde motzenari azpian ezartzen zaiona. Gaztelerazko 'calzo'. "Altzagarrixa jarrixozu mai orren anka errenari".

ALUA.-Interjekzio peioratiboa, Toribio Etxebarriak dioenez, ondarrutarrengandik jasotakoa. "Ato on, aluori!"

AMA / AITA BESUETAKUA.- Ama / aita pontekoa. "Nere ama besuetakua, Aramaixotikua".

AMABI-AMABIETAN.- Hamabietan puntuan. "Amabi-amabietan agertu zan, uts ein barik".

AMA DIAGARRA.- Laguntza eskatzeko oihua, deiadarra. "Ama diagarrak ziran itxasuan aldetik".

AMAMA.- Aukeran. "Pelotia tanto eitteko amama ekan, baiña uts galanta eiñ eban".

AMANDRIA.- Amona. Neskatoei marimaisu esateko. Gizonezkoa bada, maritxua. "Gure amandria, Irustanekua." "Bene-benetan amandria dozu ume ori". "Zan gizon zerbait amandria".

AMA-ZULO.- Amaren ondoan larregi egoten diren umeak dira amazuloak. "Ama-zulo bat da ume ori, eta ez da gauza izango ezertarako."

AMESETA TXARRA(K).- Amesgaiztoa. "Ameseta txar batek esnatu eban".

AMIA.- Kumea eginda dagoen animalia. Nagusia, agintzailea, batez ere jolasetan. "Amiak igartzen badetsa abixia topau detsazula, lagako dittu arrautzok bertan bera". "Oin zeu zara amia, galdu ein dozu ba".

AMORRAIÑ ZEIA.- Amorrain kumeak. "Gure diputaziñoak amorrain zeia zabaltzen eban errekatxuetan, arrazia ez deiñ galdu".

ANABASIA.- Nahastea. "Zikirri-zakarren nastia, anabasia".

ANAI ERDIXA.- Guraso desberdinetako anaiak. "Anai erdixa eban, ama birenak ziralako".

ANBOTOKO SEÑORIA.- Anbotoko dama. "Anbotoko señoia ezagututako baserritarrak, asko ziran len".

ANDADORA.- Beirazko kanika. "Andadorak ziran agarratzen itxurakuak".

ANDERUAK.- Hil kutxa kanposantura eroaten zutenak. "Anderuak eruan dabe Urkiko esparraura".

ANDIKUA.- Beste aldekoa. "Andikao, Elgoibarren esaten jakon baserrixa, ibaixan andikua".

ANDRAKUMIA.- Emakumea. "Andrakumia izan arren, gizon askok baiño ganora geixago eukan traturako".

ANGIRA SINBRIXUA.- Aingira kumea, angula baino handiagoa. "Goiz guztia uretan emonda, aingira sinbrixu bat baiño besterik ez dogu atara".

ANKA ERRENA / ANKA MOTZA.- Errena. "Anka errena izan arren, beste asko baiño azkarragua zan mendixan gora". "Anka motza baiña gu baiño lenago eldu zan Izura".

ANKA GORRIXA.- Jaioberria. "Anka gorririk izan al dozu etxian?"

(IT)ANKA-JOKUA(K).- Lasterketa, ihesa. "Ara eldu giñanerako zalapartak eta jentien anka-jokuak baño ezbazebizen..."

ANPOLARIXA.- Handia, ederra, galanta esateko, gerezi mota hori bezalakoa. "Neskato anpolarixa dago zure alabia".

ANPORLARIXA.- Gezurteroa, gezur asko esaten duena. "Arrajolako Anporra baiño anporlari aundixagua zan".

ANPORRA.- Gezur handia. "Anporra zuk oiñ esan dozuna".

ANTSA.- Hatsa, kiratsa. "Orko oillotegixan batzutan egoten dan antsa, siñistu eziñekua"

ANTXITXIKA / ANTXITXIKETAN.- Arineketan, lasterka. "Beti, batetik bestera, antxixika dabillen gizona dozu ori".

ANTZA.- Traza. Hatsa, kiratsa. "Onek badau aren antza". "Errekia zikindu zanetik, egon ezindako antza dago Azitain aldian."

ANTZERATU.- Gauza bat gorpuztu, forma eman. "Nekez baten antzeratu dau gauzia, eta oiñ zegozer dirudi".

ANTZITTU.- Usteldu. "Saldu baiño len antzittu jako arraiña".

AÑUBIA.- Leku heze eta itzaltsua. "Ametza, añubietako zugatza". "Euzki aldian ostia, añubia".

AO AUNDI.- Behar denean, isiltzen ez den harroputza, harroskoa. Erderazko 'bocazas'. "Ao aundi bat izan arren, ez jakozen auan kabitzen esaten zittuan gezurrak".

AO BATETIK.- Aho batez. "Mundu guztiak ziñuan ao batetik".

AO BERO.- Esajeratua. "Erdixa baiño geixago kendu biar jako arek esaten dabenari, ao bero bat dalako".

AO FIÑA.- Mokofina, jate kontuan gauza onak atsegin dituen, aditua. "Ez erozer gauza atara ari maira, ao fiña da ta".

AOZABALA.- Isilik egoten ez dakien harroputzari esaten zaio. Gaztelerazko 'bocazas'. "Orrekin alperrik dok, beti izango dok aozabal galanta".

AO ZATARRA.- Biraoak sarri botatzen dituen. "Peralta bezin ao zatarra".

AOKADIA.- Esajerazioa, gezurra. "Bota dau oiñ be aokadia, guzurti aundi orrek!"

APALA.- Behe mailakoa. Erderazko 'villano, siervo, proletario'. "Apala bizi zan Apalateixan".

APALDU.- Gutxitu, beheratu. Gaztelerazko 'rebajar'. Makurtu, zentzu psikikoan. Gaztelerazko 'rebajarse, humillarse'. "A zan tontor zorrotza, apaldu dabe eta lau-una politta geldittu da". "Oso apalduta etxeratu da".

APALUNIA.- Mailetunea. 'Abolladura'. "Burpill onek apalunia dau eta salto eraitzen detsa burdixari".

APAIÑA.- Apaingarria. "Etorri zan apainduta bere apaiñ guztiegaz".

APAPA.- Ume-hizkeran kalea, kalera irten. "Goazen apapara, egualdiederra dado ta".

APATX EGIN.- Ume-hizkeran jarri, eseri. "Apatx eizu amatxon onduan, mama erateko".

APENAS.- Kantitate urria adierazteko erabiltzen da. Aditzari -EN eransten zaio berba erabiltzerakoan. "Apenas iñor etorri dan". "Apenas biarrik eitten daben".

(L Q)APIONIAN ILL.- Ehiztari giroko esaldia. Lurrean geldirik edo oinez, hegan hasi baino lehen, doan hegazia hiltzeari deitzen zaio. Ehiztariak ehiza mota hau ez dute aintzakotzat hartzen. "Jarritasek zazpi eper bota jittuk baiña sei apionian".

APIONAU/APIONIAN IBILLI.- Oinez ibili. "Antxiña autorik ez genkagunian apionau eitten genduan emendik Besaidera". "Apionian juaten giñuan mendiko erromerixetara".

APROPOS.- Txantxetan. "Apropos esan zetsan, baña bestiak ez eukan txantxetarako gogorik eta benetan artu eban".

APUA.- Hazitarako txerria. Putazalea. "Apuak ez dau gauza okelatarako." Apua esaten jako andrazaliari".

ARAGIXA.- Haragia, bizirik dagoena. Hildakoa, jatekoa okela da. "Aragi bizixan daukat orpua, ospelekin".

ARAMAITTAKUA.- Angelusa. 'Abe Marixakuan ordua'-tik. "Aramaittakua izan da eta oiñ umiak lotara".

ARAÑEGUN ANTXITXIK.- Herenegun aurreko eguna. "Arañegun antxitxik ill jakue senide bat, eta gaur arte ez dabe jakiñ ezer".

ARASUA/ARAZUA.- Zeozer egiteak ematen duen lana. "Materixalak onenbeste, eta gañeko arasua iru errial".

ARATIAN /ARATAN.- Gora begira igerian egin. "Aratian eitten dau, obeto ostian baiño".

ARAZIA /ARASIA.- Balda, apala. "Amentxe arazia jarri biarra daukat, erosi dituran liburu barrixentzat".

ARBASUA.- Harritza. "Emendiko aldetik dana arbasua da".

ARBIDIA.- Kaltzada. "Bide txingor onek, arbide batera joten dau".

ARBITZA.- Kuartzoa. "Arbitzak ostiango arri guztiak erreixatzen ditto".

ARBOLA BURUA / GERRIXA / IPURDIXA.- Arbola burua. Enborra. Ebaki ondoren geratzen den enbor zatia eta sustraiak. "Arbola-burua orrirtuta dagonian, txorixendako eskuta-leku ederra". "Pago arek eukan gerrixa, lau gizonez artu eziñdakua". "Amaika arbola-ipurdi bazan gure izandako pagadixetan, izugarrizko friztixak dirudi ebela lurrian ezkutau gurarik".

ARBOLA TANTAIXA.- Inausi gabeko zuhaitza. "Arbola tantaixak lagatzen ziran oso-  
osorik egurretarakuen artian, biar nausixetarako".

ARBURUA.- Harkaitza. "Itsas ertzeko arburuetatik, arrantzale eitten eban amuagaz".

ARDAU NAFARRA.- Ardo beltza. "Eibarren geixen eraten dana, ardau nafarra. Rioja aldietakua".

ARDI-ERRENA.- Beti azkenengo ibiltzen denari esaten zaio. "Amen dator, alakoren baten gure ardi-errena."

ARDI KAKA / KOROTZA.- Arkakusoarena. Ardiarena. "Barruko erropak ardi kakaz beteta lelengo egunetik". "Lorendako, ardi korotza simaurrik onena".

AREDUNA.- Lehen garbitzeko area saltzen ibiltzen zena. "Aritxixoko areduna izan ete da gaur Eibarren?"

ARGALA.- Eskasa. "Gizonak, baldarra urten detsa eta bizimodu argala daroie".

ARGI! .- Erne egoteko adierazten duen interjekzioa. "Argi, or dozu ba azkena!"

ARGI ERAIÑ.- Tailerretan metalezko piezei distira eman. "Eruaizuz Sosuanera pieza onek, argi eraitzera".

ARGI-MUTILLA.- Tailerretan eta, gauzez lana egiteko erabiltzen zen kandelari eusteko beso tolesgarria. "Argi-mutilla jarrirak tornu aurrian, gaur berandura arte biarra eiñ biarko juat eta".

ARI.- Zeregina. "Ari onetan daroiat egun guztia".

ARIAPEKUA.- Erreketan lur azpitik sortzen den ura. (N) Ezkutuko gauza ere esan nahi du. "Agortzen ekinda laga eiñ biar izan genduan, ariapeko aundixa agertu jakulako". "Oiñ danian dabill ariapeko dirua".

ARITXALARIXA.- Etxetik alde egindako semea edo alaba. "Seme batak, aritxalarixa urten zetsan".

ARI-ARIXAN /ARI ARIRA.- Zerbait egiteko zorian. Gaztelerazko 'a punto de, al filo de, justamente'. "Platano azala zapaldu dau eta jausi ez da eiñ, baiña ari-arixan ibilli da" "Ari arira egon, ill edo bizi".

ARIRA.- Zehatz-mehatz. "Arira pixau biarra dauka urriak".

ARIXA(K) IXO.- Torlojo baten haria (gaztelerazko 'rosca') desegin edo apurtu. "Torloju oni arixa(k) ixo jako(z) larregi estutziakin."

ARIXETAN LOTU.- Torlojoz lotu. "Arixetan lotutakua, gogorragua ultziegaz josittakua baiño".

ARJUA.- Harrak eginda dagoen fruta. "Aurtengo sagarrak, geixenak arjua".

ARKAKOTZUA.- Arkakusoa. "Iñoiz ikusi al dozu dantzetan arkakotzu...".

ARLOTETU.- Osasun txarra dela eta, desitxuratu. Erderazko 'demejorar, degenerar'. "Oñ urrengo ikusi nebanetik ona, asko arlotetu da".

ARLOZIA.- Harlauza. "Artaitxari aindu detsaraz arlozak, txarrikortia eitteko."

ARMOZUA.- Gosaria. "Zorziretan izaten zan Eibarren armozua, eta armozutan, kafia eta esnia".

AROLA.- Arina, ez trinkoa. "Aldia eguan Ermuarretako ogi mardotik, beste labari batzuen ogi arolera".

ARRA / ARRAKIZUNA.- Neurria. Gaztelerazko 'palmo'. Gorrotoa. "A asarria izan genduanetik, betiko arra desta gizon orrek". "Berba orrek arrakizuna sortzeko bakarrik zeuen artian".

ARRAINDIXA.- Arraindegia. "Urte asko arraindixa amendik aldatu zala".

ARRAINDUNA.- Arrain saltzailea. "Arraindun kalerik kale, naiz euri eta naiz eguzki".

ARRAITXIKO /ARREBURRITXIKO.- Norbait lepoan eraman, zankabe azpitik nor bere besoak pasatuz, eta goian dagoenak samatik oratuz. "Arraitxiko eruan dau aitta zarra, botua botatzerz

ARRAIXO! / ARRAIXUA!.- Harridura edo haserrea adierazteko interjekzioak. "Arraixo madarikatua! Obeto ingo euke lotsa apur bat eukitziakin". "Arraixua! a zuan nik zuen kafian, Sanjuanetan ikusi neban gittarria".

(IT) ARRAIXUAK EZ BADITTUK!.- Interjekzioa, hartutako erabakiari edo esandakoari indarra emateko erabiltzen da. Bai horixe! "Semia ikusi ondoren, etxera, ni ...etxera! bai arraixuak ezpaitxuk!".

ARRAKA.- Umeen jolasa. Arra da neurria. Intxaurrekin lehenago, gero zapata-takoiekin (tako eta arra). "Eskolan sartu aurretik arraka eitten genduan Untzagan".

ARRAKIXA.- Aihertsua, besteenganako arra izaten duena. "Arrakixa zanetik, ez zetsen iñoiz parkatu".

ARRAMUZKADIA.- Purrustada. "Eiñ zestan arramuzkadiakin, bildurtu ninduan bizi guztirako".

ARRANUA!.- Harridura edo haserrea adierazteko interjekzioa. "Arranua! Zer diabru dok ori!"

ARRANUA.- Saia. "Gure txiki denboran, arrano asko agertzen zan Eibarko mendixetara".

ARRAPATZEN.- Umeen jolas bat. "Berrogei kontau eta arrapatzen eñ deigun afaittarako ordura arte"

ARRARIA.- Beldurrak edo hotzak eragindako ikara. Gaztelerazko 'estremecimiento'. Aurrerapena, aurrerakada. Gaztelerazko 'tirón'. Erlojuaren orratzak egiten duen aurrerakada ere esan nahi du. "Arraria eñ jata, aren zaurixa ikusitta". " Zure semiak ein dau arraria, oiñ urrengo ikusi nebanetik!" "Dibujoko eskolan, arrarian zaiñ danok urtentzeko".

ARRAUSIN.- Aharrausi, logurearen edo gosearen eraginez ahoa zabaltzen denean. "Arrausin luzia, loguria edo gosia".

ARRE!.- Astoari aurrerantz egiteko esaten zaiona. "Arre astua, ixa etxian gara ta!"

ARRIABARRA.- Harria (txingorra). Hondamena. "Arriabarra dator Elosu aldetik". "Arriabarra galanta badatorkigu zuk eñ dozunagaz".

ARRIOLARIXA.- Koldarra. Oilar eta ahari jokoetan atzera egiten duen animalia. "Soldautzatik etorri danetik arriolari aundixa eginda dago". "Baserriko ollarra, aundixa eta arriolarixa".

ARROKIA / ARROTIA.- Harroputza. "Arrokia dozu, uste barik, gatzetxu ori!" "Arroti bat zalako, ez zan eldu iñora".

ARRONKIA.- Esneak eta, egosi ondoren ontzian uzten duten arrastoa. "Esne onari igarten jako ontzixan lagatzen daben arronkatik".

ARTA-MALUTIA.- Artaburuaren azala. "Arta maluta mietzenak gordetzen ziran, takorrixa batzeko".

ARTA-URKULTZIA.- Artoa garandu. "Arta-urkultzia, unamorixuan, ipoñak esanaz..."

ARTEZ ARTEZ.- Lau lau. "Beizuko zabaletik aurrera, artez artez, edo lau lau Elgetara".

ARTEZ.- Erabatera, zuzen, zehatz-mehatz. "Esan netsanian nere asmua, erantzun zestan artez bere ezetza".

ARTIZARRA.- Venus planeta. "Bera artizarra da goizeko izarra eta arratseko izarra".

ARTO-BERUA.- Egin berri dagoen artoirinezko ogia. "Arto-berua, gozua utsik be jateko".

ARTODUNA.- Arto saltzailea. "Izan ete da gaur artoduna kale aldetik?"

ARTOLA.- Lodia, gizona esateko. Dirudienez, sasoi batean bazegoen Artolatarren bat oso lodia zena, eta hortik etorri ei da berba hau. "Amen bertan Artola, askia bere kontu daben ezker!"



ARTOMAILLASTUA.-Arto landarearen zurtoina. Gaztelerazko 'caña de maíz'. "Artomaillastua erretzen dihardue eta ako keia dagoena!".

ARTOPILLA.- Inozo samarra, oso patxaratsua. Erderazko 'pánfilo'. "Ezergatik estutzen ez dan artopilla gure morroia".

(IT) ARTO-ZATIA.- Pertsona ona, zintzoa. "Burutik anketaraiño arto-zati berinkatu bat genduan".

ARTZANA.- Antzina motxailek hartzarekin egiten zuten kantuaren izena. "Aratostietan artzana juaz, zeroien katetik, erriko gizon zatar bat".

ASA-KERTENA/AZA-KERTENA.- Astakirtena. "Kalekua izan arren, asa-kerten galanta urten dau mutill orrek".

ASABA-ETXIA.- Sortetxe, oinetxe. "Unzetatarren asba-etxia zan Kontaderukua, Eibarren".

ASE TA BETE.- Jaten guztiz aseta edo beteta geratu. "Oñ ase ta bete eñ biauagu".

ASEKIZUNA.- Jateko oparo, ugari egon. "Bazan asekizuna egun artan, Marixan tabernan".

ASMAMENA.- Irudimena. "Asmamen aundiko umia jatzu bai egixak eta bai guzurak apain ederrez janzteko".

ASPAMENTUAK.- Gorputzaren ez ohizko mugimenduak. Plantak egin. Gaztelerazko 'aspavientos'. "Aren aspamentu aundixak, geixenak plantak."

ASPERKIZUNA.- Aspertasun, gogaitasun, asperraldi. "Lana baiño latzagua, asperkizuna".

ASTA NAFARRIXA.- Nafarrerria. Erderazko 'viruela loca' izeneko gaisotasuna. "Asta nafarrixakin daukagu txikiña"

ASTAPOTRUA.- Animalien hesteekin egiten den peloten gunea. "Pelotiak zenbat eta astapotro geixago euki, orduan da gogorragua".

ASTABURUA.- "Antxiñako eskoletan, astaburua jartzen zetsen ikaslari motelenari".

ASTAKO.- Ipuinetako astoa. Astakirtena. "Gero astako agertu zan aundiki jantzitta". "Len zan astako, gaur zaldun dirua eñ dabelako".

ASTAÑA.- Astamea. "Gertau dau astaña, kalera jatxitzeko".

ASTAPUTZA.- Astoaren uzterra. Gauza baten balio eskasa adieratzeko erabiltzen den berba. Zapaltzean hauts beltza ateratzen duen perretxiko mota. "Astaputzak darixola zoian aldatz gora". "Astaputza al dok, orretara alperrik galtzeko gauzia!". "Liburuak esaten dabe, astaputz onek, jatekuak dirala gaztetan".

ASTARTU.- Jo, astindu. "Astartik alper ori!".

ASTAUSAIÑAK.- Astakeriak. "Ganberruak beti astausaiñetan agertzen dira leku guztietan".

ASTEGUN BURU ZURIXA.- Astegun normalean aparteko gauzaren bat egiten denean esateko erabiltzen da. "Soñekurik onena jantzita, astegun buru zurixan."

ASTIROTU.- Astia hartu. "Astirotu neiñian, eingo detsut karta luzia".

ASTO-BIARRAK.- Lan neketsuak. "Baserrixan asto-biar asko eitten dabe, bai gizonezkuak eta bai andrazkuak".

ASTORAU.- Nor bere onetik irten eta artega jarri. Sexu-grina piztu ere esan nahi du. "Guzurrezko kontuegaz, astorau eben erri guztia". "Maietzian, astorauta ibiltzen dira astuak".

ASTRAPALA.- Anabasa, nahasmendua. "Azken tantuan txapapera bota ebanian frontoian urten eban astrapalia, siñistu eziñekua".

ASTUNKIXA.- Astuna. "Astunkixa da zuk diñozun liburua, arrara baten irakorteko".

ASTUNKO.- Pertsona astuna. Gaitzizena, astun samarra izango zen baten bati ipinitakoa. "Astunko, Italiara juan zanian armak saltzera..."

ATE-TXINGETA.- Kisketa. "Ate-txingeta zan orduan naikua, ez zalako lapur bildurrik".

ATEGAIÑA.- Ataburua. Gaztelera 'dintel'. "Ategaiña, arri landua, eta arrilاندuan, jaban armak, jauntxo asko zalako gure aldietan".

ATERRIK.- Aterri. "Aterrik dago eta urten geinke".

ATORRIA.- Emakumezkoen alkondara. "...Ebruan be eziñ garbittu zure atorra magala".

ATSO-IPONÑAK.- Siniskera, superstizioa. "Sorgiñ iponñak, atso-iponñak, siñistu ez biarrekua".

ATSO-SORGIÑA.- Sorgina, aztia. "Atso-sorgiñ batek siñistu eraiñ zetsan, aberatsakin ezkonduko zala".

ATSOTU.- Zahartu (emakumeak). "Gazterik atsotu zan, atsuegaz burua bat eiñda bizi zalako".

ATSUA / AGURIA.- Ezkonbarritan senar-emazteek elkar gozoki izendatzeko erabili ohi dutena. "Bere gustoko gauzia daroiat nere atsuari, gaur dalako urte bete ezkondu giñala".

ATXEKIXIA.- Kexua, arrenkura. Gaztelera 'achaque'. "Atxekixia eta illetia ugari badau beronek beintzat".

ATXITXA PIPIA.- Baserritarrek erabiltzen zuten igeltsuzko pipa. "Aratostietan jantzi eban umia baserritar, atxitxa pipiagaz".

ATXURRA.- Mozkorra. "Bart ikusi neban zure laguna atxur galant batekin"

ATZAUNDIXA.- Hatzamar lodia. "Atzokola jua biar jata atzaundixan"

ATZEKO-ZULUA.- Ipurdiko zuloa. "Errezagua artara esatia onetara baiño".

ATZELARIXA.- Pelotan atzeko koadroetan jokatzen duena. Homosexuala. "Atzelarixak eutsi eta aurrelarixak tantuak eiñ". "Aurrian jokatzen badau be, ori atzelarixa da".

ATZENA.-Azkena."Auxe da neukan diruaren atzena"

ATZERA.- Berriz. "Iru edo lau bidar, atzera ekiñ biar izan dogu bizi-modua ainbeste gerrakin".

ATZIAK.-Ipurdiak."Neskame aren atziak ba eben zabaleria"

AU BAI..!.- Nahigabea adierazteko interjekzioa. "Au bai izatekua neri datorkirana..!"

AU DOK AU! .- Poza edo harridura adierazteko interjekzioa. "Au dok au izatekua, osabia ill eta aberastu".

AU-AU.- Ume hizkeran txakurra. Txakurraren zaunkaren onomatopeia. "Guazen amendik, au-au dator eta."

AUIXAK.- Poza, alaitasuna adierazteko oihuak. "Soluan bera, auixak eiñaz lau aldietara".

AUKERAN.- Eraz, egokiro. Beharbada, agian. "Aukeran etorri zara, zeure eritxixa biar gendualako, autu onetantxe". "Aukeran aunditxua daukagun etxia."

AUMAUA.- Ganbaran edo kutxetan lasto artean berde dagoela gorde ondoren, heldutako fruta. "Sagar aumauak gorderik Gabonetarako".

AUNDIÑA.- Haundiena. "Aundiña be, amar arruak artzen dabena".

AUNTZ-BIZARRAK.- Erderazko 'perilla'. "Lopetxuak zituan lau edo bost auntz-bizar okotzpian".

AUPA!.- Ume-hizkeran, jaiki. "Aupa eiñ zaitez lurretikan!".

AUPASA.- Korroskada. Erderazko 'regüeldo'. "Ogi beru onek, aupasak eraitzen destaz".

AURKI.- Laster, berehala. "Aurki naiz zuregaz, nai deizunerako".

AURTENA.- Baserri taldeetan erdikoa adierazteko. Arando-guena (goikoa), Arando-aurtena (erdikoa), Arando-barrena (behekoa).

AUSA.- Itxura, dirudienez. "Ausa danez ez da ondiokan etorri".

AUSARKIXA.- Ausarta. "Pauso ausarkixa, itxuan, nora jain barik aindutzia".

AUSIKIXA.- Hauskorra. "Mundu onetako gauza guztiak ausikixak; ezer segururik".

AUTS-EGUNA.- Hausterreguna. "Aratostetako zorakerixen ondoren, auts-eguna penitentzia ekitzeko".

AUTUA.- Gertakizuna, asuntoa, albiste. "Zuk diñozun autuan barri ointxe jakin dot".

AUTUBATZAILLIA.- Leku guztietan musturra sartzen duena, baztarretako kontu guztiak jakin nahian ibiltzen dena. "Alde guztietara eltzen zan, a gure lagun autubatzaullia, eta beti genkixan beragandik inguruetan gertatzen zan dana".

AUTX-ERRIXA.- Ondoko Plazentziari eibartarrek esaten ziotena, /tz/,/tx/ ahoskatzen zutelako. "Plazentziatarrerri, autx-errikuak esaten bagentsen, eurak, euren aldetik, xapu-errikuak esaten zeskuen eibartarriori".

AUTZ-ORRIXA.- Huntza. "Autz-orrixa, orma zarretan gora zabaltzen da...".

AUZIKORRA.- Beti auzitan dabilena. "Bere kalterako, auziokorra zan eta jan zittuan ondasun guztiak".

AUZO-ERRIXA.- Ondoko herria. "Zuena guk auzo-errixa".

AUZPAZ-GORA.- Ahoz gora. "Auzpaz gora lo eitten dau; nik eziñ dotena".

AUZPAZTU.- Ahozpez etzan, behera begira. "Eta auzpaztu zan Errege jaunaren aurrian, onek jarri zeixon ostikua lepuan gaiñian".

AXAXA.- Animaliak eta xaxatu. "Aldameneko katuari axaxa eiñ etsan".

AXPEKUETAN.- Uretan sartu eta hondoko harriarteko arrainak eskuz harrapatu. "Atxpekuetan Osintxutik Mendarora, Ferruel nausi".

AZALA.- Azalekoa, ez sakona, urria. "Entzutze aundikoa, baiña jakitze azalak".

AZALDU.- Lurpean dagoena azalera atera. "Azaldu dot lurpian ezkutauta zan urria".

AZELIÑIA.- Urtegieta eta., egon ohi den tramankulua". Barrena txikiko azeliñia, utsan urrengua".

AZI-GURENAK.- Ganglioak. "Juan zan astian, azi-gurenak euki destaz etxeo txikixenak".

AZKABIXA.-Ilea erortzea dakarren gaitz bat. "Azkabixak artu dau, eta ziero kalbotu da".

AZKAPELA.- Hatzamarrean, zauriren bat babesteko ipintzen den babesgarri bat. Gaztelerazko 'dedil'. "Atzamar puntia atiak arrapau zestanetik aragi bizixan daukat eta obe izango dot azkapelia ipintzia".

AZKARRIXA.- Pertsona edo animalia argia, bizia. "Zuk saldutako txakurrak, azkarrixa urten desta", "Mutill azkarrixa, oiñ artu doguna morroitzat".

AZKENTXO.-Kokila, adore faltagatik-edo beti atzean geratzen dena. "Beti azkentxo, gure seme koittau au".

AZOKIA.- Azoka, baina garau edo aleentzakoak bakarrik. "Santixauetako urrengo domekan, Azokia eitten zan Ermuan".

AZPIJANA.- Azpilana, satorlana, iruzurra. (N) Akatsa, zerbait kentzen zaion zatia ere bada. "Mundu erdixa bizi da azpijanian beste erdixan aurka". "Azpi-jan bat eixok orko piezari".

AZPILLDURIA.- Joskura, erderazko 'dobladillo' " Goniak azpillduria daroia barren guztian".

AZPIXANGUA.- Azpikoa. "Ainbeste urtian azpixango izan da gero, ez da erreza libre izaten ondo jakitzia".

AZTARRENA.- Aztarna, arrastoa. "Ez zan aztarrenik atara, zein zan pekatari".

AZUKRE-TONTORRA.- Azukre-koxkorra. "Iru azukre-tontor naikua dira kafiandako".

AZUKREZAUUA.- Ura gozatzeko erabiltzen den azukrezko opil antzekoa. Gaztelerazko 'azucarillo'. "Ez eban artzen urik azukrezauakin baiño".

BABALORIA.- Gaztelerazko 'amapola'. Ganora gutxikoa. "Babaloria lezkotxe neskato ederra dator zure alabia". "Ez ari izan babaloria eta eiñ eik biarra biar dan moduan!".

BADA-EZBADAKUA.- Zalantzazkoa, guztiz ona edo txarra ez dena. "Mundu au da bada-ezbadakua, ez dala ezer segururik euzkixan azpixon".

BAI ORIXE!.- Baieztapenari indar berezia emateko interjekzioa. "Egixa da esan dozun barri ori? Bai orixe!"

BAIÑABAKUA.- Akats gabekoa, hutsik gabekoa. "Artu dozun gizona baiñabakua".

BAIÑO LEN!.- Jolasetan eta, parte hartzen lehena izateko esaten dena. Gaur egun, erderazko 'primer!' erabili ohi da. "Baiño len, txandarako!"

BAIRATU.- Konbentzitu, baira ekarri. "Nekez baten, bairatu genduan aittori".

BAI ZERA!.- Norbaitek esandakoa ukatzeko erabiltzen da. Gaztelerazko 'qué va'. "Bai zera! Ez da urrik be, ez zagoz ondo!".

BAKERAKUA.- Baketsua. "Gizon bakerakua beti".

BAKOTXA.- Osagai batekoa. Bikotxa, hirukotxa... "Aritxale bakotxa, pipian itxuran".

BALDARRA.- Saskarra, traketsa. "Gizonak, baldarra urten detsa eta bizimodu argala daroie".

BALDRESA / BALDRASA.- Narrasa, janterako orduan ganora handirik gabekoa. "Nai beste diru euki arren, beti agertu zan baldresa"

BALIO!.- Olgetan eta, jolasari hasiera emateko erabiltzen dena. "Balio! Ia zeñ lenago eltzen dan erreixara".

BALTZA.- Karlistadetan, liberala. "Txapel zurixak errixan sartu baiño len, baltzak urten biar izan eben".

BALTZERAKUA.- Beltzarana. "An baserrixan, danak ziran baltzerakuak".

BALTZITTUA.- Ubeldura. "Eiñ destan atxumurkadiakin baltzittua laga desta besuan".

BALLERIA / BALLIA.- Leku batean bilduta dauden lurralde edo etxeen multzoa, bailara, auzunea. "Arrate ballia Eibarren aberatsena". Eibarko balleriak: Kiñarra, Otola, Mandiola, Gorosta, Arrate eta Agiñaga".

BANAKIA.- Aletakoa, bakana. "Bide zuzenetik, banakia; okerretik kabidu ezinda".

BANATUTAKUA.- Dibortziatua, APARTAUTAKUA. "Banatutakua da eta berriz ezkontzeko asmuetan dabil".

BANDERIA.- Emakume txoriburua, kaskarina. "Banderia urten dau arek andrakumiak".

BAPEZA.- Ezereza. "Zegozer baiño gitxiago da bapeza. Bapeza baiño geixago da zegozer".

BAPO!.- Ume hizkeran, jaten amaitzen duenean, haurrari esaten zaiona. "Bapo, dan dana jan dozu".

BARASARIA.- Anat. Diafragma. "Txarrikixa txiki txiki eiñ eta barasarian batuta labara".

BARATERUA.- Baratua kobratzen duena. "Urte askuan izan zan baraterua eta iñori parkatzen arek baratua".

BARATUA.-Frontoietan eta apustuak egiten diren lekuetan jabeak kobratzen duen zerga antzekoa. "Bola-tokixan, pelota-lekuan eta kartetan, baratua edo sarixa ordaintzen jako jabiari edo onen ordiazkuari".

BARAUTZA / BARAUTSA.- Gaztelerazko 'broca'. "Indar larregikin sakatzen dozulako, barautza apurtzen jatzu".

BARDIÑA.- Zintzoa, zentzuzkoa, erderazko 'justo'. "Alkatetzarako, gizon bardiñ baten billa gabiz".

BARIA.- Pertsona geldoa. Eguraldiari edo itsasoari bagagozkie, lasaia. "Neska ederra zan, baiña zeregiñetan baria". "Itxaso baria genduan egun artan".

BARREKIZUNA.- Gauza barregarria. "Don Kijote deritzen dan liburu baten, bada barrekizuna ondrau".

BARRENA.- Muturra, ertza, muga, amaiera. "Gona-barrena aspilduriakin jota eukan". "Mundu onetako burukomiñen barrena, eriotzia".

BARRENARIXA.- Armen kainoi barrua zuzentzen duena. "Barrenarixa zarrak diruak eiñ zittuan".

BARRENIA.- Armagintzan erabiltzen zen makina edo tramankulua, uraren indarrez mugitzen zen. "Olerriako barrena txikixan eitten eban biarra".

BARRUKO-IKARIA.- Barne emozioa. "Irakorri-geia barruko-ikariagaz amaittu neban".

BARRUKO-NAIEZA.- Barne egonezina, ondoeza. "Juan lanera eta barruko-naiezak artu nau".

BARRUKO-SIKUA.- Idorreria. Barruko-sikuakin dabill aspaldi onetan".

BARRUKO-TRISTURIA.- Malenkonía, gogorik eza. "Ardautxo bizi bat artu neban, barruko-tristuria kanpora ataratzeko".

BARRIKETA-BAKUA.- Pertsona berdina, akatsik gabekoa. "Gure morroi izandakuak, barriketa bako andria artu dau".

BARRIKETOSIA.- Berba asko egiten duena, berritsua, baina emakumea. "Gizona barriketalarixa eta andria barriketosia, badozu aspertzeko lañ auzuan".

BARRUKA.- Pelota jokua. Askoren artean jokatzen da; jendeak huts egin ahala kanpora joaten da bat geratu arte, hori izaten da irabazlea. "Arrateko elizpian makiñatxo bat bider barruka ibillittakua izan zan".

BASAKO.- Baserri usainak oraindik utzi gabe dituen. "Alperrik kalera etorri eta kalian gelditu, basako aundi bat izan zan beti".

BASARTIA.- Mendia. "Bustingorriko basartian, sosuanak nekixazen".

BASKULAGIÑA.- Eskopetagitako lanbideetariko bat. "Aranbeltz anaiak baskulagiñ onenatarikuak".

BASTIKI / BASTOKO.- Hizketan biraoak barra-barra erabiltzen dituen. "Dotoria baiña bastiki aundi bat berbetan".

BATANA.- Bot. Menda-belarraren aldakia. "Batana, ardi edo arkakotxuen kontrakua dala esaten dabe".

BATEK BADAQUI.- Ezjakintasuna adierazteko interjekzioa. Auskalo! "Batek badaki etorkizunak zer dakarkigun!".

BATERA.- Bapatean. "Onduen zala pentsatzen ebanian, batera etorri zan lurrera".

BATERAKUA.- Bapatekoa. "Baterakua izan dau Urkira eruan daben gaitza".

BATERONBAT.- Batenbat, norbait. "Bateronbatek topauko eban zuk galdu dozun eraztuna".

BATIUA.- Bataioa. "Gaur Goimendixan batiua izan da txaplio ta guzti".

BATU.- Batzutan "ekarri"ren zentzuan erabiltzen da. "Aberaskerixak batu zetsen ondamendixa."

BEARRIXA.- Etxeetan eta eraikuntzari eusten dion harri handia, oinarria. "Etxe orren bearrixari ikara eraingo detsanik".

BEDANA.- Armagintzan erabiltzen den zizel edo zulakaitz mota. Estua eta okertua. Frantseseko bec d'ane-tik ei dator.

BEDARRA.- Estua. "Onerako bidia oso bedarra; txarrerakua zabala".

BEDEKATZA.- Berakatzatza. Biak esaten dira Eibarren. "Bedekatzatza, urte guztirako lain artzen genduan ortuan".

BEGI ERRIA.- Tracoma, begietako gaitz bat. Begiak erreta dituenena. "Begi erria, lenago asko ikusten zan gatxa". "Gure gaztetan geixago ziran ume begi erriak".

BEGI LAUSUA.- Guztiz ondo ikusten ez duena. Kataratak. "Begi lausua zanetik, bardiñ artzen eban zarra zeriñ gatzia". "Begi lausua osatu gurarik dabiz gure lagunari".

BEGI-ALIAK.- Begi handiak. Gaztelerazko 'ojazos'. "Euzki biren lezkotxe begi aliak zittuan".

BEGI-ARGIXA.- Aurpegi ona. "Begi-argixa, aspaldiko partez, topau dot gaixua".

BEGI-ARTIA.- Aurpegia. "Begi-arte tristia agiri eban gaur zuen gizajuak".

BEGISTADIA.- Begirada, begiratua. "...gure aldetik begistada bat merezi izaten eztezkuela".

BEGITXANDU/ BEGITTANDU.- Iruditu. "Begitxandu jata beste bat ziñala".

BEGITXANZIÑUA/BEGITTANZIÑUA.- Irudipena. "Begitxanziño batekin astorauta dabill zoratu biarrian".

BEIÑGUAN.- Segiduan, berehala. "Osagilliak esan zetsan, beiñguan osatuko ebalatza".

BEIÑIPEIÑIAN.- Behinik behin. "Beiñipeiñian aitzen emon balesku aurretik".

BEKEKE.- Ume-hizkeran, bildotsa. "Pa eixozu bekekeri!"

BELARRI-GOGORRA.- Musikarako belarri ona ez duena. "Belarri-gogorra izan arren, beti kanturako prest".

BELARRI-GORRA.- Gorra. "Zartzara, belarri-gorra jarri da".

BELATZIA.- Bele saldoa. "Arto-saillian jatxi zan belatzia, eta baltz baltz agiri zan".

BELAUN-BURUA.- Belauna. "Belaun-burua aundituta darabit oingo egunetan".

BELU.- Berandu. Berantiarra. "Belu zan zu etorri ziñanian". "Makatz onek goiztarrak; madari a, belua".

BENDABALA.- Haize epel eta hezea. "Bendabala lakorik gauzak alperrik galtzeko".

BERATUA.- Bustia. "Beratu ederra artu dogu, eiñ daben trumoi eurixakin".



BERBAERIA.- Hizkera. "Zer berbaera dok ori nausixago batekin ganako".

BERBAKIZUNA.- Hizpidea. "Orrek autuorrek berbakizuna ipiñi dau erri guztian".

BERBAKUA / BERBADUNA.- Hitza betetzen duena. "Berbako gizona izan zan beti gure artian".

BERDERAKUA.- Kolore berdeska duena. "Erosi daben soiñekua, illun berderakua".

BEREZALIA.- Berekoa. "Semia be, berezalia, demoniua!"

BERIA-EITTEKUA.- Temosoa, setatia. "Zuen auzokua, leguna baña beria-eittekua."

BERUNAK.- Mahaiko tornuaren ahoan albo banatan ipintzen diren berunezko xaflak. "Berunak eñ biarra daukagu, eta eskatixozuz moldiak Nikanorri".

BESAKARTU.- Besarkatu. "Ainbeste urtian alkar ikusi ez, eta besakartu giñan bero eta lagunki".

BESAU.- Animaliak hezi. "Besautako txakurrekin ataratzen eban bizimodua".

BESO-BAKARRA / BESO-MOTZA.- Mantxua. "Irun pelotarixa, beso-bakarra ezagutu genduan Eibarren".

BESTERIK EZ LAKUA.- Bikaina, apartekoa. "Aurtengo San Juanak, besterik ez lakuak, jendez eta jolasez".

BETE.- Haurdun laga. "Esaten daben letz, Fraizkok andra geixa bete ei dau".

BEZEROTU.- Harpide egin. "Bezerotu naiz zure periodikora".

BIDARRIXA.- Bideetan eta errepideetan kilometroak adierazteko ipintzen diren harriak. "Mugarrixa mugetan, bidarrixa kilometro bakotxian".

BIDEGIÑA.- Aitzindiria. "Juan Batiatzaillia zan Kristuan bidegiña".

BIENKE.- Entzundakoa baiesteko. "Bienke, errezoia daukazu esan dozun guztian".

BILI-BILI.- Ume-hizkeran, ahatea. "Ikusizu, bili-bili mamatan".

BILIXA.- Ahatea, paitta. "Bilixak azteko, ur-ondua biar da".

BIREGATXA / BIRIKATXA.- Hatzamarreko gaitza. "Denbora luzian euki eban biregatxa erdiko atzaparrian".

BIRIGATXA.- Tuberkulosia. "Birigatxa, lenago sarrixago izaten zan".

BIRIXUA.- Beira. "Igarixan dabilela, birixua zapaldu eta odoletan agertu zan".

BIRLAU.- Bolari artean erabiltzen den berba. Bolak barik, txirluak batak bestea botatzen duenean. "Auk dok markia! Berrero be birlau ein jok".

BIROLIA.- Gaztelerazko 'arandela'. "Errobera oni, birolia lokatu jako".

BIRRIÑA.- Ale edo garau azalarekin egindako zahia. "Garixario ataratzen jako birriña". "Birriña erostera noia oilluendako".

BITOKIXA.- Bikoitza. "Urrak, bakarrak baiño sarrixago bitokixak etortzen dira".

BIXEN BITTARTIAN.- Bitartean. "Bixen bittartean, zeregaz biziko naiz?"

BIZARRA KENDU.- Bizarra moztu. "Orduan, zortzixan beñ bizarra kentzen zan".

BIZARTIXA.- Bizartsua. "Gaztetatik bizarti baltz bat zan".

BIZI-ALARGUNA.- Bananduta dagoen ezkontidea. "Bakotxa bere aldetik, bizi-alargun dabil".

BIZI-BIDIA / BIZIERIA / BIZI-LEGIA / BIZI-MAÑIA.- Bizimodua. "Burubidia esaten dan eraz, bizi-bidia". "Aren bizieria, alperrik goitik ibilli andiki artian, ez jata gustatzen". "Jarritta artia zaindu, or bere berrogei urteko bizi-legia". "lau olekin eiñdako txabola bAten eukan bere bizi-mañia".

BIZIMODOKUA (BIZIMODUKO ANDRIA).- Puta, emagaldua. "Gazte denporan bizimoduko andria izan zan"

BIZIRO.- Inoiz ere ez, egundo. "Biziरो ikusi beste orrenbeste".

BIZITTU.- Erderazko 'avivar'. "Sua, lenengo biztu eta gero bizittu".

BIZITZA.- Etxebizitza, ez bizia. "Zuk diñozun baserrixan, bizitza bi dira". BIZIXANA.- Minbizia, kantzerra. "Bizixanak jota ill zan".

BIZKARGI.- Lepokerra. "Arek anai bixetatik, bata jasua baiña bestia bizkargi zarpallo bat zan".

BLA.- Belarriondokaren onomatopeia. "Ezer erantzun barik, bla eta ixildu eban".

BLANKO.- Alperrea, nagia. "Arro dotoria, baiña blanko bizi guztian".

BLASTIAU.- Jo, egurtu. "Ganberro eiten ziarduan, eta blastiau eben biar eban neurrixan".

BOFADIA.- Bafada, bero edo usain txarreko aire-bolada. "Labatik urtentzen eban bofadiak, itto biar ninduan".

BOLIÑA.- Errota. "Patxi Boliñ, Bolingokua, auzixetan Lekamendikuagaz, orbel burdi batzun kontura".

BOLIUA.- Pelotan, airez jotako kolpea. "Pelotari aren abildaderik onena, boliua".

BOTARIXA.- Boto-emalea. "Nola botarixa saltzen zan, dirurik geixen emoten eban aberatsa izaten zan diputau".

(IT) BRINTXOLAUA.- Dotorea, argia. " ...soka baltzez lotutako ardi-narru zuri, brintxolauakin..".

BRINTZAK.- Ezpalak. "Eskuturra ausi eta brintzak aragixan katiau jakoz".

BRINZADIA.- Arrakala. "Brinzadia agiri dau batetik bestera ontzi onek".

BRIZ-BRIZ.- Distira adierazteko onomatopeia. "Briz-briz agiri zan Zesterokua Arraten."

BRIZT EIÑ.- Distiratu. "Urriñera, brizt eitten eban euzkittan, diamante ederra balitza letz, birixua izanakin".

BRIZT ERAIÑ.- Zerbaiti distira atera. Gaztelera 'abrillantar'. Armagintzako operazio horri ARGI ERAIÑ esaten zaio. "Brizt eraiñ netsazen oiñetakuak mutiko bati, bizarra kentzen zesten artian".

BRIZTARIA.- Dirdirapen, erderazko 'resplandor'. "Oiñaztu baten briztaria izan da".

BRO-BRO.- Irakitearen onomatopeia. "Bakillaua pill-pill, eta porruak bro-bro".

BRU-BRU.- Zurrumuruaren onomatopeia. "Bru-bru dabill erri guztian zeñ dan lapurra".

BUELTA!.- Ume-jolasetan arauak ez betetzeagatik berriro hasteko agindua. "Buelta, orretara ba ez dau balio!"

BULAR-ARRUA.- Titiaundia. "Fraille katilluakin artu ezindako bular-arrua".

BULAR BATEKO ANAIK.- Emakume berberak hazitakoak. Gaztelera 'hermanos de leche'. "Beiñ baten, Erregea eta mendiko artzaiñ bat, bular bateko anaiak ziren."

BULAR PUNTIA.- Titi punta. "Bular puntia andrazkuana; errua ganauana, bularrak eta errapia diran bezala".

BULDIA .- Haragia jateko baimena ematen zuen bula. "Barrenkalian zan, San Estebango elizan, urtero agiritutzen zan Erromako Buldia".

BURDIN-GORRIXA.- Kobre. "Arrateko aldietan, bazan burdin-gorri gei apurren bat".

BURROKA.- Mutikoen jolasa. Txorro-morro? "Burroka jarduntzen genduan Konsejupian".

BURRUAN.- Karta-joku bat. "Burruan neuk be banekixan".

BURU-AZPIRAKUA.- Almuada. "Olo-lumaz arrotuta neban nere buru-azpirakua".

BURU-BIDIA.- Patua, halabeharra. "Au da buru-bidia! Lurrian lo eitten oge bigunian jaixo nintzan au".

BURUGIÑA.- Zuhurra. Argia. Gaztelera 'calculador, discurridor'.

"Burugiña demoniua! Inork arrapauko a!"

BURUKIXA.- Almoada. "...eta artu zittuan ango arri-artetik batzuk eta eiñ eban burukixa..."

BURUTANZIÑO.- Burutapena. Eldarnioa. "Gaur goizian jaiki naizenian, burutanziñoak emon deste zuregana etortzeko". "Andra zintzua dau, baiña burutanziñoak emoten detse eta infarnu baten bizi da".

BURUTIK BERAKUA.- Meningitisa. "Burutik berakua izan biarko dok, burutik gorakorik badago, ala? (Maskuelok esaten omen zuen)".

BURUZALIA.- Berekoia. "Buruzalia gazte gaztetatik agertu zan".

BUSTAN ZIRIXA.- Inuzente Egunian jendeari, burla egite alde, atzekaldean zintzilik jartzen zitzaion buztan antzekoa. (L) Besteen atzetik beti galdezka ibiltzen denari (gaztelarazko 'pelma') ere esaten zaio. "Bustan ziri aundi bat atzian ebala juan zan auzokuari iñuzente eraittera". "Gaiñetik kendu eziñik daukat au bustan zirixa".

BUSTIÑOLA.- Teileria, buztinaz lan egiten den lekua. "Bustiñola aretan, teilla ederra ateratzen eben".

DAMU IZAN .- Damutu. "Nere bizi guztian damu izan dot eskolara juan biar eza".

DANA/GUZTIA BIARREKUA.- Erdipurdikoa. Gauza edo ekintza batek, helburua bete ez duelako, ahalegin haundiagoa eskatzen duela adierazteko. " Eiñ daben lana, dana biarrekua."

DANA-BIARRIAN.- Erdipurdi. " Zelan dago ama gaixua? Dana biarrian."

DANA-GURAKUA.- Handinahia. " Dana-gurako, ase ezindako arrapatzaille gaizto bat aren uezaba."

DANENGANDU.- Orokortu, hedatu zabaldu. "Makiñak danengandu dittue gauza asko".

DANIAN.- Leku guztietan, edonon. "Danian da bardiñ; batzuk onerakauk, beste batzuk txarrerakuak".

DARDARAZ.- Dir-dir, diz-diz. "Intxaurrako lako diamantia zeroian dardaraz bekoki erdixan".

DART EIÑ/ DART ERAIÑ.- Zerbait apurtu edo lehertzen denean. "Txamarriak dart eiñ desta atzeko aldi". "Makurtzerakuan dart eriñ zetsen prakeri".

DARTAU.- Arrakalatu, zartatu. "Ez da apurtu baiña bai dartau".

DATORKIZUNA.- Etorkizuna. "Iñok ez daki ziurrik datorkizunan barri".

DAUKANA.- Aberatsa, ondasun ugari dituen. "Daukanak ez daukanari laguntzia balitza, beste gauza bat izango litzake mundua".

DEMANDIA.- Eztatadaa gogorra, sesioa. "Demanda bizixan dagoz beti".

DEMANDALARIXA.- Demandan, sesioan, ibiltzen dena. "Demandalarixa auzoko guztiegaz"

DEMASA.- Handia, sekulakoa. "Aboziñau demasa aiz i beintzat".

DEMONIO ARRAIXUA!.- Interjekzioa. Hasarrea adierazteko erabili ohi da. "Beti lapurretan, demonio arraixua!"

DEMONIUA.- Okerra, bihurria. "Bai mutiko demoniua, baietz esan eta etorri ez!".

DEMONTRE.- Beste hitz gordinagoen ordeztuz erabiltzen den interjekzioa. "Ze demontre edo ze arraixo dok ori!".

DESBARDIÑA.- Maila berean ez dagoena; ez du diferente esan nahi. "Mai au desbardiña dago jasogarririk barik".

DESTER ARRIXA / DESTERIA.- Zorroztarria. "Dester arrixak urakin biarra eitten dau". "Desteri edo zorroztarria, Eibarko lantei guztietan".

DI DA.- Jotzearen onomatopeia. "Di da burutik bera eta lurrera konort barik".

DIABRUA.- Bihurri, okerra. "Infarnuko txikixa esaten gentsan eskolako bati, oso diabrua zalako".

DILIN DALAN.- Kanpai hotsaren onomatopeia. "Dilin dalan, kanpaien otsa bazoian zeruan ziar".

DINBI DANBA.-Mailu hotsaren onomatopeia. "Dinbi danba suteixan, gorittutako burdiña tiratu gurarik".

DINDIRRIXA.- Zintzilik egoten den mukia. "Dindirrixa ez da faltako surran puntan".

DIRUDIXAN LETZ.- Dirudienetz, itxura denez. "Dirudixan letz, aurtengo gari uzta ez da izango ugarixa".

DOLORIA.- Mina, baina ez fisikoa. "Agiñetan miñ izaten dogu; biotzian doloria".

DORNUA.- Tornua, gaztelerazko 'tornillo de banco'. "Aberastu zalakuan, lelengo eñ eban gauzia, dornua ibaira jaurti".

DRAGIA.- Frenoa. "Bildurra da, okerrerako daukagun berezkuan, dragia".

DRAMIA.- Egoera txarra, negargarria."Kinzenia galdu jokuan tabernan eta gaur be dramia dago ziur aren etxian".

DRAUNA.- Elizako kanpai nagusia, baita kanpai horrekin egiten zen deia. Onomatopeia dirudi. "Draunak bi dira kanpaitorrian".

DRI-DRA.- Gauza bat azkar egin edo erabakitzen dela adierazten duen onomatopeia. "Dri-dra, ez goiaz geixago itxaintzera, eta guazen amendik".

DROGIA.- Liskarra, eztabaida gogorra, burruka. "Bere bizi guztian droga ta abarra baiño ez eban erabili".

DROGOSUA.- Drogan ibiltzen dena. "Drogosua zan eskolan, eta bardiñ izan da gero bere bizi guztian".

DUAKUA.- Dohainik, musutruk ematen dena. "Ez eizu pentsau duakoa danik bakia".

DUANDU.- Dohainik jarri. "Eskatzen eben, ez merkatu ardaua, duandu".

DUANGUA.- Inon lepotik bizi dena, aprobetxategia. Gaztelerazko 'gorrón'. "Beti eta alde guztietan, aura duangua".

DUNDURIXUA.- Burrundada. "Belarrixan sartuta daukat ola artako dundurixua".

DZANGA-DZANGA.- Pausu handia emanaz oinez ibili. "Dzanga-dzanga ekin zetsan bidiari eta ordu erdi baiño len eldu zan gaillurrera".

EDARRIA / ERRADIA.- Uretarako balda. "Gure sukaldian zan armaillia, eta armaillan lau edarra, urez beteta Portaleko itturritik".

EDONAI.- Nonahi, edonon. "Edonai, asko balio dau amengo diruak".

EDOTARIKUA.- Edozelakoa, edozein modutakoa. "Janarixa, edotarikua izanda be, ez etsan ardura".

EDOZEIÑBESTE.- Asko, mordoa. "Zabaldu zittuan sariak esandako tokixan, eta edozeiñbeste arraiñ katiu zittuan".

EDOZENBAT.- Nahi beste. "Pagadi artan, edozenbat perretxiku batu genduzen".

EDUR-PIKORRA.- Elurra garau txikitan jausten denean. "Edur-pikorragaz ekin detsa eta edur malutiakin amaittu dau".

EDURTIXA.- Elurra egiteko joera duen parajea. "Gure aldia edurtixa da, itsasotik aldenduta dalako".

(IT) EGAZTADIA.- Hegaldia, hegada. "Erlamiño arek ez eban ein Isasiko Ollalokiak ein zeikian baiño egaztada aundixagorik".

EGAZTIXAK.- Hegan egiten duten animaliak. "Aindu detsa osagilliak, egaztixa eta arraiña, eta ortuko gauzia".

EGI BENETAN.- Bene-benetan. "Egi benetan esaten detsut alargun koittau onek, beste guztiak baiño geixago emon dabela".

EGI BERDADERUA.- Egi-egia. "Egi berdaderua autu orretan parterik ez dorana".

EGIXA.- Mendilepoa edo hegala. "Egi egixan agiri zan a baserrixa".

EGOIA.- Hego haizea. "Egoia dabillenian mendixak urriñian obeto ikusten dira".

EGOSTUA.- Azaleko erredura. "Ainbeste ibiltzekin egostuak eiñ jakoz".

EGUALDI-TXAKURRA.- Eguraldi txarra. "Egualdi-txakur onegaz ezingo gara jatxi kalera".

EGUEN ZURI.- Aratoste-osteguna. Erderazko 'jueves gordo'. "Eguen zuri egunian, umiak koko janzten ziran".

EGUNIAN EGUNIAN.- Egunero. "Egunian egunian nekatuta aurrera atara dot bizimodua".

EGURROLA.- Zerrategia, aroztegia. "Egurrolatarrak baziran Eibarren".

EGURTERA-ALDIA.- Sortaldea, ekialdea. "Egurtera-aldera begira zan Joxio baserrixa".

EGURTZA.- Egurretarako erbiltzen den basoa. Erderazko 'ejido'. "Lenago ziran errixan egurtzak, su-egurra ataratzeko auzuak, eta etxegintzarako biar zan zura".

EITZARIXA.- Ehiztaria. "Eitzarik egon ez arren inguruetan juan daneko urte askuan, eitzarixa bada ugari gure artian".

ELEMENTUA.- Badaezpadakoak, parte txarrekoak, ez oso zintzoak direnei buruz esaten da. "Ez dot nai lagun izan deizun a elementua".

EMEKIA.- Maritxua. "Alako mutil azixa eta emekia".

EMOTEN-DABENA.- Emagaldua. "Emoten-dabena dala esaten dabe gaizki gura detsenak".

ENDA.- Eta. "Enda zeñek esan detsu guzur ori?"

ENDEMAS.- Batez ere. "Ez zaittut ikusi gura, endemas eranda zatozenian".

ENE BA!.- Harridura eta ezustea ez ezik, pena ere adierazten duen interjekzioa. "Ene ba, galdu da betiko".

ENE BARATABA! / ENE BARATATXOBA!.- Interjekziook estuasuna eta etsipena adierazteko erabiltzen dira. "Ene barataba! Zer datorkigun gaiñera!" "Ene baratatxo ba! Ill biar nabe saskar onek!".

ENE!.- Harridura adierazten duen interjekzioa. "Ene! nundik ator i?"

ENPARAUA(K).- Pertsoneri gagozkielarik, lagun hurkoa, gauzei buruz, berriz, gainontzekoa esan nahi du. "Gura izan norberan buruari bezela enparauari, Ebanjelixua."

ENPAZTU.- Zorrak barkatu. "Zor guztiak enpaztu zetsazen bere egunian".

ENPEÑUA.- Polboraz egindako bola antzeko bat. Polbora hori apur bat hezea izaten zen, apurka-apurka su hartu zezan. "Elizostian enpeñua eittera goiaz".

ENTAIÑADERAK.- Torno txikia. "Entañaderak emoirazuz apur baten, torlojo buru au biribiltzeko".

(L) ENTIARRU ZIBILLA.- Norbait txikiteo gogorra egin ondoren, mozkortuta lagunek etxera eraman beharra egoten denean. "Atzo zer? Entiarru zibilla, ala?"

ENTRAMIA.- Jateko eta edateko ohi baino gogo handiagoa, sakea. "Gargantuak besteko entramia gure senidiak".

ENTZUNA.-Esanekotasuna. "Seme batek ez eukan entzunik; bestia, berriz, entzun onekua".

ENTZUNIK BAKUA / ENTZUN ONEKUA.- Esanekoa ez dena. Esanekoa. "Entzunik bako umia badogu beintzat diabru au!". "Seme oso entzun onekua gure nausiña".

EPA! / EPALA!.- Arreta eskatzeko interjekzioak. "Epa! Or dozu zezena zeuregana!". "Epala, danok oin maira!".

(IT) EPAIKIXA.- Zerra, baina metalak ebakitzekoa. "Ekarrirazu epaikixa, burdiña auxe laburtu biarra daukat eta".

(IT) EPAIKI-ETXIA.- Zerraren gaineko arku antzekoa. Gaztelerazko 'arco de sierra'. "Epaiki-etxia erosi biarra dago amengua erdi apurtuta dago ba".

EPELA.-Zerbaiti edo norbaiti aurre egiteko adorerik ez duena. "Gizon epela, ur epela bezela igoingarrixa".

EPELKERIXIA.- Ganoragabekeria. "Ganora bako epelkerixia arek eiñ dabena".

EPETAKUA.- Tabernan eta, ordaindu gabe alde egiten duenak epetakua egiten du. "Epetakuak eitten zaliak, nik dakiran batzuk".

EPETALARIXA.- Epetakua egiten duena. "Epetan sarri eiten dabinari, esaten jako epetalarixa".

ERAIÑEGUN-ANTXITIK.- Herenegun aurreko eguna. "Eraiñegun-antxitik etorri zan errira".

ERALGI.- Galbahetik pasatu. Erderazko 'cerner'. "Arto-uruna, eralgi eiñ biar da taluak eitteko".

ERASANA.- Etena. Gaztelerazko 'esguince, distensión muscular'. "Pelotan ziarduala erasana eiñ jakon eta medikura eruan biar izan eben".

ERATSI/JATSI.- Abere eme batzuei errapetik esnea atera. "Kalera aurretik, beixak biarko dittuzu eratsi".

ERATXI.- Lurrera bota, jausiarazi. "Eratxi arte emon eta obeidu esan arte egon"

ERAZO.- Aukerako izan, era izan. "Erazo badozu, agertu zaittez illuntzi aldera".

ERBI-TANTUAK.- Erbiaren lorratza, arrastoa. "Baserritar bat agertu da aitzen emoten erbi-tantuak ikusi dittuala".

ERDIRATU.- Erdira ekarri, erdira jaitsi. Urratu. "Erdiratizu pitxar ori, jausteko arriskuan dago ta". "Erdiratixozu pentsua, ia orretara liraintzen dan". Ixildu zaittez maitioni, biotza erdiratzen destazu ba orretara".

ERDU.- Zatoz, etorri zaitetz. "Erdi ona, gauza bat daukat zuretako".

ERKINA.- Argala, ahula. "Aurtengo garixak, erkinak datoz". "Gizon erkina agertu da estuasunian".



ERLA TXORTIA.- Erlakume, erderazko 'enjambre'. "Erliak urten eta erla txortia gelditu zan aritz adar baten, toki barri billa ziranak berriz agertu arte".

ERLABIXIA.- Liztorkabia, gaztelerazko 'avispero'. "Txirtxil zulua zalakuan, erlabixia zan eta estu agertu giñan erlamiñuen igesik".

ERLAMIÑO BALTZA.- Erlastarra, gaztelerazko 'abejorro'. "Erlamiño baltzak egurrian izaten dittu umiak".

ERLAMIÑUA.- Liztorra. "Erlamiñuan pikadia erliana baiño bizixaua".

ERLETXIA.- Erlategia, erderazko 'colmenar'. "Baitta Otolan be, bazan erletxia".

ERNARIA.- Enara. "Goizeko euzkixakin, ernarak ataritzen detsue jardun oso pozgarrixa".

EROSO.- Aukeran, sasoiz. Egoki. "Eroso zatoz bazkaittarako". "Eroso etorri jatzu soiñekua".

EROZENBAT/ EDOZENBAT.- Nahi beste. "Indianu horrek, erozenbat diru ekarri biar izan dau".

ERPILLA.- Zokila, mokila; lurra landu ondoren geratzen diren lur multzo gogorrak. "Famelixa guztia illaran, laixetan, erpill garratzak ataritzen dittue".

ERPILLAK JO.- Zokilak hautsi, apurtu. "Gaztiok erpill joten eiñ dogu egun guztian".

ERPIÑA.- Gaina, gailurra (zorrotza normalean). Gaztelerazko 'cúspide'. "Anbotoko gaiña, erpiña".

ERPOIA.- Erpea. "Aren erpoi zorrotza, bildurgarrixa".

ERRALDIA.- Ganaduaren pisua kalkulatzeko bost kilo t'erdi dituen neurria. Zentzu ironikoan gorputzez argalak direnei buruz esaten da. "Zenbat erralde saldu dozun biaiak?" "Erralde galanta aintzen daukagun nausixa".

ERRAMILLOTIA.- Lore sorta. "Or dabiz guztiok zelaixan, zeñek erramillote ederragua batu".

ERRAMUA/ERRAMU-ARBOLIA.- Ereinotza. "Erramu orrixak lixibiari, egosterakuan sartzen jakoz, zapixak usaiñ ederra atara deixen".

ERRAPIAK.- Pluralean erabiltzen denean, emakumearen bularrak esan nahi du. "Arek zittuan errapiak, fraille katilluagaz be eziñ oso azpixan artu".

ERRE-GALDARIA.- Tanbolina, gaztainak erretzeko tresna. "Auzuan eskatu biarko dogu erre-galdaria bixar arte".

ERREGENETAN.- Errege egunean. "Erregenetan umieri opa izaten jakue gauza asko".

ERREGIAN ARPEGIXA.- Ipurdia esateko eufemismoa. "Erregian arpegixa agiri jakon fraka apurtutik."

ERREGULAR.- Noski, jakina. "Etorriko zaraz gaur arrasaldian? Erregular, etorriko naiz".

ERREMATA.- Enkantea, erderazko 'subasta, remate'. "Urtero, errematian ataratzen ziran Arrateko maixak erromerixa egunian".

ERREME EIÑ.- Zerbaitetan gogo biziz, su ta gar jardun. "Lana eiñ erreme, baserriko kontua".

ERREMIA.- Porrokatua amorratua, sutsua. "Goittar erremia iltzeko ordura arte".

ERRENKOLADA/ERREZKADAN.- Hiladan, bata bestearen atzetik. "Piñua errenkoladan sartzen dabe".

ERREPIKIA.- Ume baten heriotza iragartzen duen kanpaikada mota. Etengabeko jarduna, hitz jarioa. "Errepikiakin eruango abe i, alperrik irurogei urtian aurrera". "Ataiko atian, auzoko guztiegaz arek darabixan errepikia geldittuko dabenik".

ERRETELLIA.- Teilatu-konponketa, teilak aldatzea. " Erretellia eiñ biarra dauka gure etxiak, ittogiñez beteta daukagu ba".

ERRETOLIKIA.- Errepikia, etengabeko hitz jarioa. "Or dago erretolika baten danon kontra".

ERREUSA.- Gai ez den gauza edo pertsona. Erderazko 'rehusar'-etik omen dator Toribiok dioenez (Plazentziko arma fabrikakoei gaizki egindako piezak onartzen ez zietenean). "Zuk batutako intxaurretatik, erdixak baiño geixago, erreusak ziran".

ERRIKO-SEMIA.- Herri batekoa izendatzeko. Batzutan ohore maila emateko ere erabiltzen da. "David Arriola erriko-semia zuan".

ERRIXUA.- Itsasoarekin bat egiten duen ibai-zatia. Erderazko 'ría, estuario'. "Ondarruko errixuan gora, Berriaturaiñok".

ERROBERUA.- Esne jaitsi berria. "Xemaikin, Mutiolan emoten eben erroberua, arrasaldeko bostetan".

ERROIBIA.- Ume hazten ari diren emakumeen bularretako gaitza. "Librau eta zortzi egunera, erroibiak artu eban".

ERROMARIA.- Ataka, hesietako ate antzekoa. "Erromaria beti itxitta laga biar izaten da".

ERRONDALARIXA.- Gau txoria, parrandan ibiltzen dena. "Gaztetan, errondalari amorratua izandakua zuen aittaita".

ERRONDAN EIÑ.- Gauean parrandan ibili. "Bart errondan eiñ dogu egunsentira arte".

ERROSARIXOKO AZURRA.- Bizkarrezurra esateko. " Eskillaretan jausi eta errosarixoko azurra ausi jako."

ERROSKADUNA.- Erroskila saltzailea. "Aurten be, Mendaroko erroskaduna agertu da Arratera".

ERTZA.- Maila, kategoria. "Artuko zenduke zuk aren ertza!"

ERTZ-BIZIXA.- Ertz zorrotza. "Alluzko atxan gaiña, ertz-bizi bat da".

ERTZ-ILLA.- Goikoaren kontrakoa, ertza biribildua denean. "Ango mendixak ertz-illak; oso biribilduta geixenak".

ERUAN-ONEKUA/TXARREKUA.- Patxadako, jasankorra. Haserrekorra. "Gerrean eta baketan, etxian eta kanpuan, eruan onekua." "Eruan-txarrekua, artu daben gizona."

ERUANZALIA.- Jasanbera. Erderazko 'tolerante'. "Idia guztietako gizonak zittuan lagun, eruanzalia zalako."

ESANGAIZTOKUA.- Esanekoa ez dena, obeditzen ez duena. Gaztelerazko 'desobediente'. "Seme zarrena beti izan da esangaiztokua".

ESAN GURAK.- Barruan gordeta daudenak esateko gogoia. Gaztelerazko 'confidencias'. "Esan gura aundixak zittuan, eta nausixa etorri balitz, ustuko eban barru guztia."

ESATEKUAK.- Kexatzeko motibuak, hartzekoak. "Esateko asko darabiz zure aurka."

ESKAPADIA.- Arrisku haundi batetik ozta-ozta ihes egin. "Eskapada makaletik urten dau uste baiño obeto."

ESKERIA.- Sasitza, sastraka. "Erbixa eskerian sartu dok eta oiñ ez dago arrapatzerik".

ESKILLARA BURUA.- Mailartea, eskilaretan izaten den laugunea edo atsedena hartzeko unea. Gaztelerazko 'descansillo'. "Eskillara buruan barriketan, lapikua erre jakue iru andreri."

ESKUARRAIÑA.- Erreumak eragindako eskuturreko mina. "Zegozer lotu biarra daukat eskuturrian, eskuarraiña darabitt eta."

ESKU-GARBIXA.- Zintzoa, prestua. "Serbitzalle esku-garbixa bialdu destazuna."

ESKUPAIÑUA.- Toalla. "Egunian egunian ipintzen dot eskupaiñu berrixa arpegixa garbitzeko lekuan."

ESNATIXA.- Lo arina daukana. "Aiñ esnatixa zan eze zaratarik txikiñakin begixak zabaltzen zittuan."

ESNE-GUENA.- Esnegaina. "Esne-guen lodixa daukan esnia onena".

ESNE-PERRETXIKUA.- Perretxiko mota bat, jatekoa izan arren jende askok pozointsutzat dauka. Erderazko 'lactarius'. "Batu dittuzun erdixak baiño geixago, esne-perretxikuak",

ESPALA.- Argala, zentzu figuratuan. "Andra koittaua, espal bat dago".

ESPARRAUA.- Esparrua, hesi batez mugatutako lur eremua. "Asuntzako esparrauan olluak azten jarri zan".

ESPARTZUA.- Estropajua. "Espartzua eta ariakin ondo igurtzitta biarko dozu garbittu ontzi ori".

ESPERA IZAN.- Espero izan. "Umia espera dau martixan erdi ingururako".

ESPIRITUA.- Alkohola. "Indeziñua artzeko espirituarekin igurtzitzen da azala".

ESTALA/ESTALKIXA.- Estaltzeko erabiltzen direnak, mantak esate baterako. "Estalki bat geixago biarko neuke oiñgo otzakin ogerako".

ESTAMANGUA.- Urdaila, estomagoa. "Estamangu zorroko garratza darabitt aspaldixan".

ESTE-SOBRIA.- Gaztelerazko 'apéndice'. "Este-sobreko miñakin dabill aspaldian".

ESTE-SOBREKUA.- Apendicitis. "Este-sobrekuakin eruan dabe ospitalera".

ESTITTU/EZTITTU.- Landareak eta arbolak txertatu. Bakunatu ere esan nahi du. "Sagarrak, madarixak, keixiak eta frutua emoten daben zugatz guztiak estittu biarra dabe gazterik".

ESTRATIA.- Baserri atarira doan bidea. "Munikolako estratia sarrittan entzun doten esakeria".

ESTULKETAN.- Eztul batean, eztulka. "Gau guztian estulketan egon naiz".

ETENA.- Hernia. "Eiñ zittuan indarrekin, etena eiñ jako".

ETETE!.- Ezeta adierazteko interjekzioa. "Etete! hori ez dok olan!".

ETORKIXA.- Jatorria. "Aren etorkixa, guria bezala, Adanerañok jasotzen dana".

ETORRIXA.- Hitz jarioa, hitzegiteko erraztasuna. "Baeban arek legejakintzailliak, berbetan ekitzen zetsanian aldi baterako etorrixa".

ETXE ALDERIA.- Etxe aldaketa. "Zenbat etxe aldera gerria ezkerro!".

ETXE KALTE.- Etxekoa aintzat hartzen ez duena, jarrera horregatik etxeari kaltea baino egiten ez diona. " Gu txikixak giñanian, Etxe Kalte esaten zetsen bat, lenago zerbait izandakua, hospittalian bizi zan."

ETXE ZULO.- Beti etxean sartuta egoten dena. "Etxe zulo, laguntzara agertzen ez dan bat dozu gizona, ezkondu dan ezkerro."

EU!.- Nahigabea, gogaitasuna adierazten duen interjekzioa. "Eu, aspertu naiz beti betiko!".

EULIMANDUA.- Mandeulia, ganaduaren inguruan ibili ohi den euli mota. "Eulimando zatar aundi bat dabill sukaldian".

EUP!.- Agurtzeko erabiltzen den interjekzioa. "Eup, etxeoandra! Inor bizi al da amen?".

EURI LANPARRA.- Euri lanbroa. "Euri lanparrakin mela-mela einda eldu giñan etxera".

EURI TRUXALAK.- Euri handiak. "Arratera juanda, euri truxalak artu dittugu gañian".

EUSKAL BARGETIA.- Goitik behera beharrea, albo batera irekitzen den brageta. "Prakak zittuan euskal bargetiarekin, kortako atia leztxe, alde batera zabaltzen zana".

EUSKAL-GAIZTUA.- Euskeraz ondo ez dakitenek erabili ohi duten hizkera mota. "Nere amak, Bitorixakua izan arren, euskal-gaizto eitten eban".

EUZKI-ALDIA / EUZKI-BEGIXA.- Egutera, leku eguzkitsua. "Gure arte estuan, Mandiola, Gorosta eta Arrate euzki-aldian". "Baserri aura, euzki begi begixan dago".

EUZKI-GALDIA.- Eguzki beroa. "Eguardiko euzki-galdatan etorri biar izan da".

EUZKIXA ATARETZEKUA.- Amona mantal gorria, marigorringo. 'Coccinela septen punctata'. "Egan jarri deigun euzkixa ataratzekua, euririk ez deixan eiñ eguen arratsaldia danetik".

EUZKIXAK PASAU.- Insolazioa izan. "Ain luzero egon biarrakin euzki begittan, euzkixak pasau eban".

EZ ORIXE!.- Ezezkoari indarra emateko interjekzioa. "Ez orixe, ez gara joango ezertara be!".

EZARRIXA.- Sukarra duena. "Lagun gaixua ikusten izan gara eta ezarrixa topau dogu".

EZEIÑDU.- Desegin. "Gau baten ezeiñdu eben urte askoko lana".

EZEREZDAKUA.- Pobrea, txiroa, ezer ez duena. "Zorionekuak ezerezdakuok, Jaungoikuan erregetasuneko bizitza zuena dalako".

EZERTARA / EZERTARA BEZ.- Inola ere ez. "Ezertara bez genduke laga biar galtzen geure izketia".

EZETSI.- Ukatu, ezetz esan. "Bestiak beiñ eta berriro eskatu arren, ezetsi eiñ eban".

EZEZAGUTU.- Norbaiti ezikusiarena egin. "Urreratu nintzarian, ezezagutu eiñ ninduan".

EZIÑ ESANA.- Hitz totela izan. "Eziñ esana eukan eskolara aurretik".

EZJAKIÑIAN.- Jakin gabe. "Ezjakiñian eiñdako okerrak, ez dau pekatu rik".

EZKATU/ESKATU.- Askatu. "Ezkatu guran korapillua, aundixagua laga eban".

EZKERRERAKUA.- Ezkertiarra. "Bere bizi guztian izan zan ezkerrerakua".

EZKUTUKA.- Kubika, ume jolasa. Gaztelerazko 'a escondites'. "eskolako umiak giñanian ezkutuka ibiltzen giñan jolasian".

EZMENA.- Ezetza, ezezkoa. "Lelengo emon zetsan baimena, eta gero ezmena".

EZPATA-JOKUA.- Ezpataz eginiko borroka, duelua. "Gazte askorik, ezpata-jokuan ill eban lagun batek, andrakume bat zala ta ez zala."

EZTIMIÑETAN.- Gozaro, gozoki. "Ezkondu danetik eztimiñetan dago".

FAFUA.- Oturuntza. "Gaur gabian, fafua dogu Badetenian, ogei lagunek".

FAMAU.- Goraipatu. "Ardau zuri au, famatzen dabe aittuak".

FANFARRERIXIA.- Harrokeria. "Fanfarrerixia ugari erabiltzen dau beintzat tabernan".

FARDELA.- Arlotea, narrasa. "Fardel aundi bat eiñda agertu da gurasuetara".

FARRA FARRA.- Erruz, ugari. "Farra farra darabill dirua, ez dakigu noiz arte".

FARRASTADIA.- Igerian ematen den besakada. "Igarixan, farrastada luzia eban".

Farria

Zurkaitza, landaren euskarrizat zutunik ipintzen den makila. Farria biar da abar askokua.

FIESTAKUA.- Txantxetakoa. "Erebixen asarre guztia, uste alkar jan biar ebela, eta fiestakua".

FIRIN DA FARAN.- Zeregin ezean ibili. "Biar barik dagoenetik firin da faran dabill egun guztian".

FIXT.- Bapateko ihesaren onomatopeia. "Jabia tabernan sartu zanian, txakurrak fixt! ospa eiñ etsan".

FLOTA.- Intsus-adarrarekin egindako jostailua . Trapu edo paper bolatxoak jaurtitzeko erabiltzen zen. "Eskolako gaiztuak, flotakin jaurtzen zetsan maixuari kokotera".

FORTIZA.- Bortitza. "Patxar au fortiza da".

FOTA.- Gosarian jaten zen ogi-opila. "Fotak ziran txakur txikikuak eta txakur aundikuak".

FRAILLE KATILLUA.- Katilu mota bat, normala baino handiagoa. "Fraille katilluan kafia eta esnia sopekin, aren barau austia".

FRAILLIA.- Frontoian edo trinketean orma biek egiten duten angeluan egoten den txokoa. "Fraillian jotako pelotia, ezin izan eban errestau".

FRANKEZIA.- Zintzotasuna. "Frankeza aundixakin erantzun detsa".

FRANKO.- Asko, ugari, mordoia. Eskuzabala, zintzoa. "Franko ibilli da dirua gaurko iri proban". "Suiña ei dau gizon frankua".

FRANTXULETA.- Txirula edo flauta mota bat. "Frantxuletakin jotzen zittuan soinu edergarrixak".

FRIZKUA.- Mertzika, erderazko 'albéchigo'. "Gure ortuko frizkuak, loran dagoz".

FRIZTIXIA.- Piztia, basa animalia. "Fritzixarik bildurgarrixena dala, esaten dabe, gizona gosiak".

FUERAKA.- Pelotan taldean egiten denean. Kale egiten duena kanpora joaten da. "Fueraka Kontsejupian, Joakin Aguazilla jatxi arte".

FURIXADIA.- Moda, puri-purian egotea. "Gauziari etorri jakon furixadiakin, txapel guztiak saldu dittu".

FURRUZTADIA.- Modu txarrean emandako erantzuna. "Eiñ zestan furrutzadiakin zurkaxtu eban bere biziko onduen".

GABILLARIA.- Gabiraia, hegazti harrapakari bat. Gaztelerazko 'gavilán'. "Gabillariak, esaten dabe, abixa inguruan ez dabela txitxarrik ostutzen".

GABERDI ZARRAK.- Gau beranduan. "Gaberdi zarretan erretiru barik ibiltzen den errondalari amorratua izan zan ori gazte denporan".

GABON SARIXA.- Agilandoa, erderazko 'aguinaldo'. "Morroiandako gabon sarixa, bakillaua lepora".

GAIZKI-GURAK.- Inorenganako borondate txarra. "Alkarri dittugun gaizki-gurak, sortzen dittue munduko okerrik geixenak".

GAITXIZENA/GATXIZENA.- Gaitzizena, izengoitia, ezizena. "Eibarren beste gaitxizen, ez da erreza beste erri baten".

GAIZTO USAIÑAK.- Gaiztakeriak, okerkeriak. "Eskolan eta eskolatik kanpora, gaizto usaiñetan dabill beti".

GALBAIA.- Alperra. "Mutill ori galbai osua dozu".

GALDAU.- Sutan gorituta jarriz bi burdina zati bat egin. "Errementarixari eruan biarko detsazuz zati bixak galdatzeko".

GALDIA.- Gorria. Normalean eguzkiaren berotasuna adierazteko erabiltzen da. "Eguerdiko euzki galdia artu genduan Elosura eldu baiño len".

GALIKARAK/ (N) GALIKUAK.- Gaitz benereoa, purgazioak. Gaztelerazko "chancro blando". "Arek euki zittuan galikuak arek!".

GALOPAN.- Azkar, arin. Gaztelerazko 'al galope'. "Entzun eta galopan etorri da, bertan bera dana lagata".

GALTZAIRUA.- Altzairua. Burdinari karbonoa gehituz lortzen da. "Galtzairua baiño gogorragua aren biotza".

GANBELUA.- Altua, kankailua, gangarra. "Ikusi al dozu emen mutill ganbelu bat?"

GANGAILLUA.- Oso handia, neurri gabekoa. "Ezezagun gangallu batek, aintzaille eiñ gura eban".

GANGARRA.- Saskarra, tentela. "Mutill gangar batek, naitta apurtu desta pitxarra".

GANTXILLA.- Txongila, pegarra. Gaztelerazko 'botijo'. "Lanteixetan, pitxarra baiño obe da gantxilla".

GARAUUA.- Handia zentzu figuratuan. "Fritzixa garauak bildurtu ninduan, benetan izugarrixa zalako".

GARAUTEIXA.- Garaia, erderazko 'hórreo'. "...ez dabe garauteixan gordetzerik..".

GARBATU.- Damutu. "Buruan ulerik aiña bidar garbatu jako, orduan emon eban pausua".

GARGAJUA.- Gorroa, karkaixa. "Ogorlokuak lezkotxe gargajuak jaurtzen zittuan".

GARRATZA.- Handia, ederra. "Familixa garratza azi dau, bera bakarrik irabazten izan arren".

GARROTILLUA.- Difteria. "Garrotilluak jota ill zan gazterik".

GASTAIÑA LOKOTZA.- Gaztaina biltzen duen azal arantzatsua. "Gastaña lokotza lezkotxe ikutu eziñdako zittal bat eiñda dago aspaldi onetan gure uezaba".

GATZ LARRIXA.- Arraina eta, gatzetan ipintzeko erabiltzen den gatz lodia. "Gatzagatik gatz larrixa Debara arraiñandako".

GATZ ZEIA.- Mahairako gatza. "Gatz zeia ipiñizu maixan".

GAU BALTZA.- Ilargirik gabeko gau iluna. "Otsuan aua baiño gau baltzagua zan, eta itsuan genbizen lastasauak amaituta".

GAU GUZTIKUA.- Gau osoa irauten duen parranda, gaupasa. "Atzo, Katillunian, gau guztikua eiñ dogu lagunok".

GAU ZURIXA.- Ilargi beteko gau argia. "Ama ilargixan gau zurixetan eitten zittuen euren adoraziñuak".

GAUZA DABENA / GAUZA EZ DABENA.- Zeozertarako balio duena, gauza dena. Ezertarako balio ez duena, gauza ez dena. "Gauza dabena da erreusetara bota dozun piezia" "Gauza ez daben gizon baten billa zan arriskura bialtzeko".

GAUZAK.- Hilerokoa. "Andrakumiari gauzak illian beiñ etortzen jakoz".

GAZTAIA.- Burua, zentzu figuratuan. "Arek daukan gaztaia! Iratargixa jirurik!".



GERUNA.- Begietako gaitza, lausoa. Gaztelerazko 'catarata'. "Beti ezagutu detsaraz gerunak begixetan".

GEZALA.- Itsasadarreko ur geza. "Berriatun gezala, Ondarruan kresala".

GIBELAUNDIXA.- Patxada haundikoa. "A lako gibelaundirik ez dot ezagutu bizixan".

GIRAPUA.- Hegaztien barruak, arandoia. Erderazko 'molleja'. "Girapua eta egaztixan barruak ipiñizuz piparrekin".

GIRGILLUAK.- Gerri bueltako gizenak. Normalean umeez eukitzen dituztenak adierazteko erabiltzen da berba hau. Erderazko 'michelines'. "Girgillo utsak zan aren lepua".

GIZATUA.- Gizontze bidean dagoen mutil gaztea, mutikotea. "Gizato galanta eñ jatzu semia".

GLU-GLU.- Edatean ateratzen den hotsaren onomatopeia. "Pitxarra jaso eta glu-glu, aldi baten ustu eban".

GOBAITT EIÑ.- Aspertu. "Amen nago aldi baten gobaitt eñ biarran".

GOGORTU / INDARTU.- Sendatu. "Izan eban gaitzan ondoren, oso gogortu zan". "Indartu zara atzera be".

GOGOTIXA / GOGOTSUA.- Jatuna. "Baserritarra, esan biarrik ez, gogotixa. "Gogotsua bai jaten eta bai eraten".

GOGUAN ARTU / EUKI.- Gogoratu. Kontutan hartu. "Goguan dauka zure asarria, arrezkero urte asko joan arren". "Goguan ondo artizu esatera noiana".

GOI ARGÍ / GOI GARBI.- Egun garbia, oskarbi. "Eguna zabaldu ezkerik dago goi argi". "Goi garbi ederragaz eguna zabaldu dau".

GOIBEL.- Eguraldi lainotua. Eibarren gehiago erabiltzen da oriatua. "Goibel edo odiatu dago gaur egun guztian".

GOITTIBERIA.- Umeen jostailua. Hiru oholez egindako triangelu egitura du. Hiru gurgpil (normalian rodamientoak edo kojineteak) ditu, bata aurrean eta beste biak atzean. Aurreko ardatza mugikorra da eta hankekin eragiten zaio direkzioa aldatzeko. Aldapak jaisteko erabiltzen da. Lauan baten batek bultza egin behar du.

GOIZ ABARRA.- Egunsentia. "Goiz abarran urten genduan eitzan eñaz perretxikutara".

GOIZETIK GABERA.- Bapatean, azkar. "Goizetik gabera aberastu zan." Ordena gazteleraren kontrakoa da. "De la noche a la mañana."

GONETAN.- Umeez gona janzten duten sasoia. "Gure umia atzo arte ojaltetan; gaur gonetan eta beriala ipiñiko dogu fraketan".

GORAKO LARRIXAK.- Gonbitu larria. "Ikustiaz batera, gorako larrixak emon deste".

GORBIXA.- Lodia, guria, sasoikoa. "Gizon gorbixa dago, eitten daben lan guztiagaz".

GORDIÑA.- Sasoi betekoa. "Zure senarra, gizon gordiña dago ondiokan".

GORRIÑA.- Landareek izaten duten gaitza. "Aurten garixak gorriña dakarre".

GORRIZKA/GORRIXKARA.-.- Gorri antzekoa. Gaztelerazko 'rojizo'. "Teilla-perretxikuak gaiña gorrizkia izaten dau".

GORTIXA.- Gorra, gorraizea daukana. "Gortixa baiña berorri komeni jakonian".

GOSE-PASAU.- Gosea dagoenean, garaiz ez jateagatik izaten den makalaldia, gogorik eza. "Eibarren gose-pasaua txarra da esaten bada, Plaentzian, esanaixa aldatu eta, gose pasaua ona da, jan da gero, esaten dabe".

GOSEZTO.- Beti gose dagoena. "Gosezto aundi bat da zure laguna".

GOSIAK PASAU.- Goseak hilda egon. "Gosiak pasauta nago berbia amatau jatala".

GOZARO.- Era gozoan, eztiki. "Gozaro, ondo esanaz, itxuli eben etxera".

GRANUJIA.- Mutil koskorra. Ez dauka zentzu peioratiborik. "Zure granujia bialdirazu, emon deixorazen sagar batzuk".

GUENA/GURENA.- Muga, ertza. Baserri taldeetan, gorengoa. "Legorren guena, Finis-terrae esaten dan lekua".

GURENA.- Esnegaina. "Basarriko esniak bestiak baiño guren lodixagua eukitzen dau".

GUREZA.- Gogorik eza. "Argittu jako deskun gureza".

GUZTIRO.- Erabat, guztiz. "Guztiro jan dogu, maira atera dozun dana".

GURIXA.- Lodia, gizona. Gaztelerazko 'rollizo'. Koipetsua, gaztelerazko 'gelatinoso' ere esan nahi du. "Ume txikiña guri-gurixa dago". "Gaur txarrikume gurixa jan biar dogu".

GURRUTXELA.- Elizetako hilobiak estaltzeko erabiltzen ziren mantei edo estalkiei hala esaten zitzairen 1790 urtean, Gregorio de Mugicak bere Monografian dioenez.

GUZUR ANPORRA.- Gezur galanta. "Aren guzur anporrak sinistuko dittuanik...".

IBILLGONIA.- Kalera ateratzeko emkumeek janzen duten gona. Zentzu figuratuan beti kalean ibiltzen den emakumea esan nahi du. Gaztelerazko 'trotcalles'. "Etxeratu ezindako ibill-gona gangar bat einda dago".

IDEKUA.- Antzekoa. Adin berekoa. "Zure semia eta nere anaia, idekuak jua da etorri guztietarako". "Orrek bixak idekuak dira, eskolan be alkarregaz ibilli ziran".

IE!.- Zamariak xaxatzeko agindua. "Lotan be, ie! manduari, Elgeta errekadistiak".

IFAR-LAUSUAK.- Hodei mota. Erderazko 'cirro'. "Ifar-lausuak agiri dira Arrate aldetik".

IGABERIA.- Uretan ibiltzen den ugaztuna. Urtxakurra ere esaten zaio. Erderazko 'nutria'. "Gu gaztiak giñala ill eben Errebaleko zubipian gure errekako azkenengo igaberia".

IJADIA.- Arrainaren erdiko aldea. "Atunan ijadia erreta, onena".

IJO.- Eho, garauak birrindu. "Artu kaferrotia ta ijo kafia".

ILLINTXIXA / IRINTZIXA.- Ilentia, erabat erre gabeko egur zatia. Erderazko 'tizón'. "Illintxixa kafe lapikuan sartzia oitutzen zan...".

IMILLAUNA.- Garauak eta, pixatzeko neurria. "Imillaunka jaten zittuen babak aren etxian".

IMIÑIA.- Garauak pisatzeko neurria. Imillauna = imiñiaren laurdena. "Imiña bat gaztaña ipiñi eben afaittarako".

IMUTXA.- Etxe zaharretan eta oheetan egoten diren intsektuak. Gaztelerazko 'chinche'. "Geittu ziran imutxak bezela eta berriz bete eben lur gaiña".

INBRIZKIA.- Erauntsia, euri handia. "Aize, txingor eta inbrizka artera, betiko zuregaz bizi izatera".

INFARNU BIZIXA.- Egoera latza adierazteko metafora. "Etxekalte arek, infarnu bizixa bere emazte koittauari".

INFRAÑUA.- Infernua. "Gaurko beruakin infrañuan freskuago egongo giñake".

INFRAÑUKO PATXI.- Deabrua. "Atxi! Atxi! Infrañuko Patxi!".

INGIRAU.- Egoera batean nor bere buruarekin konpondu. "Or konpon! Oiñ eu ingirau ari al duan bezela".

INKILLAUTA.- Zerbaitez josita. Gaztelerazko 'plagado'. "Erropak esegitteko alanbria txoriz inkillauta eguan"

INTXAUR MOSKARANAK/MOSKORONAK.- Intxaur azalak isurtzen duen likidoak lagatako mantxa. "Intxaur moskoronak esaten eben intxaur lapurretan ibiltzen giñana".

INTXAURRA.- Txapliguen detonadorea. "Txapliuan intxaurrak eskuetan errementau zetsan".

IÑONA.- Besteena. Erderazko 'ajeno'. "Iñona, norberana beziñ ondo edo obeto gorde biar da".

IÑUNDO.- Inon ere ez. "Gaur atara dogun arraiña, iñundo ezagutu ez dana".

IPIAPA.- Goitik behera, zehatz-mehatz. Erderaz 'de pe a pa'. " Ipiapa, ekixen guztia esan zetsan."

IPURGARBITZAILLIA.- Lausengutan ibili ohi dena. " Leguntzallia zala esango dot, ez esatiarren ipurgarbitzallia, berba zatarra danetik."

IPUR-LOKIA.- Buruarina, kaskarina. Gaztelerazko 'culo de mal asiento'. "Ipurloka bat zan iñun iraun ezindakua."

IRABOLIKA.- Porlan hidraulikoa. "Irabolikiakin bete dabe ormako zulua".

IRA(G)0/IRAGOTU.- Altzairu tenplatuari ematen zaion tratamendu termikoa, tenpleak eman dion gogortasuna neutraltzeko gehienetan. Lotsatu, gorritu ere esan nahi du. "Iragotizu apur bat geixago gubil-zabal au". "Esan zetsazen berbekin iragotuta laga eban".

IRALGI.- Eralgi, galbahetik pasatu. "Iralgi biar izaten da galbaixan arto-uruna, taluak eitteko".

IRATAIXA.- Igitai. "Aritxuluetanian saltzen ziran irataixak, beñ garixak burutu ezker".

IRAULDU.- Eho. "Goiko basarriko errotan ainbat zakukada gari irauldu dabe gaur goizian".

IRIZILLA.- Zigorra. "Erderazko 'vergajo, látigo'. "Asko dira esaten dabenak, irizilla biar dala... bestientzat".

IRRARIA / (N) IRLARIA.- Txorien kantua. "Gure txorixak jotzen dittuan irrarak goizaldian entzutekuak dira".

IRUEIÑ.- Irun, irutan egin. Erderazko 'hilar'. "Aztu ziran irueiñ eta irueiñak gu gaztiak giñanerako".

IRUIÑ.- Sokagilea. Erderazko 'cordelero'. "Iruñ erdeldun bat, Txantxa Zelaixan sokagintzan eiten ebana".

IRULEIÑ.- Txirikordak egin. Gaztelerazko 'trenzar'. "Iruleiñ uliegaz, kopetia ataratzeko".

IRURIXA.- Ikatz hautsa. Gaztelerazko 'cisco'. "Iurixia jirau biarra dogu, pabonua eitteko".

IRUSTA.- Sekula belarra. Gaztelerazko 'trébol'. "Irusta gure amandriagandiko abizena gure aittak".

IRUTXURRA.- Txokoa, hiru planok egiten duten angelua. Iruzurra. "Irutxur baten ezkutau zan, etsaieri igesik". "Gaurko jokuan, irutxurra bis-bistan egon da".

ISLIA.- Hodeiertzaren argitasuna. "Islia agirixan biarra eittia, ez zala ona esten eben zarrak".

ISO!.- Astoari gelditzeko agindua. "Iso, astua, eldu gara errotara eta!".

ISTAR/IZTAR LENGUSUA.- Bi pertsona iztar lehengusuak dira bien gurasoak elkarren artean neba-arrebak direnean. Gaztelerazko 'primo hermano'. "Bixen aittak anaiak ziranetik eurak istar-lengusuak".

ISTARRIXA/IZTARRIXA ZERRAU.- Eztarria urratu, itxi, 'afonia' izan. "Ainbeste orruagaz, istarrixaz zerrau jata".

ITURRIXA.- Hitz jarioa. "Iturrixaz berbetan asi ezker".

ITXARIXA / ITZARIXA.- Ehiztaria. "Kazarixaz esatia itzarixaz, itzarixaz edo eitzarixan ordez, ointsukua izan biar dau".

ITXOMENA.- Oso barregarria, barrea eragiten duena; gauza edo pertsona ere izan daiteke. "Lagun artian, itxomena da a gizona".

ITXULAN EIÑ.- Iturrean egin. "Mutikua, naikua dogu itxularako".

ITXULITTARA / ITXULITTIK.- Itzulitara, iduleztara. Erderazko 'del revés'. "Itxulittara jantzi dittu galtzak".

ITXUZKIXA.- Erratza. "Itxuzkixaz, kiñarra abarrekin eiñdako erratza".

IXIL POLTSIA.- Norberarentzat apurka-apurka gordetzen den dirua. "Txomo zarran andriak, ixil poltsiak etxia eiñ eban".

IXU-EGUNA.- Zapatu Santua. Etxeetan su berria egiten zen elizatik ateratako ixuekin. "Ixu-Eguna danetik, su barrixagaz ixotu dogu gaur sua".

IXUA.- Neska-mutikoen Zapatu Santuko elizkizunaren ondoren egoten zen sutik hartzen zuten ilentia. "Ixuakin, su barrixaz eruatzen senidietara izan naiz".

IZAR-GELDIXA.- Iparizarra. Erderazko 'estrella polar'. "Itxasuan, izar-geldixak erakusten dau bidia".

IZARDI LARRIXA.- Sukarrak edo beldurrak eragindako izerdia. Erderazko 'sudor frío'. "Lelengo otzikaria eta gero izardi-larrixaz etorri jata".

IZARRATU.- Gau izartsua. "Zeru izarratua edertasuna!".

IZKO NAFARRA.- Korridetarako zezanak. "Ez Lasturko zezentxuak, izko nafarrak tentatzen zittuan, plaza erdixan, jakiagaz".

IZIPUA.- Igeltseruen brotxa. "Izipuakin zuritu eben ormia".

IZKOTU.- Behia ernalduta. "Gure beixaz gaur daroiagu izkotutzero".

IZOTZ BALTZA.- Izotz berantiarra. "Bart, izotz baltza, izan leikian txarrena baserrirako".

IZPITU.- Gauza bat izpitan, haritan, zatitu. "Zurrukutuna eitteko, bakillaua izpitu biar izaten da".

IZURRA.- Erropetako tolesdura. Erderazko 'frunce'. "Arratixako neskatillak, dana izurrezko gona urdiña erromerixarako".

JAIXA.- Jasa, bizitasuna. Erderazko 'garbo'. "Ikusizu zerlako jaixaz daroian zure albiak".

JAKIN BIARRA.- Jakinmina. "Gazterik, gauza guztien jakin biarra atera eban".

JAKIN-MAIÑIA.- Zerbaitetarako trebetasuna, abilezia. "Gauza guztiak dabe euren jakin-mañia".

JAN-TXAKURRA.- Ezer berezirako prestatuta ez dagoen txakurra. Gaztelerazko 'perro de lujo'. Inoren lepotik dabilenari esaten zaio. "Oin artu daben txakurrak ez du ezertarako balio, jan-txakurra da". "Jan-txakur lotsagarri bat zan a gizona."

JAN JAN.- Asko, neurririk gabe jan. "Eguardixan, jan jan babak eta kitto egun guztirako".

JANTZITASUNA / JANTZIXA.- Laguntza, laguntasuna, zentzu figuratuan. "Azi dittuanian umiok, jantzittasun aundixa artu dau". "Artu daben gizonan jantzixagaz, ez da elduko urriñ".

JARDUN.- Marmarrean, norbaiti buruz txarto esaka ibili. "Aren faltarik aundiña: jardun biarra".

JARKI.- Oldartu, norbaiti aurre egin. Zerbaitetara egin, ohitu. "Ori entzunaz, jarki jatan jan biar banindu bezela". "Astua makillara leztxe, jarki da zure orruetara".

JARKIXA.- Zakarkeria, destaina. Gaztelerazko 'desplante'. "Ez jata ondo jausi kaka-ume aren jarkixa".

JASEUS/JASUS!.- Jesus, interjekzioan. "Jasus, kosta jata zeuek arrapatzia!".

JATORDU BAKUA.- Otorduak desorduan egiten dituen. "Gure mutilla, jatordu bakua, beti maixa jaso ta gero agertzen da".

JAUNGOIKUAN IZENIAN.-Esandakoari indarra emateko interjekzioa. "Jaungoikuan izenian ez zaittez agertu a dagon lekura!?"

JAUNKIXA.- Goikoekin lausengutan, koipekerietan, zurikerietan ibili ohi dena. "Gizon jaunkixa, leguna goikuegaz eta gogorra azpikuentzat".

JEA!.- Zezena xaxatzeko erabiltzen den interjekzioa. "Jea, jea, Tolosaldera! / arrapatzen bazaittut..."

JEFIA.- Nagusia, baina estaziokoa edo poliziakoa denean. "Jatsi eta estaziñoko jefiagana kejau zan".

JENDERIA.- Jendea. Batzutan jendilaje zentzua ere badu. "Jendera zurixa erri artan". "Ango jenderia lakorik ez iñun".

JERIA.- Abegia, harrera ona. "Gaur eiñ destan jeria, bestetan baiño asko obia".

JEUP!.- Etxe barrukoei deitzeko interjekzioa. "Jeup!, iñor ba al da amen?".

JIBIXIA.- Txipiroia. "Jibixa txiki txikixak daukaguz afaitarako".

JIRAU.- Lortu. "Zela edo ala, jiratzen genduan ez iltzeko beste".

JIRIA.- Ingurua. (R)Egoera, ganora. Zerbaiten gestioa. "Soluan jiria, uste genduan baiño luziagua agertu da, beiñ neurtu ezkerik". "Hau dok jiria!". "Alperrikua gaur atzera ta aurrera eñ doten jiria".

JITXIA.- Jitea edo joera, normalean txarra. "Ez da onerakua, gauziak dakarren jitxia".

JOKO BERUA.- Tartean diru asko dagoen jokoa. "Joko berua arek darabixana."

JOKO ESTUA.- Egoera zaila, larria. "Joko estua aren jornalakin umiak aztia."

JOXE KASTIA / KASTA ARRAIXUA.- Ijitoak edo motxailak izendatzeko. "Joxe kasta arraixua!".

JUZGO-TXARRA.- Norbaitenganako aurreiritzi okerra. "Sarrittan, juzgo txar bategaz galdu geinke gizona".

JULIANDIA/KULIANDIA.- Eskopeten kulatak eitteko egur zatia, normalean intxaurra. "Juliandiak, ona izatera diru asko balixo izaten dau".

JUNGURIA.- Ingudea, gainean metaleak kolpeka lantzeko burdina zati lodia. "Batzuetan maillo eta beste batzuetan jungura eñ biar izaten da munduan".

KAFIA TA ESNIA.- Eibarren horrela esaten da. "Eibarko gosarixa, kafia ta esnia zortziretan".

KAIKO MOSOLUA/MOZOLUA.- Leloa, tentela. "Kaiko mosolo galanta zuen semia".

KAIÑADIA.- Bernezurra. Erderazko 'tibia'. "Mugan bera jauzi eta kañadia ausi eban".

KAIÑOZULUA.- Isurbidea, ura isurtzeko zuloa. Erderazko 'sumidero'. "Kañozulora jauzi jakon eraztuna".

KAJETOLA.- Gabonetan, gozotegiek prestatzen zituzten egurrezko membrilo kajak. "Zer gabon sari emon dotxue? Kajetola".

KAKA ZARRA!.- Kaka!, haserrea adierazteko interjekzioa indartzeko. "Kaka zarra! Ostera be jauzi naiz lokatzatan".

KAKA!.- Haserrea adierazteko interjekzioa. "Kaka, alperrik galdu juat oingua be!".

KAKANARRUA.- Pertsona txikia. "Bildur giñan zeñ ikusi biar ete genduan, eta agertu zan kakanarru bat".

KAKATSUA / KAKIA.- Zeregin gogaikarria, nazkagarria. "Biar kakatsua eta irabazi laburrekua, oiñguan etorri jatana". "Zeregiñ kaka, pitxoikuan kaxan, atakadore zulua eittia".

KAKAUMIA.- Haur txikia. "Gaurko egunian, erozeñ kakaumek jaukaz irurogei urte".

KAKULARIXA.- Beti arazoetan sartuta dabilena. "Bata zan kakularixa, eta bestiak aterik aiña maratilla".

KAKUTSA.- Hutsaren hurrengo. "Onutsa, onutsa, kakutsa".

**KALAMATRIKIA.**- Maltzurkeriaz eta amarruz esandakoari edo egindakoari buruz esan ohi da. Erderazko 'gramática parda'. "Kalamatrikako maistria zonan a, gure azuzoko durangoarra".

**KALDERRA.**- Zekena. "Kedarra be ez leuke emongo kalder orrek".

**KALE-BATZIA.**- Zerbaiten alde kalean egiten den diru batzea. "Lagun-arteko gaztiak, gaur kale-batzia dabe, itsasuan galdu diranen famelixen alde".

**KALEKUMIA.**- Kaletarra, baserrikoa ez dena. "Onek kalekumiok tomatia arbolan azten dala uste dabe".

**KAMADARRAK.**- Ohearen atzeko eta aurreko hagak. "Kamadarrak eskatu biarko destazuz, ikusi bat emoteko, ia imutxarik agiri daben".

**KANDELERIXO.**- Kandelaria eguna. "Kandelarixo egun baten izan zan a ipoña"

**KANKAIXUA / KANKAILLUA.**- Pertsona handia eta baldarra. "Zuen auzoko gizon kankaixuak beti eitten desta agur irribarrez". "Ez dakitt nundik etorritako kankallua jarri zan aintzen".

**KANPO-LARROSIA.**- Kanpokoenganako itxura ona ematen duena, etxean, ordea, itxura hori guztiz bestelakoa izaten da. "Kanpolarrosa, etxekardo". "Etxeko laratzak ezagutzen zaittu zu be, kanpo-larrosiori!".

**KANTULARIXA.**- Kantaria. "Kantulari eitten eban erromerixetan, dantzalekuetan".

**KARABIXIA.**- Karobia, karea egiteko labea. "Nola kare-arrixa dan geixena gure mendixetan, kaabixak ziran ugari".

**KARAKOTIA.**- Kakoa. Erderazko 'gancho'. "Karakote batekin jatxi eban adarra okaranez betetakua".

**KARATXO!.**- Nahigabea adierazteko edo zeozerk txarto irteten duenean esan ohi den interjekzioa. "Karatxo! ez desta ondo urten gauza onetxek!".

**KARDANTXILLUA.**- Hitzontzia, berritsua, berba asko egiten duena, berez txori baten izena da. "Ondo jarritako izena iri, kardantxillua".

**KARGABARRA.**- Besada bat egur. Erderazko 'haz de leña'. "Kargabarrak, labarako su-geixa".

**KARGA JASOTZIA.**- Harri jasotzea. "Karga jasotze berua ei da domekan Deban".

**KARNAZERUA.**- Harakina. "Karnazeruak eiñ biar izaten dau, txala erosi, txala eratxi, txala txikittu eta txala saldu".

**KARRAJUA.**- Pasilloa, pasabidea. "Ataraizuz onek umiok etxetik, egun guztian karrajuan ankapetik kendu eziñik ditturaz ba"..



KARRAPUSTIA.- Iztupa, kalamutik ateratzen den haria edo hari-multzoa. Erderazko 'estopa'. "Arixetan lotzeko tubo bata bestiakin, karrapusta apur bat ipiñi biar izaten jako, urik ez deiñ jario".

KARRASTARRUA.- Zozo mota bat. "Karrastarruanekuak baziran Eibarren".

KARUTIXA.- Garesti saltzen duena. Erderazko 'carero'. "Dendari ori karutixa da".

KASKAJUA.- Tentela, kokoloa, buruz motela edo zentzugabea dena. "Bere dotoretasun guztiagaz, kaskaju aundi bat, badakizu zeñ".

KASKARIÑA.- Txoriburua. "Ezeizu burua bat eiñ kaskariñ aregaz".

KASKARRA.- Burezurra, kaskezurra. Argala, ziztrina. "San Adrian! Arrixa geratu edo kaskarra beratu. (Hala esan omen zion santuri Akondiako baserriar batek txingorra ari zuela kanpora ateratzean)". "Aspaldi ikusi ez eta kaskarra eritxi detsat gaur zuen lagunari".

KASKARREKUA.- Buruan emandako kolpea. Buruko mina. "Kaskarreko bat emoixozu mutiko orri". "Euzkittan ibiltziak kaskarrekoa emon desta".

KASKETA.- Burua. "Gizajua, ez dabill ondo kasketetik".

KASKILLA.- Pertsona ahula, aldabera. "Gizon kaskilla urten desku aretxek".

KASKURRIO.- Ilegorria. "Kaskurrionekuak baziran Eibarren, urria lako ule-argixak".

KASTIAU.- Arraza desberdinetako animaliak nahastu. Erderazko 'cruzar'. "Gure txakur zurixa, zuen beltzagaz kastiau gura genduke".

KATAMIXARRA.- Katagorria. "Ango intxaurrak, katamixarrak batzen dittu".

KATAMOTZA.- Tigrea. "Ez andrazkua, katamotza zidurixan bere umieri ikutu zetsenian".

KATARRA.- Katu arra. Zentzu figuratuan andrazalea, gaztelerazko 'donjuan'. "Katarra errira bueltau danetik andrakume guztiak astorauta dabiz".

KATIGU.- Gatibu, preso, zigortuta. "Bazkai tara barik, katigu laga dau maixuak eskolan zure semia".

KATXO.- Pelotari ezkertia. "Orrek pelotari bixok katxuak dira".

KERRUA.- Punta zorrotza. "Kerruan jota salto eraiñ txirikillari, makilliagaz ondo artu eta urriñera eruateko".

KESOKEMAUA.- Flana. "Gaur domekia danetik, postrian kesokemaua jango dogu".

KIKI EIÑ.- Ume hizkeran ezkutaketan ibili. "Alkarri kiki eitten dabiz jolasetan".

KIKILI-USAIÑA.- Egurastu edo oreatu gabeko geletan geratzen den usain txarra. "Etxe onetan, kikili-usaiña ez da falta".

KILI-KOLA.- Gauzaren bat solte edo loka dagoenean. "Albagiñ bata, kili-kola daukat joan daneko aste betian".

KILI-MALA.- Makalik. "Gripia izan dabenetik kili-mala dabill gure amandria".

KIRIBILLA.- Bihurria. Erderazko 'espiral'. "Garri kiribilla eban kastaña arbola zar arek".

KIRIKIXUA.- Kirikinoa. "Kirikixuak ixa galduta dira gure lurretan".

KOIKE-GAZA / KOIKE-GAZAZKUA.- Pertsona delikatua. Gaztelerazko 'cursi' ere esan nahi du."Eurixa danian etxetik urten be ez dau eitten koike-gaza orrek, prakak ziprztinduko ete dittuen bildurrez".

KOIKE-LUSTRIA.- Likina, gaztelerazko 'pringoso'. "Berrogei lagunentzako arrautzak prijitzen jardun dau, eta dana da koike-lustria sukalde jiran".

KOIKEZTUA.- Likina, gaztelerazko 'pringoso'. "Karameluak oso koikeztuak izaten dira atotik atarata atzamarretan ibilli ezker".

KOIT(T)AUA.- Gajoa. Emakume eta umeei buruz esaten da, gizonezkoei, berriz, gizajua. "Andra koitauak ez zekixan zer eñ".

KOKALDIA.- Lepamina. Gaztelerazko 'tortícolis'. "Oian nunbaitt postura txarrian eñ dot lo eta kokaldixakin esnatu naiz".

KOKO-EGUNA.- Aratoste eguna. "Koko-eguna al da ba gaur orretara janzteko?".

KOKOLE.- Ume hizkeran txokolate. "Artuko dozu kokole maittiorrek?".

KOKOMARRUA.- Mamua, umeak izutzen dituen pertsonaia. "Ixildu zaittez, Kokomarruak eruango zaittu ba bestela!".

KOKUA.- Mozorrotutakoa, jantzi arraroekin dabilena. "Kokua dirudi daroian soiñekuakin".

KOKUA.- Laboreen hazi edo garauetan ibiltzen den intsektua. Nahiz eta intsektua ez izan, oso tamaina txikiko edozein animalia motari ere esaten zaio. Lurrean ibiltzen den intsektu edo har batzuk adierazteko ere erabiltzen da.. " Baba-baltzan kokua esaten zetsen Eibarren ezagun bati". "Kokuak dira milla eta milla bidar arraza geixago, friztixa azixak baiño". "Kokuen klasiak dira: sei ankakuak, zortzi ankakuak eta zortzi anka baiño geixagokuak".

KONKORTU.- Konortea galdu. "Konkortuta dago joan daneko iru orduan".

KONPARAZIÑO BATERAKO.- Esate baterako, adibidez. "Esan deigun, konparaziño baterako.."

KONTIZU.- Norbaitek esandakoa baiezteko erabiltzen da. "Bai kontizu; atzo ill ei da erregiña".

**KONTRAKO IZTARRIXA.-** Okerreko eztarria, arnasa hartzen deneko zuloa. Erderazko 'tráquea'. "Kontrako iztarrira joan jako ardau tantanen bat eta itxo biarran dago".

**KONTU!.-** Arreta eskatzeko erabiltzen den interjekzioa. (Gaur egun, kontuz! esaten duguna). "Kontu, anporrak botatzen ditte horrek eta!". "Kontu trena dator eta!".

**KONTXO!.-** Haserrea edo harridura adierazteko interjekzioa. "Kontxo, apurtu jata barautza".

**KOPAUA.-** Mokaua. "Urkiolara eldu baiño len kopau bat artu genduan Txakurzulon".

**KOPETADUNA.-** Neskei (oraindik andra ez direnei) esaten zaie. "Atzo arte kopetaduna; gaurtik ule jasua dau".

**KOPINKERIXIA.-** Txolinkeria, kaxkarinkeria, arinkeria, zentzu gutxikoak egiten duena. "Kopinkerixia erizten detsat, zuek darabizuen autuari".

**KOPIÑA.-** Umeen jolaserako panpina. Zentzu figuratuan, kargu handia izan arren, berez beste ezkutuko norbaiten esanetara edo aginduetara dagoena. Erderazko 'hombre de paja'. "Kopiñak laga baiño len eiñ zetsen ezkontzia". "Jabe papeladia eiñ arren, kopiñ bat da".

**KORAPIÑA.-** Korapilo sinplea, buelta batekoa. "Zapatak korapiñakin lotuta eroiazan".

**KORAPIZTIA.-** Korapilo mota bat, bereziki oinetakoak lotzeko erabiltzen dena. Kiribizta, dibiztina, bigizta. Gaztelerazko 'lazada'. "Lotixozuz oiñetakuak korapiztiakin, errez eskatu deixazen".

**KORDIA.-** Mordoa, txorta. Normalean mahatsarekin erabiltzen da. "Matskordia, biren artian, makilla baten ekarri eben ango lurretatik".

**KORKOBIA.-** Konkorra. "Gerriak danok erantzi giñuzen; eder asko ederraguak agertu ziran, baiña zenbati ezkutuan genduzen korkobak agertu!".

**KORPUSTI.-** Korpus Eguna, Gorpuzti Eguna. "Korpusti egunian elixa barrua txori kantuz beteta izaten zan".

**KORPUTZ-BIDIA.-** Andabidea, baserri auzoetan hildakoak eliz atarira eramateko bidea. "Korputz-bidia eta baita eliz-bidia esaten jako, korputzak eliz-ataira jatxitzeko izentautako bidiari".

**KORRONTA.-** Goitik behera doan ura, mugitzen dena. Gaztelerazko 'corriente de agua'. "Amorrañak korrontian ibiltzen dira".

**KORTEJAU.-** Emakumeak kortejatu, etxera lagundu. "Aspaldixan kortejatzen dabill, baiña oiñ arte ez dau kulaperik baiño artu".

**KOSKABILLUAK.-** Barrabilak. "Koskara urten ebanian, kanpantorriari kanpokaldetik buelta bat emoteko, koskabilluak zimurto jakozen batera".

**KOSKONDU.-** Koskortu, hazi. "Zuen granujia be majo koskondu dok".

KOTOIA.- Algodoa. "Eskuko koipiak kentzeko kotoia erabiltzen dabe makiña bat taillarretan".

KRAKADIA.- Zeozer arrakalaten edo pitzatzen denean ateratzen duen hotsa. "Kradia eiñ dau sapaixak".

KRISTAUUA.- Erlijio horretakoa. Pertsona esateko ere erabiltzen da. "Ez dirudi kristaua, basoko friztixa baiño".

KUKUA.- Leloa, tentela, inuzentea, mozoloa. "Kukua izan ez balitz, diru asko irabaziko eban".

KUKURRUKU EZTULA/ESTULA.- Eztul kukurrukua, tosferina. "Titikua zan gure bigarrena, kukurruku estul gogorak artu ebanian".

KUKURRUKUA.- Oilarraren kantuaren onomatopeia. Erronka, desafioa. "Goizeko lelengo kukurrukuan jaikitzen zan". "Donostiakuak erabilli daben kukurrukuari, Ondarruakuak oratu detse".

KUNBUA.- Erreketako putzua, berez egindakoa edo presa antzekoa ere izan daiteke. "Errekatxu artan, kunbuak bata bestian ondoren dira eta amorrañ asko artzen da".

KURKUBITXA.- Sagar klase bat. "Sagar kurkubitxak sagasti artan".

KURRIZKIA/URRIZKIA.- Txilioa, zarata, normalean txerriaren kurrinka. "Jokua zan txarrixan kurrizkia zeñek obeto eiñ".

LABA-TXIRTXILLA.- Etxeetan egoten den txirtxila. "Laba-txirtxillak, Gabonetan be, ixildu gabe kantatzen dau".

LABARIXA.- Okina. "Eibarko labarixan seme bat, deportista entzuna izan zan".

LAFIAU.- Mozkortu. "Zapatu guztietan lafiautzen da".

LAKAÑIA.- Bizar ile soltea. "Lau bizar lakaiña bakarrik zittuan arpegixan".

LAKARRA.- Latza. "Gaiñ lakarra laga detsa arotzak mai oni".

LAMAUKUA / LAMEIKUA.- Antzinako txanpona. "Lamaikuari begira bizi da".

LANBERO.- Lan asko egiten duena, langile porrokatua. "Baziran Lanberonekuak Eibarren, lenenguari itxulittara jarritta seguru izen ori".

LANGIA.- Erromada edo ataka osatzen duten hagak. "Erromadiari kendu langa bat, eta ondoren jarraitu zeskun jabiak".

LANPARRA.- Euri lanbroa. "Eitten diarduan lanparrakin ziero busti naiz etxera orduko".

LANTZOIA.- Harenke mota bat. Lotsabakoa. Ondarrutik jasotako berba. "Sardiñatara joan eta lantzoia ekarri". "Kendu zaittez ingurutik lantzoiori!".

LAREMIÑA.- Larumin, gibelego gaitza. Erderazko 'ictericia'. "Laremiñak artu eban, eta ori-ori egon zan luzero".

LARRAPAZTADIA.- Labankada. "Larrapaztadia eiñ izotzetan eta luze jausi da".

LARRIXA.- Latza, lodia. "Errekatiko arri larrixa ekarri biar destazu".

LASTAMARRARIA.- Lastoz egindako koltxoia. "Lastamarrara biguna gertau dot, Alzoliartzatiko maluta barrixagaz".

LASTANA/LAZTANA.- Musua. Maitea, kuttuna. "Aren lastan bategaittik, urtebeteko bizixa emongo eban pozik". "Ah, nere seme lastana!".

LASTAZAUA.- Gauez mendian ibiltzeko su emanda argia egiteko erabiltzen den lasto multzoa. "Artizuz iru lastazau biderako, gaur ez dago ba iratargirik".

LAUKUA.- Lau liberako ogia, eguneroko ogia. "Makiñatxo bat izerdi, gizajuak laukua irabazteko".

LAUPARDIA.- Mozkorra. "Aspaldixan eran barik eguan, eta arda janian egundoko laupardia artu dau".

LAUSKITTU.- Besarkatu. Batzutan gogor besarkatu, estutu ere esan nahi du. "Bere ama balitz bezela lauskittu eban neska txikixori". "Aiñ saskar lauskittu eban, umiak bildur zetsan".

LEGARRA.- Hartxintxarra, urak edo elurak xehetutako harri txikia. "Legarra errekiak batzen daben tokixa, Legarre".

LEGENA.- Azaleko gaitza. "Legena, berakatzakin kentzen dala esaten dabe".

LEGUNGARRIXA.- Jateko ez beste edozein zereginetan erabiltzen den koipea. "Legungarri apur bat eiñ biarko detsazu burdixari, ainbeste orrua ez deixan eiñ".

LEGUNKERIXIA.- Lausengua, zurikeria. "Arrua zanetik leunkerixia izan ezik, ez eban ezer ondo entzutzen".

LEIXUA / LEIUA.- Leiho estua, gatzelerazko 'saetera'. "Txaboletan bizi ziranen leiua, eta katedraletako bentanadi ikusgarrixak, espiritu baten obria".

LEKUTAKUA!.- Zerbait edo norbait oso urrutikoa dela adierazteko. "Lekutakua ekarri dozu emaztia!".

LELIA.- Tentela, inuzentea, baina emakumea. "Zegozer zalakuan zan a lelia".

LENGO BATEN / LENGUAN.- Aurreko egun batean. "Lengo baten kalia topau neban osatuta". "Lenguan topau neban gizajua dana jausitta".

LENGUSU-TXIKIXA.- Bi lehengusuren seme-alabak euren artean lehengusu txikiak dira. "Istar lengusuak eta lengusu txikixak dittugu herri artan".

LEPAKA.- Lepoan hartuta eraman. "Lepaka beti gora, mardotu dittue goiko lurrak".

LEPATSUA.- Lepokerra, konkortua. "Jaiotzatik zan lepatsua".

LETAÑAKUA.- Arraten maiatzaren lehenengo domekan ospatzen den jaia. "Letañakuan etorriko zara Arraterako".

LETOIA.- Kobre eta zinkaren arteko aleazioa. Gaztelerazko 'latón'. "Letoia da burdiñ gorrixa eta estaiñua naste".

LETXARRERIXIA/LITXARRERIXIA.- Premiarik gabe jaten direnak, normalean gozoak. "Ez eban goserik, letxarrerixen guria baiño".

LIBRAU.- Erditu. Kaka egin adierazteko eufemismo moduan ere erabiltzen da. "Gurasuetara bialdu dau emaztia libratzera, egunetan sartu danetik". "Arroz mordua jan dot eta oiñ egun guztian librau eziñik nago".

LIKIÑA.- Oso erraz itsasten denari esaten zaio. "Gaur morokillak likiña urten dau".

LIKIA.- Txoriak harrapatzeko arbola adarretan jartzen den kola antzekoa. "Likiagaz juan dira txoritxara, gaur eskolarik ez danetik".

LITXIA.- Haizeak erraz eroaten duen ile arina, erropetan eta itsatsita egoten dena. Erderazko 'pelusa'. "Litxaz beteta daroiazu soñekua".

LO-ZORRUAK / LO-ZURRUZTADAK.- Lotan egiten diren zurrungak. "Kaletik entzutzen ziran aren lo-zorruak". "Bere lo-zurruzadak entzutzen ziran urriñetik".

LOIÑASTIA.- Loina, erreketako arrain mota baten kumea. "Loñastia ugari agiri zan erreka baztarrian".

LOKIA.- Gauza bat kili-kolo edo solte edo nasai dagoenean. "Mai onek lokia dauka amentxe".

LOLO.- Ume hizkeran lo egin. "Lolo eizu maittiorrek!".

LORDIÑA.-Zikinkeria, mantxa. "Gaur gizonak eiñ dau bazkarixa, eta sukalde jiran bazan lordiña".

LORITUA.- Ezertaz konturatzen ez dena, tentel samarra. Erderazko 'despistado'. "Ezeren kontuan jausten ez dan loritua dozu semiori".

LOSADURIA.- Arlauzekin egindako terraza. "Txirixo-Kaleko losaduria, makiñatxo bat kontu esandako lekua".

LOTSAKIZUNA.- Lotsaria eragiten duena. "Pobria izatia ez da lotsakizuna".

LOTSARIXA.- Lotsa. "Makiña bat lotsari emondakua gurasueri!".

LOTSORRA.- Lotsatia. "Len zan lotsorra, eta estaziñoko jefia ein dabenetik, or dabill mundua jan biarrian".

LOTUA.- Ganorabako, moldagaitza. "Ikaslari lotua izan dogu oinguan".

LOTXUA-LO.- Sehaska kantaren onmatopeia. "Umetako aman lotxua-lo kantuak lako kanturik".

LUPUA.- Har mota bat. Zomorro pozoindua. Normalean parte txarreko kokoei buruz esaten da. Batzuentzat erugea, gaztelerazko 'salamandra' ere esan nahi du. Konparazioetan asko erabiltzen da. "Bedartzan nindoiala lupua zapaldu neban". "Lupua baiño gaiztuagua zan a gizona".

LUZEKIZUNA.- Luzamendua. "Zorrak erantzutzeko orduan, beti dittu arek luzekizunak".

MA.- Ume hizkeran musua eman. "Gaiztu orrek ez desta eiñ gura ma!".

MADALA.- Arbola adarra. "Adarraren madalaren puntan...".

MAITIRO.- Maitekiro, maitasunez. "Maitiro bizi izan ziran azkeneraiñok".

MAITTETASUNA.- Maitasuna. "Maittetasunan sustraixak, eriotzia baiño aurreragokuak".

MAJO.- Ondo, ederto. "Majo zabiz zu nere pekora, ezer falta ez jatzula".

MAKALKIXA.- Erraz gaisotzen dena. "Umetan makalkixa izan zan".

MAKIÑATXO BAT.- Askok, makina bat. "Makiñatxo bat egon eiñdakua aren zaiñ".

MAKURRA.- Zerbaiten haunditasuna (edo txikitasuna) indartzeko. Erderazko 'menudo'. "Makurra da ba arek daukan jauregixa Donostian".

MALUZKAU.- Zimeldu, tximurtu. "Goizian alako lora ederra eta illuntzixa baiño len dana maluzkau da".

MAMA.- Ume hizkeran, ura. "Ama, emoixozu mama umiari".

MAMARRUA/MOMORRUA.- Ume hizkeran, mamua. "Ixildu zaittez, mamarrua dator bestela!".

MAMELO.- Ume hizkeran, karmeloa. "Mamelo eske dago umia".

MANDAKUA.- Astokilo, saskarra. "Mandako galanta zan morroi bat etxe artan".

MANDATARIA.- Mandatoak, errekaduak egiten dituenak. Errekadistia normalaguan da Eibarren. "Bilbora ostera dabillen mandatarixak ekarriko detsu gauza ori".

MANGUTSIK.- Manga motzean. "Ebateko moduko otza eguan eta an agertu zan mangutsik, txistuajoten".

MANTENDU.- Norbaiti mantenua eman, bizitzeko lain jaten eman. "Ogi sikuakin eta ur garbixagaz mantentzen zan".

MARDO.- Askok, ugari. "Mardo emoixozu emon biar jakona".

MARDO MARDO.- Ondo beteta, gainezka. "Mardo mardo neurrittuta saltzen eban arek gauzia".

MARDOTU.- Loditu. "Ezkon-barri orrek mardotu dau emaztia".

MARDUA.- Itxura onekoa, ederra. "Gure seme marduak dotore urten dau etxetik erromerixarako asmuan".

MARIAGORIA.- Kardaberak izaten duen bizar antzekoa eta askotan hegan ibiltzen dena. "Mariagoriak azixa daroia, bere jatorriko bedarra munduan zabaltzeko".

MARI-MUTIL.- Gaztelerazko 'mari-macho'. "Ume-umetatik izan da ori mari-mutilla".

MARSALA.- Zuhaitz ederra. "Sasoi batean gure inguruetako baso ederretan makiña bat marsal zeguan".

MARRAJUA.- Maltzurra, zitala. Gaztelerazko 'taimado, astuto, de mala intención'. "Kontu orrekin, marrajo galanta dok eta!".

MARTINETA.- Erreka inguruetan ibiltzen den txoria. Erderazko 'Martín pescador'. "Oñ ez da agertzen martineta, bere kolore bizixekin, gure ibai aldietara".

(Q)MARTXANDISTIA.- Eskolan piper, martxando egiten duena. "Gure taillarreko uezaba , ume denporan makaleko martxandistia izan zan".

MASMA-ETXIA.- Amarauna. "Masma-etxez betetako sapai batera eruan giñuezen".

MASMIA.- Armiarma. "Bildur, igoiñ eta gorrotu barik artu ezker, masmia da kokotxiki miragarri bat".

MASKILLUA.- Moko lehorra. "Beti umiekin burua bat einda ibiltzen danetik, ez da mira eittekua maskilluak ataritzen jarduntzia".

MATASIA.- Zentzu figuratuan, egoera korapilotsua. "An urten daben matasia, zuzendu ezindakua".

MATRAKIA.- Jardun setatsua darabilenari esaten zaio. "Sekulako matrakia dozu alabia".

MATS-FARRALA.- Mahasparra. "Manuel Mendaroneko mats-farralpian, ondjo jana eñ genduan egun artan".

MATSADIXA.- Mahastia. "Rioja aldietan matsadixak ugari".

MATXIN GARRATZA.- Umeek eta, zapore gazi-gozoa dastatzeko ahoan bueltaka erabiltzen zuten belar mota. "Eskolakuak giñnian, matxin-garratzak batzen genduzen, egarrixa kentzeko".

MATXIN-GONA-GORRIXA.- Marigorringoa. "Euxkixa ta eurixa, matxin-gona-gorrixa".

MATXIN SALTOKARIXA.- Matxin saltua. "Eibarren esan dogu beti: matxin saltokarixa; beste leku batzuetan: matxin saltua".



MAUSTA-MAUSTA (JAN).- Gogoz jan, jan eta jan jardun. Jatekoa ahoan bueltaka irentsi ezinik erabiltzea ere esan nahi du. "Okelia daguanian mausta-mausta jaten dau, baiña berduria edo arraiña bada, orduan kontuak".

MAXKALA.- Ahula. "Gaixotu danetik, maxkal-maxkal einda topau dot".

MAZKALA.- Zimela. "Larrosa ori mazkala dago".

MAZPILDU.- Zapaldu, txiki-txiki egin. "Mallukiakin uts eiña, atza mazpildu eban".

MELA-MELA.- Blai eginda. "Eiñ dittuen truxalakiñ mela-mela einda eldu gara etxera".

MEMELIA /MEMELUA.- Ganorabakoa, lehenengoa emakumea eta bigarrena gizonezkoa. "Orrekin jai dago, bizi guztian memelua izango da".

MENDEBALA.- Iparmendebaldeko haize euritsua. "Mendebala atara dau, eta urrengo egunetan guardasolakin ibilli biarko dogu".

MENGELA.- Mehea. "Mengela urten detsa soñeku orrek".

MENTAU.- Arbolak eta landareak txertatu. EZTITTU. "Fruturako arbolak mentau biarra izaten dabe".

MERKATARIXA.- Ezkongai, erreka egiteko prest dagoena. "Merkatarixa agertu jako gure neskazarrari".

MIATZ.- Gutxi, urri. "Miatz dabil aren emotia".

MIATZA.- Mehea, arina. Sakabanatua, zarratuaren antonimoa. "Negu gorrixan soñeku miatz miatzakin dabil koittaua". "Bizarra miatz-miatza euki arren, egunero kendu biarra zeukan".

MIAUA.- Katuaren hotsaren onomatopeia. "Gau guztian miauka, tellatuetan ziar ibilli da gure katua".

MIAZTU/ MIESTU.- Gutxitu, agortu. "Zeroian jarixuakin lagun aregaz, miaztu dittu bere ondasunak". "Udako sikutiagaz miaztu da iturri au".

MIESTAU.- Mihiaz igurtzi, miazkatu. "Katu emiak, miestauaz garbittu eta apaintzen dittu bere umiak".

MIKAKERIXIA.- Milika denak egin ohi duena. Erderazko 'melindre'. "Mikakerixia ugari badarabil beintzat ume orrek".

MIKIA.- Milika, jaterako orduan konformagaitza, bata dela bestea dela, beti protestaka, kexaka ibili ohi dena. "Jaten oso mikia da zuen mutilla".

MINBERIA.- Mina erraz izateko joera duena. Mindua. "Minberia da euria lanbrua letz, luzera ondatzen dabena". "Minberia minberia daukat atzapparreko ebagixa".

MINGATXA.- Mingotsa, mikatza. "Esixetako arntziak emoten dittuan aranak, benetan dira mingatxak".

MINGELA / MINGELIÑA.- Pertsona kexatia. "Jaten mikia, eta ostian mingela".

MIÑZORRA.- Etengabeko mina, ez oso handia. "Miñzor darabit aspaldi agiñ sustrai bat".

MIRA IZATEKUA / EITTEKUA.- Harrigarria. "Ez da mira izatekua aren ortza, aginduna jaixo ei zan da."

MIRRIÑA / MIRRIXA.- Arina, mehea, urria. "Metaldi mirriña aurtengua". "A zan gizon mardua, geldittu da guztiz mirrixa".

MIZKIÑA.- Mika. Zuhurra, zikoitza. "Oso mizkiña maixan, jateko guztieri arpegi zimurra ipintzen detsala". "Gizon mizkiña emoteko orduan".

MOJON!.- Familia guztiak lapikotik jaten zuenean, baten batek, besteak gelditzeko, ogi zatia lapikora inguratuz esaten zuen exclamazioa. "Ze mojon eta zer arraixo demonio dogun gosiakin!".

MOLDAKATXA/MOLDAKATZA/MOLDEKATXA.- Baldarra, torpea. "Ume moldakaxagorik ez dot ikusi bizixan".

MOLDAU.- Zerbaiti itxura eman. Konpondu. Osatu, sendatu. "Azkenian be, moldau dot nerebixan asmua". "Moldau dot erlojua, eta oiñ ondo dabill". "Moldau jata apurtu neban eskuturra".

MOLDIA.- Zerbaitetarako trebezia. "Zure semiak badakar moldia artu daben ofiziorako".

MOLTSOTU.- Pilatu, baina inongo ordena barik. Gauzak ondo ordenatuta pilatzeari TOLOSTU esaten zaio. . "Lelengo moltsotu zittuen gauza guztiak leku baten, eta gero partilluak".

MOMOLIÑA.- Ganorabakoa (neskei buruz esaten da normalean). "Alde bistatik momoliñori, traba baiño ez duzu eitten eta".

MORDOILLUA.- Lodia (ore eta likidoetan). "Morokill orrek mordoilluegixak urten dau".

MORMORIXUA.- Marmarketa, norbaitu buruz txarto esaka jardun.. Berbaroa, berbotsa. "Mormorixua ez da falta ezkondu zan ezkerik". "Errezuen mormorixua eltzen zan geu gengozen lekurañok"

MORMOZKO / MURMURREKO / MORMORREKO ENTIARRUA.- Kanturik gabeko hileta-elizkizuna. Ahalmen ekonomiko urria zeukatenei egiten zitzaien entierua ere esan nahi du.. "Mormozko entierroagaz juan zan lurpera, Barixaku Santua zalako." "Aberatsa zalakuan, eta mormorreko entiaruagaz juan zan Urkiko esparrura".

MORROILLUA.- Ateak edo leihoak ixteko, alboan izaten duten burdinazko barratxoa. Gaztelerazko 'cerrojo'. "Morrolluagaz itxi biar dozu atia; aspaldi lapurrak geittu dira ba".

MOTROILLUA.- Piloa, moltsoa. Zerbait xehetzeko erabiltzen den sukaldeko tresna, almaidua."Julianda guztiak motroilluan laga eta ospa eñ dau taillarretik". "Guk genduan motrollo sendua latoizkua zan".

MOTXA/MOTZA.- Mantxua, beso bakarra. Txikia. Kamutsa."Motxanekuak, elgetarrak ziran". "Ori pelotarixa, motza, baiña gogorra". "Irataixa oso motza daukagu".

MOTXAILLA KASTIA.- Ijitoa adierazteko. Gogorra, zaila. "Karmen, zorigaiztokoa, Euskal-erriko motxaila kastia". "Intxaur motxaila-kastia".

MOTXAILLATU.- Txakurtu, lotsa galdu. "Soldautzan, guztiz motxailatu zan len zan apala".

MU!.- Ganaduaren orruaren onomatopeia. "Mu! ziñuan beixak txala kendu zetsenian".

MUGA-SAGUA.- Soroetako arratoia. Erderazko 'musaraña'. "Muga-saguak garimetan eban abixia, ogirik ez falta izan zeixan bere famelixiak".

MUN.- Errespetuz ematen den musua. "Obispuari, erastunian mun".

MURGILLIAN.- Ur azpian igeri egin. "Igaraberiak leztxe eitten eban murgillian".

MUSTUR-ALDIXA.- Adiskide biren artean noizik behin sortzen den haserre aldia. "Alperrik ezkon barri, mustur-aldixa darabixe gaur".

MUSTURTU.- Haserretu. "Ez dakitt zergaittik, emaztia musturtu jata".

MUTXIKIÑA.- Sagarren eta antzeko fruten erdiko gunea. Hondakina ere esan nahi du (zigarro-mutxikiña, gaztelerazko 'colilla'). "Gosezto bat zanetik, sagarrak mutxikiñ da guzti jaten zittuan". "Ain zan pobria, bestiek botatzen zittuezen zigarro-mutxikiñak erretzen zittuen".

NABARMENA.- Lotsaria. "Sapatuetako mozkorrak, errixan nabarmena".

NAFARRI-PIKATUA.- Nafarrieriak aurpegian uzten dituen orbainak. "Gaurko egunian, ez da ikusten iñor nafarri-pikautakorik".

NAFARRIXA.- Biruela. "Nafarrixia da gaitz bat, gure gizaldiak ixa ezagutu ez dabena, izugarritzko Jaungoikuan azotia izanda gero".

NANAN EIÑ.- Ume hizkeran jan. "Nanan eizu maittiorrek aundi eñ zaittian".

NANUKERIXIA.- Doilorkeria, zikoizkeria. Erderazko 'ruindad'. "Aundiki guran eta nanukerixia beti aldian".

NARRAZ.- Tatarrez, arrastaka. "Barruko gonia narraz daroiazu".

NARRAZTU.- Makaldu, zahartu. "Juan daneko urte betian, asko narraztu da zuen aitta".

NARRUA.- Aurpegi gogorra. "Arek lotsabagiak eukan arpegixa ta narrua".

NASTABARRA.- Nahaste borrarstea. "Nastabarra ba da beintzat aren kontuetan".

NASTAZALIA / NASTOTSUA.- Bazterrak nahasten ibiltzen dena. "Naastazale drogoso bat izango da bere bizi guztian". "Lege-aittua zanetik, nastotsua".

NEGAR-MUSKURIXUA.- Negar isila. Gaztelerazko 'lloriqueo'. "Negar-muskurixuetan dago egun guztian, ume koittau ori".

(LQ) NEGUKO MADARIXA.- Guardia zibila. "Gaur be or dabiz neguko madarixak".

NEGUKO TXORIXA.- Gogo gabe, bakarrik ibiltzen denari buruz esaten da. "Neguko txorixa dirudi, otzak kukulduta."

NEKEZ.- Berandu. Kostata. "Atzo nekez etorri ziñan". "Aldatz gora nekez joan giñan".

NESKA PUXIGA.- Neska harroa. "Neska puxiga ederra einda dago zuen alabia".

NOBEDADIA / NOBEDADIA EIÑ.- Zorabioa. Konortea galdu. "Baraurik sarri nobedadia". "Nobedadia eiñ jako elixan".

NUONOR.- Nor edo nor, norbait. "Nuonor izan da amen gauzak nastatzeko".

NUONORA.- Nora edo nora, nonbaitera. "Nuonora urten dau ezer esan barik iñori".

OBRAU.- Jardun, ekin. "Berkak laga alde batera eta obrau biarra izan genduan".

ODA LAUSUAK.- Hodei solteak. "Goizian goizetik dagoz oda lausuak".

ODIA.- Hodeia. Ekaitza. "Bizkai aldetik odia dator".

ODOLANA.- Hipertentsioak eragindako gaitz bat. "Odolanakin ogeratu biar izaten dau, urtian bi edo iru bidar".

ODOL-BATUA.- Kolpe bat jaso onoren geratzen den ubeldura. "Mallukiakin jo atzaparra eta odol-batua eiñ dot".

ODOL-BERUA.- Erraz hasarretzen dena. "Oso odol-berua zan eta kartzelarako bidia eiñ eban".

ODOL-IGESIXA.- Odol jarioa, hemorragia. "Odol-igesixa geldittu ezinda ill biar zan".

ODOLIK-BAKUA.- Koldarra, atzera egiten duena. "Odolik-bako gizajo bat agertu zan gerrako denboran".

OGEKO-ERROPIA.- Oheko izarak. "Zortzixan beiñ aldatzen dittue ogeko-erropak".

OGIBITTARTEKUA.- Otartekoa. "Arratsaldietan beti jaten dau ogibittartekua".

OGI-TAKUA.- Ogi zati haundia. "Arrasaldeko eskolian ondoren, ogi-tako bat".

OGIDU.- Obeditu. "Nausixak aindutakua ogidu biarrekua".

OILLANDIA.- Neska liraina, ederra. "Oilanda politta daukazu alabia".

OILLAR BASERRITARRA.- Burrukarako balio ez duen bertoko oilarra. "Oillar baserritarrak ez dabe gauza jokorako".

OILLAR INGLESA.- Burrukarako oilarra. "Oillar ingles fiñ-fiña dauka kastatarako".

OILLAR-JOKUA.- Oilar burruka. "Oillar-jokuan diru asko jokutzen zan sasoi baten".

OILLARTU.- Oilarra bezela, harropuztuta jarri, harrotu. "Irabazi dittuan jokuekin, illartuta dabil".

OILLASKUA.- Mutil argia, trebea. "Oillasko makala dator zure mutikua".

OIÑASTARRIXA.- Tximista, baina lurrera jausten dena. "Oñastarrixa jausi zan Eguarbitzan".

OIÑASTUA.- Tximista, baina lurrera jausten ez dena. "Eten bako oñastuegaz, zeruak zidurixan sutan".

OIXAK.- Haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragia. Gaztelerazko 'encías'. "Oixak miñduta darabiraz aspaldixan".

OJALIA.- Haurzapia, haur oihala. "Datorkixon umiandako ojaliak apaintzen diardu".

- OJALETAKO UMIA / OJALIETAKO UMIA.- Ume jaio berria, oraindik haurzapia erabiltzen duena. Gaztelerazko 'bebé'. "Ojalietako umia dirudi, ez dauka ba txori batek beste buru".

OKASIÑUA.- Gertakaria, ezbeharra. "Okasiñua daukagu etxian: ama zarra gaisotu jaku".

OKERRA.- Ezbeharra. "Okerrrik ez badau bidian, agertuko da bere orduan".

OKOTZBIKUA.- Kokospea. "Okotzbiko guri gurixa eban".

OKOZPEKO INTXAURRA.- Gorgoila. Gizakien laringeak izaten duen irtenunea. "Berbetan zanian, gora ta bera ibiltzen jakon okozpeko intxaurra".

ONDARRIXA.- Ibaietako legar zehea. "Ondarrixan gaiñian ortozik ibilli zan eta ebagixa eiñ eban ankazpian".

ONDOEZIK (IBILLI / EGON).- Osasunez gaizki ibili / egon. "Aspaldixan ondoezik dabil, ezer onik eitten ez detsala".

ONDRA-JANA.- Hileta ondoren, hildakoaren senitartekoek gonbidatuta egiten zen oturuntza edo janaldia. "Mari Martinguan izan dabe ondra-jana Arrate baillekuok".

ONDU.- Marka bat hobetu. On bihurtu. "Goizekuen markia arrasaldekuak errez ondu dabe." "Ondu destaz aindutako gauza guztiak".

ONERAKUA.- Ona, zintzoa. Gaztelerazko 'hombre de bien'. "Gizon onerakua jatzu uezaba".

ONETARA.- Honela, era honetan. "Onetara erakutsi deskue guri gurasuak".

OOH!.- Ganaduari gelditzeko agindua. "Aida eta ooh, tabernako atian gara!".

OPATSUA.- Eskuzabala, emanzalea. "Zan gizon bat opatsua, bererik ezer ez eukana".

OR!.- Eginkizun bati indarra emateko erabiltzen den exklamazioa. "Or zure ibilleren ondorioa!".

ORAIÑA.- Orbana. Gaztelerazko 'lunar'. "Bere arpegi ederrian oraiñ bat eban aiñ egoki jarritta eze, bere edertasunari grazia bat geitzen zetsan".

ORAIÑENGO.- Orain hurrengo. "Oraiñengo kalian ikusi nebanetik asko maxkaldu da".

ORAIXIA/ OREIXIA.- Teilatu ertzetan ur isurbideak jasotzeko egon ohi diren hodiak. "Oraixiari zulo galanta eiñ jako, eta eurixa eitten dabenian ez dago azpittik pasatzerik".

ORBANA.- Azaleko zikinunea. Armagintzan, mailetunea, zikinunea. Pekatua. "Zure gizonari orbana agertu jako belarri onduan". "Orbandu dozu akabautako kaxia". "Gure orbanak, zeñek garbittu?".

ORBANDU.- Tailarretako berba. Pieza bat markatu. ""Orbandik ori!"".

ORDIAZKUA.- Mailegutuan uzten dena. "Arek daroian soñekua, ordiazkua dau".

ORDIXA.- Mozkorra, zentzu peioratiboagoan. "A gizon ordixa, kalerik kale famelixian lotsagabe".

ORDUBI-ORDUBIAK.- Ordubiak puntuan. "Ordubietan etortzeko esan, eta antxe agertu zan ordubi-ordubietan, zein da alemana balitz moduan".

OREKAN.- Oreka gordeta. Hegaztiak aire-korronteez baliatuz geldi-geldi egoten direnean. "Arranuak aire epela aprobeztatzen dabe ordutan orekan egoteko".

ORE-MAIXA.- Orea egiteko mahaia, artesa. "Gaurkuagaittik taluak eiñ biarko dittuzu ore-maixan, ez dabe ba ekarri urunik".

ORI DOK ORI!.- Norbait animatzeko erabiltzen den exklamazioa. "Ori dok ori! beste arraraxo bat eta onduta daukak goizekua!"

.OR-EZPENGO.- Leku desegokian eraiki zuten etxe bati jarri zioten izena (Hor ez bahengo-tik).

- ORITZA.- Emakumeak eta animalia emeek umea egin ondoren izaten duten lehen esnea. Oso lodia eta koipetsua izaten da. Gaztelerazko 'calostro'. "Beixan oritza askok gustora artzen dabe".

ORMA BIXAK JO.- Pelotan, horma bikoia egin. "Orma bixak jo zetsazzen, baiña pelotiak erreixatik kanpora urten eta galdu eban jokua".

OROLGIXA.- Goroldioa. "Mendira juan, eta orolgi bigunian etzinda luze luze, orduak emoten nituan".

ORRATZIXA.- Orrazia. "Aren uliak, orratzirik iñoiz ezagutu".

ORREN BATEN.- Gutxi gora behera. "Bazan Eibarren etxiak orren baten eitten zittuan kontratista bat".

OSTERA.- Bidaia, buelta. "Bilbora ostera dabill egunero".

OSTERUNTZIAN / OSTIAN / OSTIANTZIAN.- Osterantzean, bestela. "Alde batera laga ezkerro nagia zana, jokolarixa eta gonazalia, ostian ona eta maittaa zan nere senarra".

OSTONDUA.- Ortzemuga, hodeiertza. "Urriñian ostonduan etxe bat agiri zan".

OSTRUA.- Landareen orriak itsatsita daudenean. Lurrean daudenak orbelak dira. "Udabarrixan ostro barrixak agertzen diranian...".

OTANIA.- Ogi mota bat. "Trukian lana eitten ebenak, otania artzen eben kontura etxerako".

OTARATU.- Oiloak lotara joan. "Illunabarrian otaraten dira oilluak".

OTXABIÑA.- Kainoien zerga edo 'ochava' kobratzen zuena. "Otxabiñanekuak baziran Isasin".

OTXIÑA.- Antzinako txanpon bat. "Otxiñak eitten dagoz gerriakin, ez dalako ferixa txarrik danentzako".

OTXINDU.- Aberastu, dirua egin. "Ameriketari otxindu eta gero errira etorri eta etxe aundi bat eñ eban".

OTXO-KUARTO!.- Haserrea adierazteko interjekzioa. "Ze txapa ta ze otxo-kuarto!, gaiñian jo jok barren".

OTZARREN.- Hotzak egon. "Ordu betian zaiñ, otzarren ill biar giñan".

OZBERA.- Hozpera, hozkila. Erderazko 'friolero'. "Aiñ zan ozbera, oian be kaltzetiñekin sartzen zan".

OZBERUA.- Hotzikara. "Bai jauna, ozberua txarra da".

OZKILLA.- Beti hotzak dagoena. Erderazko 'friolero'. "Oso ozkilla ei dabill Ameriketarik itxuli dan ezkerro".

OUJIXAK / AUJIXAK.- Alaitasun oihuak. "Oujixegaz artu eben errixan".

PABONUA/FABONUA.- Eskopeta kainoiak belzteko erabiltzen zen likidoa. Kainoiak belzten ziren lekua edo lantegia ere esan nahi du. "Isidoro Aldeanuak, Arraindi kalian eukan pabonua".

PADARRA.- Arrisku egoeretan, babeslekua, leku segurua. Zezenketetan, 'burladeroa'. "Padarretik zezenak ikusi, obe dalako txalo artian iltzia baiño, bildurri irauntzia".

PA EIÑ / PA EMON.- Ume-hizkeran, musu eman. "Beiñ pa eiñ nentsanetik, aizkide izan giñan".

PANPANA.- Harrokeria. "Aberastu danetik panpana ugari darabil".

PANPARRERIXA.- Harrokeria. "Erromerixetan etenbako panparrerixetan jarduntzen eban".

PAPA.- Ume-hizkeran, ogia. "Ez da bota biar lurrera papa; pekatua dalako".

PAPELADIA.- Planta, itxura. " Zoro papeladia eñ eban añ ondo eze, narrua salbau eban urkamenditik".

PAPUTSAK.- Papuak, matraileko gizona. "Txarrixari lezkotxe paputsak eñ jakoz".

PARAU.- Ipiñi, jarri. "Nun parauko degu Bartolo guria?".

PARE.- Bezala, moduan. "Zoruen pare gabiz nora juan ez dakigula".

PARRA-PARRA.- Laban egiten ibili. Gaztelerazko 'deslizarse, patinar'. "Eurixa eñ ostian zeterixa guztia parra-parra ibiltzen zan andiko ortuan".

PARRAPARRIAN / PARRAPASIAN.- Ume-jolas batean ibili. Buztin lurreko aldapan ura (batzutan txisa) botatzen zen, gero errazago laban egiteko. Laban egite hori bi erataro egiten zen: makurtuta oin puntetan, edo lurrean jarrita. "Parrapasian ibillitta or dator gure granujia ipurdi bueltia ziero lokaztuta".

PARTEDUNA.- Oinordekoa. "Partedunak gara, aurreko gizaldietan bildu dan jakintza eta aberastasunetan".

PASAGARRIXA.- Balekoa, oraindik balio duena. Gaztelerazko 'pasarela'. "Emon dittuan soiñekuak pasagarrixak dira ondiokan". "Pasagarrixa ipiñi biarko da amen, ibaixa igarotzia bada".

PASAIXA.- Ibia. "Ibaixan alde batetik bestera zan pasaixa, arpozuekin eiñda".

PASARIA.- Jipoia. "Atzo, sekulako pasaria emon detse gure lagun bati".

PASEKUA.- Urtero leku beretik pasatzen diren hegaztiak. Pertsoneri buruz, eskekoa, 'vagabundo'. Emakumea bada, bideetako prostituta. Emakume "erraza" esateko ere erabiltzen da. "Paseko usuen zaiñ ziran garai baten". "Paseko arlote bat eiñda agertu da". "Andrakume ori gaztetan pasekua ei zan".

PASMUA.- Zaurietako zornea. Gaztelerazko 'pus'. "Soldu eta pasmuz bete jata atzaparreko ebagixa".

PATXI INFARNUKO / INFARNUKO PATXI.- Pertsonai mitologikoa, gaizkiaren eredu. Deabrua. "Infarnuko Patxi baiño gaiztuagua zan".

PE(G)ORIA.- Ataria, 'portala'. "Bazkalostietan, Ertzilleneko pegoran, pelotan eitten genduan, biarreko ordurainok".

PEKUA.- Pertsona batek dituen ondasunak. Gaztelerazko 'peculio'. "Hartuko euke ik aren pekua!".



PELAJIA.- Itxura txarra. Gaztelerazko 'facha'. "Pelaje ederrian nago ontxe iñora agertzeko!".

PELLAK.- Ahiez eginiko ore frijitua. Erderazko 'torradas'. "Zatzuk, Zuloagan, Eibarko eitzarixegaz pellak jaterakuan: -Banajekixan Eibarren gauza ederrak eitten zittuena, baiña olako legatz prijidurik iñoiz jan nik!".

PENDEJUA.- Zazpikia, petrala. Erderazko 'impertinente'. "Ez zaittez izan pendejua".

PENDIZA.- Aldats handia. "Alluitz gaiñetik, pendiz garratza alde bixetara".

PERKATXA.- Pertsona argia, normalean neskei buruz esaten da. "Ume perkacxa dator zuen ori".

PETO PETUA.- Pertsona biren arteko kidesan edo antzekotasun handia adierazteko erabiltzen da. "Bere aita peto petua dozu seme ori".

PETRALA.- Gaitzespen hitza, haserrekorra, lotsagabea. "Petral galanta zagoz beintzat zeu!".

PIADRE.- Ume-jolasetan, araua haustea. Erderazko 'pierre'tik ei dator. "Piadre dozu erreixa zapaltzerakuan".

PIEZAKUAN.- Piezako ordaindutzen zen lana. Gaztelerazko 'a destajo'. "Eibarren piezakuan lan eittia naixago izaten dai biargiñak".

PIJO.- Gogo biziz, jo ta ke. "Pijo pijo jardun dogu egun guztian".

PIKARRA.- Aldatsa oso gogorra dela adierazteko. "Eibarren Pikar-kalia eta Pikar-gaiñ, aldatz pikarra ebelako".

PIKIA.- Aldats gogorra. Damaskinatugintzan piezari eusteko erabiltzen den gai itsaskorra, bikea. Gaztelerazko 'pez'. "Pikan ipiñirazu orratz au, urria ezarri deixoran". "Arnas estuka eldu nok zuenera aldatza pikia da ba".

PIKORRA.- Eztarri urratua. Garaua. Garau erakoa. "Iztarriko pikorakin jaiki naiz eta barbarik eiñ ezinda nago". "Edur pikorak diardu". "Azal pikorra dauka arpegixan".

PIKU-LUZIA.- Hitzontzia, berritsua. "Beste asko bezela, piku-luziak galdu eban".

PILLIA.- Mordoa. PILLUA ere esaten da. "Arri pillia batu eban ingurura etxia eitten ekiñ aurretik".

PILL-PILL.- Janaria irakitearen onomatopeia. "Bakillaua pill-pillian, etxeko andriak ipintzen dakixan erara".

PINPORTA.- Kimua. "Etxe ondoko larrosei pinportak urtetzen asi jakue".

PINTXALA.- Pintzela, pintoreen tresna. "Zuloagatar Iñaxion pintxala, mundu guztian ezaguna".

PINTXIA.- Apain apain eginda. "Amen gure neskatua pintxi-pintxi einda"

PiNTXIA.- Tailerretako aprendiz. "Bialdirak pintxia onek kuliandiak eruan deixazen".

PINTXULARIXA.- Pintorea, margolaria. "Bata zan iraltzerua eta bestia pintxularixa".

PIPARRA.- Pertsona errea, beti haserre dagoena. "Piparra dago gaur gure ugezaba".

PIPITXIA / PEPITXIA.- Kimua agertu aurretik landareek eukitzen dutena. "Pinportak urtetzeko, lelengo pipitxia agertu biar da".

PIRAU.- Jolasetan eta jokoetan epaile edo arbitro lana egin. "Ez eban ondo pirau a tantua, piratzaillia ez zalako zuzena".

PITXADIA.- Pelota jokoan, dejada. "Pitxada bategaz irabazi eban azkenengo tantua".

PITXIA.- Ume-hizkerako berba hau balio gutxiko bitxia adierazteko erabiltzen da. Gaztelerazko 'de pacotilla'. "An dana zan pitxia".

PITXILIÑA.- Zakila, umeena. "Eskutaizu pitxiliñori, katuak jan ez deizun!".

PITXIN BAT.- Apur bat. "Pitxiñ bat gura bazestakizu..."

PITXIÑA.- Txikitxo. "Ai, nere pitxiña!".

PITXIRRIXA.- Zekena, zikoitza. "Kanpuan eskuzabala; etxian oso pitxirrixa".

PITXITXI.- Ume-hizkeran, txakurra. "Pitxitxik jan detsu ogixa".

PITXUA.- Zakila. "Pitxua eta txilibitxua, lenago lotsarik ez euken berbak bixak".

PIXAKIZUNA.- Salerosketetan, pisua osatzeko, gaiari ipintzen zaion gehigarria. "Ez deirazu ipiñi, pixakizuna ostiangua baiño geixago".

PLANTA.- Itxura, irudia. "Zer planta dok ori, gaur atara duana?".

PLASTADIA.- Eskua zabalik dagoela ematen den belarriondokoa. Igeltseruek eta, paletarekin hormara jaurtzen duten igeltsu edo porlan zatia. "Plastada batekin ixildu eban". "Iraltzeruak plastada bittan barriztu eban labia".

PLASTATEKUA.- Belarriondokoa. "Plastateko bat emonda bialdizu".

PLISTI-PLASTA.- Onomatopeia. Uretan zipriztinga ibili. "An dabill plisti-plasta basa artian".

PLOST EIÑ.- Lehertu. "Sutan ipiñi orduko plost eitten dabe onek sagarrok".

PONPOLOTIA.- Kupula formakoa. "Urritx eta urdiñ ponpolotiak jarri zittuan alde batera, txingar gaiñian erreta jateko".

POPALDIA.- Ipurdia. "Astindixozu ondo popaldia, ez deixan berriz okerrik eiñ".

POPIA.- Popa. Ipurdia. "Popatik aizia dabela doia itxas zabalian". "Popiak in jo dau lurra".

POSPOLIÑA.- Ardatz bat zeukan dadoa, ume jolasetan erabiltzen zen. Galeperra, berba onomatopeikoa da. "Pospoliñakin jokuan eitten genduan eskolan". "Pospoliña dauka kaixolan, goizian goizago jaikitzeke".

POTIÑA.- Txalupa. "Arraiñetara urtentzen eban badaezpadako potiñ batzuetan".

POTROSUA.- Suerte handikoa. "Bizi guztia izan da ori potrosua".

POTRUAK.- Barrabilak. "Fooballian ziarduala baloiakin potruetan jo dabe, eta laga ein biar izan detsa".

POTXO EIÑ.- Jolasetan, kanika-edo zuloan sartu. "Iru bidar alegindu eta gero, azkenian potxo ein dau".

POTXOLIÑA.- Alua, zentzu afektiboan. "Jantzizu gonia potxoliña bstan daukazu eta".

POTXORRA.- Alua. "Anka zabalik potxorra bistan zeguan".

POTXORROSKILLAK!.- Bete ezineko eskaera bati ezezko biribila emateko interjekzioa. Umeek ezin zuten nagusie erantzuteko erabili. "-I emoidak milla pezetakua bixar itxuliko deuat eta. -Milla pezetakua? potxorroskillak!".

POTXOLUA.- Ume-jolas batzutan, POTXOLOKAN esate baterako, erabiltzen den lurrean egindako zuloa. "Plaza barrixan, potxolo bi genduzen jokorako".

PRIJI-ARRAIÑA.- Prijitzeko erabiltzen den arraina. "Priji-arraiña, astiro maixan izatera, jatekorik gozuenetakua".

PUF!.- Higuina adierazteko exclamazioa. "Puf! Igoingarrikerixa bat eritxi detsat".

PUNTAKUA.- Bikaina, besterik ez bezalakoa. "Aixa zarra kaxagiñ puntakua zan".

PUPUA.- Ume-hizkeran, mina. "Pupua eiñ detsu zatar aundi orrek!".

PURRAK.- Oiloak, ume-hizkeran. "Atoz purrak ikustera!".

PUTZA.- Airezko pelota, baloia, globoa. "Erregiak putza ekarri detse gure mutil txikixari".

PUTZ-ERROSKILLIA.- Harroskoak, euren burua besteen gaintetik daukatenak. Emakumeei buruz esaten da. "Bestelako putz-erroskillia jatzu bedori!".

PUXIGIA.- Puxika, erderazko 'vejiga'. Petrala, zazpikia. "Koipia gordetzeko asmuan, sikatzen dittugu agan puxiga batzuk". "Sekulako puxigia dagon bedori!".

PUZKANTZA.- Uzkerra. "Bateronbatek bota dau amen puzkantza".

PUZPILLUA.- Pusla. Burbuila, puspila, erderazko 'pompa, burbuja'. "Puzpilluak urten desta ezpanian, otz-ikara ezker". "Puzpilluak eitten ziran lasto bategaz".

RAUSK!.- Zerbait iraultzen dela adierazteko interjekzioa. Ahalegina adierazteko ere erabiltzen da. "Errebueltan burdixa rausk! itzuli zan".

SABELOIXA.- Buruko zahia. Erderazko 'caspá'. "Oingo umieri ez jakue ikusten sabeloirik".

SADARIKO BUSTIXA.- Ardoa. "Sadariko bustixakin kentzen ei da onduen egarrixa"

SAIÑA / ZAIÑA.- Sapa, landareek barruan izaten duten gai likidoa. Erderazko 'savia'. Zukua. "Sustraixetatik orrixetara, eta orrixetatik sustraixetara dabill zugatzetan saiña, gure soiñian odola bezela". "Matsan saiña, ardaua".

SAITTU.- Jatekoa alperrik galdu. "Gaur erosi dozun arraiña, saittuta dago".

SAKAPIA.- Ganbaran teilatuak beherantz egiten duen angelua edo zokoa. Teilatuaren hegala. Gaztelerazko 'alero'. "Esate baterako sakapian bizi zan". "Sakapiak asko gordetzen dau etxia, euri asko eitten daben lekuan".

SAKATU.- Ziria sartu, engainatu. "Aundixa sakatu zetsan koittau ari".

SAMARRA.- Hauts garaua. Txikia, baliorik gabekoa. "Samarra sartu jata begixan eta ezer ikusi ezinda nago". "Jaungoikuan aurrian gara gu, samarra".

-SAMAUUA.- Jatorduetan-eta mahai gaina estaltzeko erabiltzen den ehuna, zamaua. Gaztelerazko 'mantel'. "Platerak ipiñi baino len, jarrizu samaua".

SAMURRA.- Ona. Biguna. Erraza. "Biotz samurrekoa eta laguntzaillia". "Okela au ez da samurra, alperrik karuena". "Gaur lan samurra agindu deste".

SANIDADIA.- Aurpegi gogorra, lotsagabekeria. Gaztelerazko 'cara dura, frescura, desfachatez'. "Saltzeko baleu aretxek daukan sanidadia, apur bat erosiko netsake".

SANTUAK.- Liburuetan ageri diren argazkiak edo dibujoak. "Emoirazu liburu ori, santuak ikusi deixorazen".

SANTZUA.- Zntzua, alaitasun oihua, giza irrintzia. "Santzuak eta aujixak entzutzen ziran alde guztietan".

SAPAIXA.- Ganbara. Gaztelerazko 'desván'. "Juari sapaira eta ekarridazak sagarrak".

SAPAILLUA.- Balkoia. "Leiuua eta sapailua, galdu jakuzen berbak, iñoiz oittu badira Eibarren".

SAPA / SAPO-PERRETXIKUAK.- Perretxiko txarrak, jatekoak ez direnak. "Oiñ jaso dozuna, sapo-perretxikua".

SAPERUA.- Oiloei jaten ematen zaien arto irinez eta urez eginiko orea. "Saperua eta asa orrixak, oilluendako janari onena".

SAPOTSUA.- Arrenkuratsua. Gaztelerazko 'rencoroso'. "Urtetan bere gaizkiñak aztutzen ez dittuan sapotsua jatzu a gizona".

SAPUTZA/ZAPUTZA.- Animalia batzuen sama. "Saputzetik oratuta eruan neban katu ori, pekatu eiñ eban lekura".

SAPUZTU/ZAPUZTU.- Jipoitu. "Oratu eta sapuztu neban bere biziko onduen".

SARGU-ESKAILLUAK.- Erreketako arrain txikiak, sarguak eta eskailluak nahastean, halaxa egokitzen dira sarean-eta. "Sargu-eskaillu jana dogu gaur Kantoikuan".

SASIPOIA.- Sasikumea. "Baziran Eibarren Sasipoianekuak".

SASKARRA.- Baldarra, traketsa. "Jolas saskar baten zirala denboria emonaz, miñ aundixa artu eban".

SASOIA.- Gaztetasuna. "Ogei urte, alako sasoirik!".

SATANDERIA.- Erbinudea. Erderazko 'comadreja'. "Gure basuetako beste fristixa asko bezela, satanderia be gastau da".

SATSUA.- Zikina. "Zuloagan zan guregaz Satsu abadia, ala izentauta, gizajuak soiñekutarako ez ebalako atarutzen, eta beti ondatuta agertzen zalako".

SATZA.- Intsusa. Gaztelerazko 'saúco'. "Satzan adarrekin eitten genduan flota esaten gentsan jaurtigarri bat".

SEKULARIXUAN.- Denbora tarte luzea. "Sekularixuan ez da etorriko, aregaz barriketan jarri bada".

SENAILLE/SEIÑALE.- Ezaugarria. "Arrausiñ eittia loguria edo gosiaren senaille".

SERMOIGIÑA.- Besteei haserre egiteko joera duena. "Biotzez ona zan, baiña sermoigiña".

SETATIXA/SETATSUA.- Terkoa, egoskorra. "Alperrik erregutu ari, beriari eutsiko detsa, setatsua da ba".

SIKUA.- Zekena. "Iñor baiño aberatsaua, baiña sikua besterik ez lakua".

SINBRIXUA/ZINBRIXUA.- Medragaitza, erderazko 'esmirriado'. "Ume sinbrixu bat azten diardu".

SINISPERIA.- Sinesmena. "Sinisperia zetsen Ama Illargiari".

SIRRINDARIA.- Hegala, ertza. "Soluan sirrindara baten kontura dabiz auzixetan etxia jan biarrian".

SÍTS-BOLA / SÍSBOLA.- Alkanfor bola. "Sits-bola barrixak ipiñi dittugu erroperuan eta au alkanfor usaiña!".

SOILLA.- Belaska, indar gabea. Gaztelerazko 'flojo'. "Artu dogun langillia, soilla dirudi".

SOIÑEKUA.- Jantzia, baina umeena eta emakumeena. Gizonena JANTZIXA edo TRAJIA da. "Soiñeko barrixa jantzitta juan da goixago, erromerixarako asmu".

SORGIÑA.- Xarmanta, umei buruz esaten da. "Ara au ume sorgiña! Laztanka jango neuke!".

SORGIN-ORRATZIXA.- Gardalatza. Gaztelerazko 'cardo borriquero'. "Sorgin-orratzixa baiño latzagua zan a andrakumia".

SORGOR.- Gaztelerazko 'extasiado'. "Itxasuari begira sorgor nenguan".

SORKIXA.- Buruan karga eroateko ipintzen zena. "Sorkixa eta otzara aundixakin ogi-partitzen aritzen zan".

SORRA.- Baldarra, geldoa, motela. Gogorra. "Mutill ori, sorra dabil egun onetan". "Burpilla sorra dago, eta orixo apur bat eiñ biarko detsazu".

SOSIGUZ.- Geldiro, astiro, polito. "Sosiguz ibilli zaittez, jausi gura ez baduzu".

SUARUA.- Suteen kontrako aseguraa, baserritarren arteko ermandadea. "Suaruari eskerrak, berriro eiñ dabe erre jakuen basarria".

SUBALINDARIA.- Sugandila. "Subalindaria be, Salomonek aittatzen dittuan fristixa txiki jakintsuen artekoa; erregien jauregixetan euzkixa artzen dabelako".

SUBA / SUBE BEDARRA.- Belar pozointsua. "Sorginkerixa baterako, sube-bedarran billa ebillen basuan".

SUBERATU.- Altzairu tenplatuari ematen zaion tratamendu termikoa tenplea kenduz biguntzeko. "Suberatzera noia gubil-zabal au tiratu biarra dauka ta".

SUBILLA.- Zuhaitz moztuetatik ateratzen den sutarako egurra. "Negu guztirako laiñ subill batu dot etxe ondora".

SUMUA.- Usaimen ona. Ehiza txakurrei buruz esaten da. "Erbitxakur orren sumua, ezagutu danik fiñena".

SUR KARAKOTIA.- Sudur zorrotza. Gaztelerazko 'aguileña'. "Famelixa aretako ume guztiak eben sur karakotia".

SURPIA.- Ahoa. "Surpetik juan jakoz, zittuanok eta ez zittuanok!".

SURZILLUAK.- Sudurraren zulo biak. "Lotan, surzilluetatik artzen dogu arnasia".

SUTAUTSA.- Errautsa. "Sutautsa ona izaten da ontzixk garbitzeko" SUZKO ERROBERAK.- Su artifizialak. "Geldittu zaittez bixar arte, gaur gabeko suzko-erroberak ikusteko".

SUZKO-IZKUA.- Zezen suzkoa. "Ez zan a zezen suzkua eta bai suzko-izkua".

TAJURIA.- Itxura. "Ori ez dok gizonan tajuria".

TAK.- Kolpearen onomatopeia. "Tak eta erriala! Kendu eiñ biar izan neban gittarria".

TAKADIA.- Kolpea, fisikoaz ginera, sikikoa ere izan daiteke. "Oingo gaixuak, takada aundixa emon desta".

TAKARRA.- Saskarra, baldarra. "Biargiñ takarra izan da beti".

TAKA-TAKA.- Ume-hizkeran, oinez ibili. "Taka-taka etorri zaittez amatxogana".

TAKETA.- Asko hazi dena, kankailua. Gaztelera-zko 'grandullón'. "Zure seme taketak eindako astokerixia".

TAKORRIXA.- Tabakoa. "Takorriza erretzia da izan leikian iñuzentekerixarik aundiña".

TAKUA.- Rapé, tabako hautsa. "Gure amandra zarrak takua artzen eben surretik gora".

TANGADERA.- Egurra zehetze-lanetan haizkora moztu ez dadin erabiltzen den egurrezko enborra. "Kaxagintzan tangadera biar izaten da".

TANGILLA.- Handia, baina baldarra. Gaztelera-zko 'talludo'. "Tangillanguan izango ziran, ziur, tangillak".

TANBOLIÑA.- Pertsona alaia. "Lagun arteko tanboliña zan, gaur ill dana".

-TANTAIXA.- Inausi gabeko zuhaitza. Pertsoneri buruz, handia, galanta esateko erabiltzen da. "Zugazti artan, arbola guztiak ziran tantaixak". "Zuen seme zarrena be tantaixa ederra ein da".

TAPA-TAPA.- Oinez astiro ibiltzea esan nahi duen onomatopeia. "Tapa-tapa Zaldibarreraiñok eldu giñan laurak baiño len".

TARRATADA.- Papera edo oihala apurtzean ateratzen den hotsaren onomatopeia.

TARTAKARIÑA / TARTAKIÑA.- Jaiki handia duena. Hanka puntan, erdi-saltoka ibiltzen direnei buruz ere esaten da. Gaztelera-zko 'saltarín'. "Intxaur ezia, tartakariña". "Tartakariña danetik orrek nekez zapalduko dau lurreko txakur-kakarik".

TARTAKUA.- Hitz-totela. "Tartakua zanetik, kapillia esan biarran esaten eban kakapillia".

TART EIÑ.- Hautsi, lehertu. Onomatopeia. "Tart eiñ zetsen frakak atzekaldetik, pelotan ziarduala".

TAUTIK PEZ.- Ezer ere ez. "Tautik pez ekixan ainbeste urtian Salamanka aldetik izanda." "Baiña, plaentziatarrak konturatu ziran euskeraz tautik pe ez ekiela."

TATI.- Umeei egiten zaien jolas antzekoa. Gauza bat eskaini eta hartzera doanean, kentzea da. "Borondate barik eskindu, eta tati eiñ zestan gaizto arek, baietz esan netsanian".

TATO EIÑ.- Ume-hizkeran, salto egin, jaitsi. "Tato eizu, maittiorrek, jausi barik!".

TEILLATUPEKO GANBARA ZARRA.- Burua adierazteko. "Nere teillatupeko ganbara zarran poxpolua itzali dek eta etzeok ispiraziorik."

TEMOSUA.- Setatia, terkoa. "Temosua errezoian aurka".

TENGONTENEAN.- Zerbait orekan, baina ozta-ozta, kilikolo samar dagoenean. "Funanbulistia tengontenean zeguan alanbre gaiñian".

TENPLAU.- Lasai. "Betiko moduan, tenplau agertu zan mezia ixa amaittuan".

TENTELA.- Ergela, memeloa. "Tira, tira, juari etxera tentelori. irekin alperrik dok ta".

TERREÑA.- Aspila. Gaztelerazko 'palangana'. "Jaiki zan maittik, kendu eban soñekua eta arturik gerrixan eskupañua, ipiñi eban ura terreñian eta asi zan oiñak garbitzen bere laguneri".

TERTZIO BAT/TERTZIOKUA/TERTZIUAN/TERTZIOKO PILLUA.- Asko, handia, oso, baina zentzu ironikoan. "Tertzioko gizatua dago bedori, bizarrak urten baiño len!"

TETE EIÑ.- Jo, ume-hizkeran. "Tete eizu zatar ori; ez zaittu ba maite!"

TIKI-MIKI.- Temosoa, egoskorra. "Beriakin urten arte ez zan juango a tiki-mikixa".

TIÑAKUA.- Normalian lixiba egiteko erabiltzen zen ontzia. Gaztelerazko 'tinaja'. "Tiñaku bat aukeratu biar destazu, lexibia eitteko".

TIÑOKA.- Jolasa. Gaztelerazko 'tiro al blanco'. "Tiñoka diardugu auraxe pitxarran aurka, zeñek geixagotan jo".

TIÑUA.- Punteria. "Zeñek tiñu obia, tiñoka eiñ genduan, lurrezko pitxarra jarri ogei pausora eta".

TIPUA.- Harroskoa, hantustea. "Tipo galanta dago aberastu danetik".

TIRIA.- Zerbaitetarako joera. Salerosketan, eskaria. Erakarpena. "Etxiaak tiratzen dau ona etorri zan ezker". "Pistoliak, aspaldi onetan ez dauka tirarik". "Korputzak alkarrendako dauken tirian neurrixa, Newtonek jrri eban numeruetan".

TIRRI ETA TARRA.- Uzkerra dariola dagoena. Onomatopeia. "Sutonduan daukagu tirri eta tarra, uzkarra dariola gure mutil zarra".

TIRRIXIA.- Nahia, nahigura, joera. "Zortzirak ezker, etxerako tirrixiakin dago".

TITILLAK.- Bildots arandoia. Gaztelerazko 'mollejas'. Ganglio linfatikoak handitzeak dakarren gaisotasuna. Gaztelerazko 'escrófula'. "Gaur tititillak izan dittugu bazkarittarako". "Lenago, Frantziako erregiak osatzen zittuen titillak".

TITIRIXA.- Pazientzia, egonarririk gabekoa. Gaztelerazko 'impaciente'. "Titirixaxa danetik ezin geldik egon".

TITIZULO.- Bete amaren titien artean egoten den umea. "Titizulo orrek ama azurretan laga dau".

TOKAMENA.- Herentzia batean bakoitzari egokitzen zaiona. "Zure tokamena zan bedratzi milla errial".

TONKADIA.- Asealdia, betekada. "Atzoko jan da eranan tonkadiakin, gaur baraurik nago egun guztian".

(IT) TONTOLAPIKUA.- Tentela, leloa, ergela. "Ikusten dok zer ein duan, tontolapiko?".



TOPIÑA.- Buztinezko pitxarra, bi astaduna. "Topiñak sartaiñari esan ei zetsan ipurbaltz".

TORIATZAILLIA.- Beti tentatzen, ziria sartzen dabilena. Gaztelerazko 'incordiador'. "Zezenekin ez baiña gizonekin puntako toriatzaillia".

TORTIKIA.- Ugerra, herdoila. "Egun urteko tortikia eban ontzi aren ipurdixak".

TORTOLESA.- Bildotsaren oineko hezur txikia. Hezur hori erabiltzen zuten neska-mutikoek jolaserako, tortolosean egiteko. Gaztelerazko 'taba'. "Tortolesetara jokatzan zanian, adarixan tortolesa izaten zan gauza aundixa".

TRAILLAN.- Besoa bularrari itsatsita lotuta eraman ohi denean. Gaztelerazko 'en cabestrillo'. Zamariak nor bera aurrean dela sokatik helduta eraman. "Eskuturra ausi dabenetik besua traillan daroia". "Orko bidetik astua traillan eruan biar da".

TRAK EIÑ.- Gauza gogorren bat hautsi. "Eskuturrak trak eiñ desta, eta Arnobatekuagana jua biarra dot".

TRAKA TRAKA.- Zaldien ibilkera adierazten duen onomatopeia. "Traka-traka zaldi gaiñian Durangon ziar...".

TRAPUA.- Iruzurgilea. "Jokalarixak baiño trapu aundixagua".

TRAZIA.- Itxura, antza. "Zeiñen trazia dauka gizon orrek?".

TREKUA.- Setatia, egoskorra. "Astua bezela, treku amorratua".

TREMESA.-0gi mota baten izena. Biribila, erre gabekoa eta irina gainetik izaten zuen. Umeek eta ez hain umeek oso estimatua izaten zuten. "Elgeta kaleko labarixak eitten eban tremesa zan gozuetarikua".

TREPETXUAK.- Baserriko tresnak. "Txabola bat eiñ dabe etxia joten, trepetxu guztiak antxe gordetzeko".

TRIKIMONTAIÑAK.- Trikimaluak. "Asmauko dittu arek trikimontaiñak, bere burua garbi ateratzeko".

TROKAU / TROKATU.- Hezurren bat okertu. "Armailla igotzerakuan ankia trokau jata".

TROKOTXA.- Hatzamar-behatz motzak dituenari esaten zaio. "Tokayo zarra dultzainiagaz eta Trokotxa tanborrakin, kalietako erromerixetan".

TRÓNPETAN.- Ziba edo tronparekin jolasean jardun. "Bazabiz nirekin tronpetan?".

TROSKO.- Landu gabeko gairen baten zati handia, totxoa. "Orko burdin troskutik aurrian daukazuezan artazi fiñak ataratzan dittue".

TROZUA.- Bizkai mendebaldeko meatzea. Sasoi batean aldiko lana egitera baserriar ugari joaten ziren, eta eurek ekarritako hitza da. "Trozetan biarra eiñ ebanetik, ezagutzen zittuan Somorrostro aldiak".

TUNTUNA.- Tanbolina. "Domeka arrasaldetan tuntunian dantzan".

TXAKURRA.- Lotsagabea. "Uezaba txakurra nik amen izan neban lelengua".

TXALO-PINTXALO.- Umeei berbetan hasi aurretik erakusten zaien kantua. "Txalo pintxalo, / txalotxo txalo, / txoritxua, / mizpilla gaiñian dago; / zapatatxo / barrixeri / begira dago...".

TXAKILLANTIA.- Larru kontuetan gogorra. "Ori bizi guztian izan dok txakillante erremia".

TXANKA MAKIAK / TXANKAME.- Hanka luze eta argalak dituenari esaten zaio. "Txankame orrek ez detsa ikara aundirik eingo pisuaren orratzari".

TXAPLATIA.- Zatia, atala. Gatzik gabekoa, tuntuna. Ganora handirik gabe hitzegiten duena; neskei esaten zaie. "Jakiari ukanduetan txaplatak ipiñi biarko detsazuz, arilduta daukazuz eta". "Txaplata aren esanari begira bazagoz...".

TXARIA.- Zuhaixkaz osatutako baso itxia. Gaztelerazko 'jaral'. "Txara asko solo biurtu dira, baserri bizitzak geitzerakuan".

TXARRI-AGIÑA.- Okerreko lekuan, besteen ganean, hazten den hagina. "Orrek txarri-agiñok, atara eiñ biarko dittuzu".

TXATALA.- Atala, zatia. "Lur txatal bategaittik, zenbat gerra eta eriotza alperriko!".

TXATXA.- Oinez ozta-ozta egiten dakien umei esaten zaie. "Amen dator gure txatxa, bakar bakarrik!".

TXATXALIA.- Gatzik gabekoa, tuntuna; emakumeei buruz esaten da. Gizonezkoei buruz, berriz, TXOTXOLUA esaten da. "Txatxala galanta da bera beintzat".

TXATXARIA.- Axolagabekeria, ganorarik eza. "Txatxaria berana, dogun eguraldixagaz or ziar".

TXATXARRA.- Txikia. "Txatxarra dago dittuan urtietarako".

TXEPELA.- Adorebakoa, koldarra. "Ain zan txepela, tarrua joten ibiltzeko lagunek txapela kentzen zetsen".

TXIKUA.- Zaldi kumea. "Txikua lezkotxe saltakarixa eta egon ezindakua".

TXILIBITUA.- Zakila. "Txilibiton, Portalian bizi zan seme-alabegaz, zeintzuk jarri izan eben aittan izena".

TXILIBRIZKAU.- Edaten ohituta ez dagoena mozkortu. "Eta uste barik txilibrizkau zan, eta lepuan eruan eben, lauren artian, kalietan ziar, etxera".

TXINGARTU.- Kiskaldu, txingar bihurtu. Normalean sexu-grina adierazteko erabiltzen da. "Obe da ezkontzia tingartu baiño".

TXINGORRA.- Bidezidorra, ganaduak edo gizakiak ibiliaren ibiliaz irekitako bidea. "Bide txingorra jarraitu eta eldu giñan bide nagusira".

TXINGORRA.- Euri izoztua, kazkabarra. "Añ azixa izan da gaurko txingorra, arrixa be esan zaikixon".

TXINTX EIÑ.- Ume-hizkeran, zintz egin. "Txintx eizu orrek kandelok kentzeko..."

TXINTXIÑA.- Diruaren onomatopeia. "Txintxiña badarabill eta ez da baraurik geldittuko".

TXINTXORRA.- Frijitutako urdai zati txikia eta kizkur-kizkur eginda. Gaztelerazko 'chicharrón'. Txerri koipea urtzean geratzen diren hondakina ere bada. "Gaur egunian txintxorrak poltsetan be saltzen dittue, zein da patata prijiduen moduan".

TXIO-TXIO.- Ume-hizkeran, txoria. "Txio-txio ekarriko detsut, maitte polittorri, zuregaz lo eñ deixan".

TXIPLI-TXAPLA EIÑ.- Uretan jolasean ibili, zipriztinak atereaz. "Txipli-txapla eñ dabe ibai onduan, eta ondatu dira bixak".

TXIPRIZTIÑA.- Txikia, ezgauza. "Ixildu ari txipriztiñori!".

TXIRIBIRIXAK.- Egurraren txirlorak. "Anton arotzanetik ekarrizuz txiribiri batzuk, sua ixotu deigun".

TXIRIKILLETAN .- Umeen jolas bat. Makila handi batekin, alde bietan punta zorrotza duen makilatxo bat jo egiten da, ondoren airean bueltaka dagoela, makila horrekin jo eta ahal denik eta urrutien jaurtitzen da.

"Intxaur joten, txirikilletan eta beste joko askotan, arria izaten da neurri."

TXIRI-TXIRI.- Piskanaka-piskanaka, soseguz. Badago ahokorapilo bat hitz honen inguruan: "Banoia txiri-txiri, txara txikira txoritxara."

TXIRIPIA.- Suertea. "Txiripa aundiko gizona izan zan beti jokuan".

TXIRRIKIA.- Txinga, zeregin ugaritarako orman gogor sartuta egoten den forma biribileko burdina. Gaztelerazko 'argolla'. "Lenago, batian da bestian ziran txirrikak, kalerik kaleko zezenan sokia lotzeko".

TXIRRINBOLIA / TXIRRINDOLIA.- Ume jolasetako aroa. "Zurezko txirrindolia neban nik".

TXIRRIXUA.- Jarioa. "Txirrixua dauka zadari orrek".

TXISPAGIÑA.- Armen txispia egiten duena. Txispagintzan Ermuan jarduten zuten batipat. "Txispagiñak ziran Ermuan".

TXISPIA.- Armek polborak su hartu dezan izaten duten giltz antzekoa. "Atxa anaiak ziran Ermuan onenak txispia ataratzen".

TXISTADA.- Norbaiti deitzeko ahoarekin egiten den hotsa. Gaztelerazko 'chistar'. "Gure Agapitok txistada bat entzutzen daben bakotxian burua bueltau eitten dau".

TXITXAKA.- Ume jolasa, txingor gainean ibiliz bata bestia harrapatzen jarduten da. "Txitxaka ordutan jardun da gero gure umiak gosetuta etorri dira".

TXITXALAPURRA.- Hegazti harraparia. "Txitxalapurrak dabiz eta obe izango da oilluak barrura eruatia".

TXITXI.- Txakurra, ume-hizkeran. "Atoz, bestela txitxik jango zaittu!".

TXITXIA.- Ume-hizkeran, okela. "Jaizu txitxia, maittiorrek, aundia eitteko!".

TXOLIÑA.- Emakume berritsua. "Diruduna, politta eta zeuk nai dozun guztia, baiña txoliña".

TXOLOTA.- Antoisina, astadun edalontzia. "Azunberdiko txolota zan, egunero aren erraziñoa".

-TXORIMALUA.- Ganorabakoei esaten zaie. "Aldeik bistatik, i bizi guztian izango aiz txorimalua!".

TXOROKIL.- Garandutako artaburua. "Txorokillekin su aundixaa eñ genduan soluan".

TXOTXO!.- Mutikoei deitzeko. "Txotxo! Ekarriko destak takorrixa estankutik? -Neuk be, iñori ekarri eraitzen detsat".

TXUNDARRA.- Azal azpiko zelularen bat soltzean sortzen den grano edo garaua. Gaztelerazko 'forúnculo, divieso'. "Txundarrak urten desta ipur-mamiñian".

TXUNTXURRA.- Gailurra, mendi punta. "Galdaramiñoako txuntxurrak, titi bat dirudi".

TXURINGIA.- Ipurzuloko zainak handitzean agertzen diren odolbatu antzekoak, odoluzkiak. Gaztelerazko 'almorranas, hemorroides'. "Eñ biar izan zittuan indarregaz, txuringiak urten zetsan".

TXUTXU-PUTXUAK/TXITXI-POTXUAK/TXUTXUMUTXUAK.- Ahopean, isilka-misilka ingurukoek ez entzuteko moduan esaten direnak. Gaztelerazko, 'comadros' 'murmuraciones'. "Alkarrekin bat eitten daben guztian, txutxuputxueta emoten dittue orduak".

UDAGUENA.- Udazkena. Baserrietan kalean baino gehiago erabiltzen da berba hau. "Udaguena da mendixan ibiltzeko sasoirik onena".

UEZ-AITA / AMA.- Aitorde, amorde. "Uez-aittak ondo artzen eban".

UFALA.- Uholdea. Asko, ugari. "Ufala doia Maltzako ibaixan, iñoiz baiño azixagua". "Ufala darabill dirua aspaldi onetan".

UFALDU.- Blai egin. "Ufalduta laga dot zure laguna, pitxarkada ura jaurtirik burutik bera".

UGALA.- Uhala, larruzko lokarri estua. Gaztelerazko 'correa'. Sasoi batean tailerretako makina gehienak uhalen bitartez mugitzen ziren. "Aren aittak, sarrittan erabilli biAr izaten eban ugala". "Ienago makina guztiak ziran ugalkin".

UGAR.- Herdoila. "Burdinezko erramintta asko erabili ezik ugartu eitten dira".

UGARAMARIA.- Ur geldietan sortzen den alga edo lizun geruza. "Ur geldixetan letxe, ugaramaria eitten jakon zorruan, ardaurik eran ezik".

UGARATXUA.- Igela. "Ataiko potzuan, ugaratxuak eñ dira, eta gabaz badogu soiñua.

UJENTU / UJENTO.- Ukendua, azalean emateko edo igurzteko erabiltzen den gai itsaskorra. Normalean sendatzeko izaten da, pomada, adibidez. Gaztelerazko 'ungüento'. "Enorrak kentzeko sorgiñak ujentu bat ein detsa paparran".

UJUJUAK.- Irrintziak. "Irrintzilari bat onutz, ujuju gogor bat bialdu deixogun urriñeko areri!".

UKA, JOXE, UKA!.- Nahiz eta arrazoirik ez izan, ezezkoari eusten diotenei buruz esaten da. Motxailek edo ijitoek auzietan leporatzen zitzaaien guztiari ezetz esateko zuten ohituratik ei dator. "Uka, Joxe, uka, eta egon zu orretan!".

UKO, UKO!.- Motxailen hizkera. "Uko, uko, Joxe kastia bazara!".

ULE-IZURRA.- Ile kizkurra. "Afrikako baltzak letxe, ule-izurra eban".

ULUA.- Oloa. Gaztelerazko 'avena'. "Oilluari olua, astuari lastua".

úlUA.- Aiene, erosta; mina edo zorigaiztoa adierazteko hotsa. "Bazan negarra eta ulua aren ondorian".

UMEGINTZIA.- Erditzea. "Umegintzia dogu gaur gure etxian, esan eban Pellok tabernara eldutzerakuan".

UMEKIA.- Umekerietan ibiltzen den heldua. "Aundi einda be, umekia irauntzen dau".

UMETXIKIÑA.- Mutxikina, fruta jaterakoan geratzen den hondakina. "Berak atal ederrak, neri umetxikiña".

UMEZARIA.- Haur-oihala. Erderazko 'pañal'. "Amaika umezara bigun ondatu zittuan bere umiak azten".

UMIA-EIÑDAKUA.- Ezkongabeko ama, zentzu peioratiboan. "Gaizki gura detsenak esaten dabe neska orregaittik umia-eiñdakua dala".

UME ZORRI.- Ume lotsabakoei esaten zaie. "Gaur egunian ume zorri guztiak zigarrua auan dabela ibiltzen dira kalian".

UNA.- Hezurrek barruko aldean izaten duten bigununea, hezurmuina. Gaztelerazko 'tuétano'. "Unetaraiñok sartu jata otza".

UNAMORIXUA.- Erizkidetasuna, ahobetekotasuna. Gaztelerazko 'unanidad'. "Unamorixo aundixa egon da gaurko batzarrian".

UNGRIANUAK.- Erteuropako ijitoak; euskaldunak motxaillak ziren. "Sarri agertzen ziran lenago, ungrianuak artzari dantzan eraitzen".

UPARTIÑO.- Harriz egindako aska modokoa. Baserrietan-eta ura banatzeko erabiltzen da. "Santa Kurutzeko eskola zarran onduan bada ondiok upartiño bat".

URAK.- Izakeran edo nortasunean bi lagunek duten antza. "Badittu bai arek bere aittan urak, eta ez gitxi".

URBATUA.- Putzua, osina. "Inguruan zan urbatu bat, ugaratxo beteta, izugarritzko orruak ataratzen ebela".

URBUSTANA.- Izaina. Gaztelarazko 'sanguijuela'. "Lenago, botikan saltzen ziran erreka urbustanak".

URDAI-KALLUA.- Urdaiaren azala. "Gordeirazu urdai-kallua, mendirako oiñetakuak leguntzeko".

UR-EPELA.- Ezertarako adorerik ez duena, gatzik gabekoa. "Ur-epel bat izango da ori bere bizi guztian".

URRIAN.- Beharbada, akaso. "Etorriko ete zara? -Urrian, etorriko naiz".

URRIK B'EZ.- Ezta gutxiagorik ere ez. Gaztelarazko 'ni por asomo'. "Ondu dau goizekuan markia? -Ezta urrik b'ez".

URRIXA.- Geldoa, motela. "Urrixa baiña azkartu zan bere kontura jarri zanian".

URRIZKIA.- Txilioa, oihua. "Sanmartin eguna eldu zanian, ai urdi aren urrizkak eta ostikuak jaurti biarra!".

URRUMADA.- Urruma. Gizakiok egiten dugun kexazko hotsa. Gaztelarazko 'gruñido'. Ganaduak eta baita usoek ateratzen dituzten hotsei ere esaten zaie. "Txal txikixa gosian gosez urrumadaka dago".

USA.- Herri basoa. "Antxiña Eibarren herri basueri usa esaten zetsen".

USKILANDRIA.- Pertsona arraroa. "Ez dok arritzekua arek eindakua beti izan dok uskilandria ta".

XAXARIA.- Ganora gutxi. Aisialdia. "Xaxaria berana, dogun egualdixagaz or ziar!".

XELBIA / ZELBIA.- Maltzurra, gaiztoa, hutsagatik hasarretzen dena. "Kendu ari nere begixetatik, xelbiori!".

ZAILLDU.- Ahalegindu, saiatu. "Zailldu zan, baiña bestiak irabazi zetsan".

ZAILLA.- Saiatua. Gogorra, ez samurra. "Zalla lanian eta ugarixa zure semia". "Etxeko-andra! Gaurko okelia zalla dago".

ZAMAUA.- Sukaldeko esku-trapua. "Sikatizuz eskuok zamauakin, bestela atzera be liburua zikindu ingo destazu ta".

ZANBRUAK.- Ubeldurak, beltzuneak. "Irizillakin zanbrua atara zetsazen bizkarrian".

ZANKAPIA.- Zankabea. "Zankapian eman zetsan ostikadiakin lurrera eratxi eban".

ZAPARROTIA.- Txaparroa, txikia baina potoloa. Gaztelerazko 'regordete'. "Antero zaparrotia, Singerren bibotia...".

ZAPLATEKUA.- Belarriondokoa. "Maixuak eman detsan zaplatekuakin zati baterako berotuta dauka matrailla".

ZARIA.- Saskia, otzara. "Urte barri barri, txarri belarri, daukanak ez daukanari zaria bete madari".

ZARPAILLUA.- Arlotea, narrasa, txarto jantzita dagoena. "Gizon zarpaillua agertu da".

ZARRADIA.- Zirrara, emozioak eragindako ikara. "Soiñu orrek zarradia eitten desta biotzian".

ZARTARIA.- Haustura, arrakala. Txoro samarra denari buruz ere esaten da. "Pitxar onek zartaria dauka eta ez da luzerorako". "Orrek jaukak zartaria orrek!".

ZARRASTRAJUA.-Zarpailtsua, arlotea. "Zarrastrajo galanta einda etorri da Ameriketatik".

ZARTATEKUA.- Zaplastekoa, belarriondokoa. "Zartateko bat emonda bialdizu ori!".

ZARTAU.- Arrakalatu, pitzatu. "Zartau da etxe guztia lurrikariakin".

ZASTADIA.- Sastada, ziztada. Iruzurra, traizioa. "Zastada bat izan dot biotz biotzian, ikustiakin bakarrik". "Zastada ederra eñ zestan, saldutako arek".

ZATARKI / ZATARTO.- Txarto, gaizki. "Zatarto be zatarto josi detsa soiñekua".

ZATI BATERAKO.- Denbora tarte luzerako. "Zati baterako aldendu giñan geure lekutik".

ZATI BIKO ARPEGIA.- Ipurdia adierazteko eufemismoa. "Fraketako apurtutik zati biko arpegia agiri jakon".

ZEBETE.- Arrabete. Jostunen neurri bat. "Gerritik zebetera, poltsikua".

ZERENA.- Zura jaten duen sitsa, pipia. Erropa jaten duenari ZITSA esaten zaio. "Zerenak jaten dau egurra, zitsak erropia".

ZERTARAKUA.- Zerbaitetan trebea, iaioa. "Zertarako gizona da".

ZERUKO KATUA.- Harra. Gaztelerazko 'oruga'. "Zeruko katua, mitxeleta geixa".

ZETAKIA.- Zikinunea, orbana, arrauka. "Alkondara barrixan zetaka ederra ein detsa usuak kaka eñ detsanian Untzagan".

ZETERIXIA.- Umeteria, haur talde handia. "Erriko zeterixa guztia batu zan komedixara".

ZIBURUA.- Trapezioa, zabua. Gaztelerazko 'columpio'. "Komediante arek ziburuan eñ zittuan lanak, esan be eziñ laikez".

ZIBURU-ZAURIA / ZIBIRI-ZAUBIA.- Zabua. Erderazko 'columpio'. "Ziburu-zauria jarri dabe ostian, umien jolaserako".

ZIKIRRI-ZAKARRIA.- Hondakinak, zaborra. "Zikirri-zakarria bazan ugari aren etxe ostian".

ZILLA.-Hainbat fruituri, kipula edo gaztainari, esate baterako, ernetzen zaien txortena. Zilborra. "Kipulari zilla eñ jako, ez gendualako esegi". "Zilletik amagaz bat einda jaixotzen gara".

ZIMELA.- Zekena, ugerra. "Atso gaizto aura, arpegixan baiño biotzian zimelaua zan".

ZINTXIA.- Espaloiaaren ertza. "Etxe aurrian, zintxa guztia artzen dau bere salgeixekin".

ZIÑU EIÑ.- Norbaiten plantak egin, burla egin. Gaztelerazko 'hacer muecas'. "Ziñu eñ zetsan nausixari, gaizto bat zalako".

ZIORRA.- Ihia, leku hezeetan hazten den landarea. Gaztelerazko 'junco'. "Ziorrezko otzarak eitten ibai-onduan ikusten ziran motxailen andrazkuak".

ZIPLI-ZAPLA.- Belarriondokoaren onomatopeia. "Zipli-zapla ezkerrera eta eskumara, aldendu zittuan danak".

ZIRAUNA.- Maltzurra, gaiztoa. "Zan kaltegarritzko ziraun bat, asarria ipintzeko beti prest".

ZIRIKILLOTIA.- Ukendu bat. Kalabaza egosia eta azukrearekin egiten den gozokia. Kalabaza-mermelada. Gaztelerazko 'cabello de 'angel'. "Zauri orrendako, amandriak dauka zirikillotia". "Bazkarittan postre berezixa daukagu gaur: zirikillotia".

ZIRIMILDU.- Nahastu. "Ogixa eitteko onodo zirimildu biar dira uruna eta ura".

ZIRIMILLOTIA.- Nahaste-borrastea. Gaztelerazko 'revoltijo'. "Ondrajanan ostian tabernan egundoko zirimillotia geratu zan".

ZIRIMILLUA.- Nahastea, nahastura. "Aixa da uruna eta esnian zirimillua".

ZIRIÑA.- Likidoa, urtsua, ez lodia. "Morokill ori ziriña dago; arto-urun geixago biar dau".

ZIRKIÑA / ZIRKIÑ ZULUA.- Txokoa, ezkuta-lekua. Gaztelerazko 'escondrijo'. "Zirkiñ guztiak begiratu zittuen; agertzen ete eben ezkutuan bizi zen bat".

ZIRKIÑ EIÑ.- Ihes egin. Gaztelerazko 'esquivar, escabullirse'. "Zuzen zuzen zetorren nergana, baiña zirkin eñ netsan".

ZIRRI-BORRUA.- Inolako arretarik gabe egiten diren idazki edo marrazki ulergaitzak. Gaztelerazko 'garabato'. "Kendixozu lumia umiari orma guztia zirriborroz bete dau eta".

ZIRRINDARIA.- Metalezko gauzek ateratzen duten zarata. Ilada, lerrokada. "Serrian zirrindariak gortutzen ninduan". "Eraiñ dot zirrindara bat solo ertzian".



ZIRRI-PARRIA.- Anabasa, nahaste-borrastea. "Ondoren izan zan zirriparriak aukeratuta, al izan eban iges eittia".

ZITTALDU.- Haserretu. Zauriei bagagozkie, zoldu. "Ziero zittaldu jaku uezaba diru geixago eskatu detsagunian". "Zerriakiñ ein neban ebaixa zittaldu eiñ jata, azkapela ez netsan ba ipiñi".

ZIZKI-NASKIA.- Anabasa, nahaste-borrastea. "Urten eban zizki-naskia, iñok erabagi eziñdakua".

ZOIXA.- Zokila, mokila, lur multzo gogorra. "Alperra izaten da zoixak apurtzeko".

ZORAKILLA.- Zoroa. Erderazko 'locuelo'. "Aunzkuma zorakilla dan leztxe aman inguruan, alaxe, jolasetan eta saltaketan dabill egun guztian".

ZORO-USAIÑAK.- Zorakeriak. "Zoro-usaiñetan dabil aspaldixan gazte ori".

(L) ZORRIZTO-ZORRIZTO.- Isilean, ezkutuan, apurka-apurka. "Zorritzto-zorritzto eiñ eban ixil poltsia".

ZORRIZTUA.- Zorritz betetakoa. "Buruan azka eitteko baiño alperragua zan zorritzto aura".

ZORRO-ZORRO.- Zurrungaren onomatopeia. "Auaz gora lo eitten dau, zorro-zorro".

ZORRUA.- Estomagua, tripa. "Mutillak, zorrua bete ezkeru, kontentu dira, naiz porruak, naiz eperrak".

ZOSTORRA.- Itsusia, egoera txarrekoa. "Txabola zostor baten bizi da basuan".

ZOSTU.- Landare batzuk larregi hazten uzten zaienean zoztu egiten dira. "Porruak zoztu dira, azak be bai".

ZUMITZA.- Saskiak eta, egiteko erabiltzen diren zumezko tira mehe eta luzeak. "Zumitzekin eindako otzara ederra eiñ detsa".

ZURKATXA.- Laborria, beldur handia. Eskarmentua ere esan nahi du. "Zurkatxa ez da, ez maitte eta ez errespetua". "Emon detsan pasariakin makaleko zurkatxa artu dau".

ZURRUNBILLUA.- Buruan izaten den ilerik gabeko unea. Gaztelera 'coronilla'. "Mutiko batzuk ziran, zurrunbillo bikin buruan".

ZURRUT.- Edatearen onomatopeia. "Zurrut eizu, maittiorrek, esnia, apapara juateko".

ZURRUTA.- Txikiteoa, edateko ohitura adierazteko. "Egunero, Eperranian dogu geure zurruta". ZURRUZTADIA.- Zurrunga. "Juan naizenian esnatzera, zurrutzadaka eguan".

ZURTU.- Txunditu, zur eta lur geratu. "Ainbeste ikusmirak aiñ leku gitxixan, zurtu ninduan".